ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-04-23
ASTELEHENA
362. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

# Iker Elortza, txapeldun Ordiziarekin

Errege Kopa irabazi dute goierritarrek | 25



Iker Elortza, koparekin. | IÑAKI ETXEBESTE

Maiatzean hasiko dituzte Atxorrotzeko azken indusketak | 11



774 boto BH Klip lehiaketako ikuslearen sarirako | 29



Motor hotsak gortu zuen Bergara zapatuan, Black 3 jaiarekin | 13



Eusko Gudariak abesten, Intxortako Ateko omenaldian.

# Omenaldia eta salaketa, frontea erori eta 75 urtera

Egia eta ordaina eskatu zituzten senideek, Intxortako Atean egindako ekitaldi jendetsuan | 4

JULEN IRIONDO

## Parapenteek eta Zincak egin zuten hegan Aloñako proban

Errekorra hautsi zuen, eta Amilibiak nesketan irabazi | 22



Ionut Zinca. | JOSETXO ARANTZABAL

## Jesus Mari Ugalde bergararra izendatu dute Jakiundeko presidente | 5

%15eko deskontua

► Zoaz 21. orrialdera.

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
LILURA
edertze institutuaren eskutik

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA 36 | JAIOTAKOAK 37 | ZORION AGURRAK 38

# Denoi zer eskaini baduela erakutsi du berriz Lanbide Heziketak

- Bailarako zentroek Goiaz! azoka egin dute
- Ikasle, langile eta langabeak izan dira bisitari
- Esperientziak plazaratzea izan da ardatzetako bat



MUko Goi Eskola Politeknikoaren mahaiaren aurrean, ikasle talde bat bisita gidatuan,

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Euskadiko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak ohartarazi du txosten baten: enpresen beharren arabera egokitu behar da heziketa eskaintza, izan ere, Euskadin Unibertsitate ikasketak dituen jende "larregi" dago, eta beste mota batzuetako tituludunak, aldiz, behar baino gutxiago. KESen esanetan, "lan-merkatuak eskatzen duen kualifikazio mota eta eskaintzen zaiona hobeto parekatu behar dira". Horren arabera, Lanbide Heziketak gero eta pisu handiagoa izan dezakeela dirudi.

Pisu hori dagoeneko handitzen joan da urte batetik bestera krisia hasi zenetik, eta Debagoienean ere hala izan da. Eustat estatistika erakundearen datuen arabera, aurten 40.000 lagun daude Lanbide Heziketa ikasten, joan den ikasturtean baino %10 gehiago. Tituludunei dagokienez, Euskadikoen %13,7 dira LHkoak, eta azken bost urteotan berdintsu jarraitu du proportzioak. Konparazioa egitearren, Espainian tituludunen %7 dira. Gipuzkoan, 2009/10 ikasturtean, Gipuzkoan, Lanbide Heziketa egiteko %11 jende gehiago matrikulatu zen, eta Goi mailako zikloetan ugaritu ziren gehien matrikulak: tarte horretarako %9,8 jende gehiago matrikulatu zen. Debagoienari dagokionez, 2011-12 ikasturtean 607 matrikulazio berri izan dira eskualdeko ikastetxeetan. Guztira, Debagoienean 1.051 ikasle daude Lanbide Heziketa ikasten, horietatik ia %60 Goi mailako zikloetan.

Eta Lanbide Heziketak eskaintzeko duena ikusteko aukera izan zen joan den eguen eta egubakoitzean, Kulturaten. Hantxe egin zuten Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak, LH zentro guztiek eta beste erakunde batzuek Lanbide Heziketa azoka, Goiatz! delakoa, aurten hirugarrenez. Jende asko joan zen Kulturatera, ikastetxeen informazio postuetara, hitzaldiak entzutera eta zenbat ikastetxek ipini zituzten proiektuak eta emaitzak ikustera.

**ESANAK**



**"Aukerak non, gu han; kanpora joan daiteke lanera LH ikasi duena ere"**

JOKIN LASPIUR
TXINAN BIZI ETA LAN EGIN IZANDAKOA

### Jakin-mina piztea, helburu

Lanbide Heziketaren arlo guztiak erakustea, eta xehetasunak ematea ezinezkoa da bi eguneko azoka baten; hala, jendearen jakin-mina piztea eta Lanbide Heziketara erakartzea izan da aurtengo Goiaz! azokaren helburua.

Urtero, gai-ardatz bat aukeratzen dute antolatzaileek, eta aurten esperientziak izan dira. Hala, batetik, ekintzaile batzuek –euren enpresa sortu dutenek– euren esperientzia kontatu zuten azokan; bestetik, atzerrian lan egitearen inguruan berba egin zuen Jokin Laspiurrek, Mondragon Korporazioko Asiako erosketen arduradunak, Txinan bederatzi urtean bizi izan eta lan egin ondoren.

Mankomunitateko Garapen Agentziako ordezkari Amaia Irizarren hitzetan, "kanpora lanera joandakoen esperientzia eta ikasketak egin dituztenen esperientzia kontatu nahi izan dugu; izan ere, Lanbide Heziketak badu zerbait azpimarragarria: bide askotatik sartu daitekeela".

Irizarrek berretsi egiten du helburua ez dela Lanbide Heziketak eskaintzeko duen guztia plazaratzea, baizik eta "ikasleei Lanbide Heziketara hurbiltzeko aukera ematea eta eurek zuzenean elektronikan, mekanikan, eraikuntzan... dagoen eskaintza ezagutzea".

---

**HARITZ ETXANIZ** | ALET ENPRESAREN SORTZAILEETAKO BAT

## "Ekintzaile mordoa behar da orain, bere negozioa garatuko duen jendea"

Haritz Etxaniz eta Mikel Almortzak sortu zuten energia berriztagarrien Alet enpresa, Bergaran. Etxanizek bere esperientzia kontatu zuen azokan, eta ekintzaile izatera animatu zituen entzuleak.

**Zelan sortu zen Alet Taldea?**

Ideia 2003an sortu zen; Mikel Almortza eta biok lanean geunden, ni Metagran eta bera Oronan, baina ez genuen gure burua bizi osoan enpresa baten lanean ikusten. Hartara, elkarrekin zerbait sortzea pentsatu genuen, eta energia berriztagarrien sektoreak etorkizuna izan zezakeela ikusi genuen, nahiz eta orduan oraindik gordin zegoen. Ikertu egin genuen, Lanbide Heziketako programa bat egin, eta horrekin, eta Miguel Altuna Institutuaren laguntzaz, 2005eko martxoan sortu zen Alet Taldea.

**Animatzen duzu jendea pauso hori ematera, bere enpresa sortzera?**

Bai. Bere proiektua, bere ezinegona duen jende guztia animatuko nuke, merezi du–eta; sakrifizioa da,bai, baina asko ematen du, pertsona gisa ere bai, izan ere, edozein arazoren aurrean, norberak atera behar du aurrera, ez dago goiko arduradunik. Beraz, bizikalitatea ez da hobetzen, baina hala ere, merezi du.



Haritz Etxaniz. | L.K.

Horrez gain, krisitik irteteko hirixe da behar duguna: ekintzaile mordoa egotea, bakoitzak bere negozioa garatu dezala, eta bazkideak edo langileak baditu, hobe, lana sortzea da–eta komeni dena, eta orain, inoiz baino gehiago.

**Zer behar da ekintzaile izateko?**

Ez dakit, zaila da erantzuten. Ezinegona behar da, eta gero, burua kantsatzea. Izan ere, ez dut uste ideiak bat-batean datozenik. Normalean, lanak ekartzen du ideia, eta nik uste dut arlo guztietan izango dela hori; abesti bat idazten denean, ez da momentuan etorriko, burua kantsatu beharko du musikariak; edo idazle batek, gauza bera. Lana, sakrifizioa behar da; hori, eta norberak egiten duena ondo egin nahi izatea. Espiritu hori behar da, bai: gauzak ondo egiteko gogoa, eta sakrifizio pixka bat ere bai.

**"Ekintzaile izateko, ezinegona behar da, eta gero, burua nekatzea"**

**Lanbide Heziketa azokan kontatu duzu zure esperientzia. Nola ikusten duzu zuk Lanbide Heziketa?**

Ikasketa horiek bukatu nituela 15 urte dira, eta ez dakit orain zelan dagoen. Baina gure kasuan, oso ikasketa interesgarriak izan dira. Lanerako prestakuntza eta ohitura batzuk ematen ditu. Azkenean, norberak bere ofizioa lanean garatzen du, eta pauso bat da Lanbide Heziketa egitea; baina, benetan, lanean ikasten da lan egiten. Hortaz, bi pauso daude: ikasketa mundutik lan mundura da bat, eta beste bat, langile izatetik norbere kontura lan egitera.

**Garrantzitsua izango da gero hezten jarraitzea, ezta?**

Bai; etengabeko hobekuntza behar da. Inork ez dakigu dena, eta ikasten bukatutakoan, Lanbide Heziketa, unibertsitateko ikasketak edo dena delakoa, ikasten jarraitu behar da, egunero-egunero norbera hobetzen. Hori oso garrantzitsua da.




joan den eguenean. | LEIRE KORTABARRIA

Ikasleei ez ezik, beste guztioi ere zabalik izan da azoka eta, halaber, zabalik dago Lanbide Heziketan matrikulatzeko aukera. Krisiaren eraginez, lanik gabe daudenak eta, lanean egonda, prestatzen jarraitu nahi dutenak edo lanpostu hobea lortu nahi dutenak ere erakarri nahi ditu Lanbide Heziketak.

**Goi zikloa egitera animatu**

Debagoienean Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten zazpi zentroen artean, 11 familia profesionaletako 25 titulu ematen dituzte, eta horietatik sei zentro batek baino gehiagok eskaintzen ditu. Denetarik ikasteko aukera dago, beraz, eta arlo horietako batzuk gertutik ezagutzeko aukera izan zuten bisitariek.

Gauza bitxiak erakutsi dituzte Kulturateko klaustroan. Hala, Bergarako Miguel Altuna Institutuak ikasleek egindako hiru proiektu erakutsi ditu: Erdi mailako ikasleek egindako arto-birrintzailea, ikasle batek bakarrik egindako eguzki-bilatzailea –leku jakin baten eguzkiak gehien nondik jotzen duen topatzen du, gero horren arabera eguzki plakak ipintzeko– eta Goi zikloko bi ikaslek egindako etxe inteligente baten maketa –aipatzekoa da, gainera, ikasle biak emakumeak direla; Lanbide Heziketan ere berdintasuna gero eta handiagoa da.

Miguel Altunako irakasle Jesus Mari Madinabeitiak jendea animatu zuen, Goi mailako zikloak egitera: "Horiek ikasi dituztenek Erdi mailakoak egin dituztenek baino errazago topatzen dute lana. Azkenaldian, Erdi zikloak egin zituzten eta gero, sarbide-kurtso baten bidez Goi zikloak egiten dabiltzan ikasle asko ditugu".

MUko Eskola Politeknikoko Heziketa Zikloen erakusmahaian 80ko hamarkadako ordenagailuek deitzen zuten arreta. "Informatikari batek egiten duen lana erakustea oso zaila denez, ordenagailuaren historia ekarri dugu. Tramankulu hauek oraindik badabiltza", esan zuen koordinatzaileak, Gorka Aretxagak, eta gaineratu zuen "ikaslearen jakin-mina piztu" gura zutela. Informatika, mekanika eta elektronika kubritzen zituen euren mahaiak.

**Ingeniariek ere bai**

Oñatiko Zuazola-Larrañaren postuan zeuden bi irakasle, Lander Labajo eta Unai Muñoz, bi motatako ikasketak aurkezten: batetik, mekanizatuak, eta bestetik, kirol arloko jarduerak. Hauxe esan ziguten: "Azokara datozen ikasleak oso gazteak dira oraindik, eta gure helburua izan da aukera desberdinak daudela erakustea, ea grina pizten zaien". Eta Lanbide Heziketaren eskaintza denetariko jendeari zabaltzeko aprobetxatu zuten: "Gure ikasleen artean ingeniariak-eta ere egon izan dira; Lanbide Heziketaren bidez, makinak zelan erabili, haietan eskua sartzen ikasi dute".

**DATUA**

**%10**

IKASLE GEHIAGO

Euskadin, 40.000 bat ikasle ditu orain Lanbide Heziketak, joan den ikasturtean baino %10 gehiago.




L.K.

**ETXE INTELIGENTEA** Miguel Altunako Esther Diaz eta Maite Cot ikasleen proiektuak etorkizuneko etxebizitza bat irudikatzen zuen: segurtasun-alarmak zituen, ur-jarioak detektatzeko eta mozteko sentsoreak... MUk ere halako bat erakutsi zuen.



L.K.

**BIO-ERAIKUNTZA** Etorkizun handia dute ingurumenarekin eta ongizatearekin lotutako jarduerek. Argazkian, Arizmendiko Aitor Axpe, kamera termografikoa erakusten. Eremu elektromagnetikoak, mugikorraren uhinak... neurtzeko gailuak ere bazeuzkaten.



L.K.

**MEKANIZATUAK ETA KIROLA** Lanbide Heziketan "askotariko aukerak" daudela erakutsi nahi izan zuten Zuazola-Larrañako Landerrek eta Unaik. Mekanizatuetan eta mantenuan eta, bestetik, kirol ekintzetan irakasten dutena erakutsi zuten.




MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak
Apirilak 25, 18:00
Maiatzak 26, 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
MGEP
• Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
•Automatizazioa eta Robotika Industriala
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
•Mekatronika Industriala
www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

# Estalkiak kendu eta egia azaleratzea beharrezkoa dela aldarrikatu dute Intxortan

Elgetan kokatutako frontea orain dela 75 urte jausi zela oroitzeko ekitaldia egin zuten atzo

**IRATI GOITIA** | ELGETA

"Intxorta eta Elgeta inguruan gorriz bustitako zelai lurrak, ez dituzte gure malkoek garbituko, baina gogor eta tinko jarraituko dugu zuen memoriaren zaindari". Hitz horiexek esan zituen atzo Intxortako frontea jausi zeneko 75. urteurreneko omenaldian, gerrako kaltetuen senitarteko batek, Ainara Totorikabuenak.

Izan ere, martitzenean beteko dira 75 urte tropa frankistak eta haien aliatuak Elgetara sartu zirela, izugarrizko sarraskia eraginez, eta gertaturikoa ez ahazteko helburuarekin, omenaldi ekitaldia egin zuten atzo Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Kultura Elkarteak antolatuta. Ekitaldi jendetsua izan zen. Bertan izan ziren, nola ez, orduko gudarien eta hildako zibilen senideak eta baita elkarte eta erakundeetako ordezkariak ere, besteak beste: Oxel Erostaber Elgetako alkatea, Idoia Mendia Justizia Sailburua, Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusia, Markel Olano, Aintzane Ezenarro, Pako Etxeberria, Debagoieneko hainbat alkate eta baita Elorriokoa ere.



Patxi Basauri zinegotzia gudari eta milizianoak oroitzen dituen plaka berria bistaratzen. | JOSETXO ARANTZABAL

### Memoria berreskuratzea

Intxortako Atean egin zuten ekitaldian, memoria historikoa berreskuratzea ezinbestekoa dela argi adierazi zuten guztiek. "Gure herriak jasan zuen genozidioaren benetako dimentsioa behin eta berriz ezeztatu da. Oraindik argitu gabe daude indar frankistek herritar zibilen aurka egindako gehiegikeriak. Horregatik denon artean faxismoaren biktima guztiei aurpegia eta izena jartzea dugu helburu. 12.300 izen ditugu eta 850 aurpegi. Lagundu iezaguzu isilean gordetako historia osatzen" eskatu zuen Julia Monje Intxorta 1937 Kultura Elkarteko kideak.

Memoria osatzeko laguntzaz gain, kalte-ordainak ere eskatu zituzten. "75 urteren ostean, ez du inork egindakoagatik barkamenik eskatu. Gertatutakoaren egia ezagutzea, genozidio hura egin zutenak justizia aurrera eramatea eta erakunde publikoek kalte-ordainak ezartzea izango litzateke gudariendako eta euren senitartekoendako omenaldirik onena" adierazi zuen Oxel Erostarbek.

Idoia Mendiak, ildo beretik, gertaturikoa zehaztasun historikoarekin oroitzeko erronka dugula esan zuen eta gaineratu: "Ez da lan erraza. Falta direnen minak, sufrimenduak eta saminak oraindik ere toki handia baitaukate gure etxeetan, baina saiatzeak merezi duela uste dut".

Martin Garitanok, bestalde, denon artean, ezer ahaztu gabe, Intxortako frontea demokraziaren, askatasunaren eta bakearen frontea bilakatuko dugula zehaztu zuen.

### Plaka berria

Intxortako Atean, gudari eta milizianoen balentria oroitarazteko dagoen plaka apurtuta egon da denbora luzez eta atzo berria inauguratu zuten.

### Lore eskaintza

Behin ekitaldia amaitu ostean, Salbador ermitara egin zuten ibilaldia. Bertan, fusilatuak oroitzen dituen monumentuan aurreskua dantzatu zuten eta lore eskaintza egin. Ondoren, Elgetara jaitsi ziren Andoaingo Banda Errepublikarraren laguntzarekin. Omenaldiari amaiera emateko bazkaria izan zuten Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.


'Errepublikako kartelak' erakusketa ikusten. | JOSETXO ARANTZABAL

## 36ko gerra iragarki kartelen ikuspegitik

Bigarren errepublikaren 81. urteurrenaren harira, garai hartako propaganda kartelekin erakusketa antolatu dute Ezker Anitzak eta FIM-k (*Fundacion de Investigaciones Marxistas*), Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin. Kartelek garai hartako gertakizunak islatzen dituzte eta baita 36ko gerra ere. Egubakoitzean ireki zuten erakusketa eta apirilaren 29ra arte izango da kartelak ikusteko aukera.



**AINARA TOTORIKABUENA**
SENIDEA

"Nire izeba eta bere gurasoak izan ziren kaltetuak. Gaurkoa egun gogorra da, barrenak mugitzen dizkigu–eta. Baina aldi berean, polita ere bada, ikusten dugulako gertatukoa ez dela ahazten eta jendea honen alde lanean dabilela".



**ANA OTADUI**
SENIDEA

"Nire amonaren aita preso eraman zuten Burgosera eta handik hilda zegoen abisua eman ziguten. Aginduta nuen bere argazkia ekarriko nuela *Izen guztiak, aurpegi guztiak* proiekturako eta gaur ekarri dut".



**ELENA ETA RUFINA ARANTZETA**
SENIDEA

"Gure aita bonbardaketan hil zen eta bere anaia lau egunetara mairuek hil zuten. Etxea ere suntsitu ziguten. Gure ama lau umerekin gelditu zen. Bizi guztia eman zuen triste, ez zuen sekula barrerik egiten. Guk ere asko sufritu genuen. Gaur gure etxe aurrean banda jotzen ikusi dugunean, ikarak eman digu. Gainditutа dugun arren, tristea izan da. Gertaturikoa ez dugu inoiz ahaztuko eta gaurkoa bezalako omenaldiak beharrezkoak dira hura gogora ekartzeko".

## Telefono bidezko arreta eskainiko du Osakidetzak

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Eguneko 24 ordutan martxan egongo da telefono bidezko arreta zerbitzua eta bertan ohikoenak diren zalantzak kontsultatu ahako dira. Interneten ere aplikazio bat ipini dute zerbitzua emateko.

Hala, 943 20 30 20 edo 902 20 30 20 telefono-zenbakietara deituz gero, sistema automatikoak hartuko du deia, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 ordutan. Sistema berria den aldetik, lehenengo deietan lasaitasuna eta pazientzia izatea eskatu dute Osakidetzatik. Telefonoz mediku, pediatra edo erizainarekin hitzordua eskatu dezake herritarrak, edota operadorearekin kontaktuan jarri larrialdi edo etxerako abisua eskatzeko, hitzordu aldaketak eta tankerako kontsultak.

Interneteko aplikazio berriaren bitartez, aurrez aurreko hitzordua edo telefono bidezkoa aukera dezake. Gainera, sistemak oroigarri bat bidaliko du, e-postaz, kode batekin, hitzordua web orrialdetik kudeatzeko.

## Lanera joateko bizikleta sustatuko du Aldundiak

**J.B.** | ARRASATE

Erakunde publikoen asmoak bestelakoak izanda ere, bidegorriak nagusiki aisialdirako erabiltzen dira Debagoienean. Aldundiak azterketaren emaitzak kaleratu berri ditu eta Gipuzkoan ere berdin gertatzen da: bidegorrien erabileraren %75 oinezkoek egiten dute. Aldundiak, ostera, nahi du bidegorriak eguneroko mugikortasunerako bideak izatea, dela lanera iristeko, dela ikastetxera joateko ala ohiko garraioa ordezkatuko duen beste edozein mugikortasun behar betetzeko. Horretarako, aurki plana aurkeztuko dute. Aldundiak berak emaniko datuen arabera, gurean, Mekolalde eta Soraluze artean egunean 600 joan -etorri egiten dira, baina paseatzen; Aretxabaleta eta Eskoriatza artean bostehun bat dira joan-etorriak, nagusiki aisialdikoak, Antzuola eta Bergarako zatian bezala. Hain zuzen, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko zatia Aldundiaren proiektu baten sartu dute lanerako joan-etorrietarako bizikleta sustatzeko.

# Jesus Mari Ugalde bergararra izendatu dute Jakiundeko presidente

▶ Pedro Migel Etxenike fisikaria ordezkatuko du bergararrak ardura horretan

▶ Ugalde kimika-fisikako katedraduna da, EHUko irakaslea eta 20 saiakera plazaratu ditu

I.GOITIA / E.AZKARATE | ARRASATE

Donostiako Miramar Jauregian egin zuen egubakoitzean Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademiak Ohiko Osoko Bilkura. Bertan Presidentetza eta Mahaia (akademiaren organo betearazlea) berritzeko bozketa egin zuten; 12 Kide Oso ere izendatu zituzten.

**Jesus Mari Ugalde presidente**

Jesus Mari Ugalde katedradun bergararra aukeratu zuten Jakiundeko presidente. Hala, Pedro Migel Etxenike ordezkatuko du karguan.

Ugaldek kideek erakutsi dioten konfiantza eskertu zuen eta akademiaren presidentzia "ohore handiz" eta "ardura osoz" bere gain hartzen duela azaldu. Gaineratu zuen diziplina anitzeko pentsamenduaren foro hau indartzeko kide guztien laguntza izatea espero duela.

Datozen lau urteetarako ardatzak ere finkatu zituen: Jakiunde maila goreneko aholkularitza entitate gisa ezagutua izatea beharrezkoa dela esan zuen eta akademia gizarteratzearen garrantzia azpimarratu.

Martxan dauden ekimenei dagokienez, *Topaketak* eta *Jakinmina* proiektuei jarraikortasuna emateko apustua egin zuen, Jakiundeko biblioteka eta bideoteka zabaltzen jarraitzekoa eta Batzar Orokorrean ezarritako bestelako lan ildoak sustatzekoa.

**Etxenikek lorpen handiak**

Bestalde, agintaldia amaitu duen Etxenikek Jakiundeko kide askoren lan eskuzabala nabarmendu zuen ekitaldian eta eskerrak eman zituen.

Karguan egon den denboran, akademiaren antolaketa juridiko-instituzionala finkatu du, aurrekontu egonkortasuna lortu, egoitza propioa izatea ahalbidetu, eta aholkularitza, formazio eta zabaltze programa desberdinak martxan jarri ditu.

**Mahaiaren berritzea**

Egubakoitzeko bilkuran, Zuzendaritzako beste kargu hauek ere erabaki zituzten: presidente orde bezala, Jabier Etxeberria eta Jabier Tejada. Mahaiko kide izan dira aukeratuak: Jose Maria Asua, Jose Luis De la Cuesta, Jabier Etxeberria, Gurutz Jauregi eta Jabier Tejada.

Aukeratu diren 12 Kide Osoak honakoak izan dira: Andres Arizkorreta, Maria Isabel Arriortua, Agustin Azkarate, Jose Manuen Castells, Enrike Etxeburua, Juan Pablo Fusi, Maria Sonia Gaztanbide, Joakin Gorrotxategi, Jose Guimon, Felix Marti, Juan Ignazio Perez eta Juan Jose Zarranz.



Pedro Migel Etxenike eta Jesus Mari Ugalde, Jakiundeko orain arteko presidentea eta berria . | ARGAZKILARIAXXX

### Bergaran izango du egoitza Jakiundek

Aurtengo urtetik aurrera, Jakiundek egoitza propioa izango du Bergaran, Olaso eta Rezabal dorretxeetan; bertan, akademiak antolatutako bilkurak eta bestelako ekitaldiak egingo dituzte.

Hain zuzen, 2011ko azaroan Bergarako Osoko Bilkuren aretoan egin zuen akademiak bere bilkura eta bertan izan ziren jakintsuak. Orduan, Etxenikek adierazi zuen Jakiunde instituzioak urrats garrantzitsua eman zuela Bergaran bere egoitza ezartzean, eta Bergarak iraganean hezkuntzan izandako garrantzia ekarri zuen gogora.

Bost dira jakintsu debagoiendarrak: Jesus Mari Ugalde, Mari Karmen Gallastegi eta Jabier Retegi bergararrak, Itziar Astiazaran aretxabaletarra eta Jon Markaide elgetarra.

## LKS Taldearen "izaera berritzailea" eta "eskulan kualifikatua sortzeko gaitasuna" saritu ditu Bazkundeak

I.G. | ARRASATE

Gipuzkoako Bazkundeak Arrasateko LKS Taldea saritu du. Zehazki, zerbitzu enpresa onenaren saria eman diote Gipuzkoako Bazkundearen urteroko hitzorduan, Donostian. Aitortza hori egiterako orduan LKS Taldearen ezaugarri hauek nabarmendu dituzte: "Kalitate eta eskulan kualifikatu maila handiko lanpostuak sortzen dituela eta izaera berritzailea duela". Fermin Garmendiak eta Alberto Gorroñogoitiak, LKSko bi negozio ereduen zuzendariek, jaso zuten saria.

**Izan ziren saritu gehiago**

LKSk jaso zuen sariaz gain, beste lau ere banatu zituen Bazkundeak, Gipuzkoako enpresak saritzeko egiten duen urteroko hitzorduan: enpresa txiki eta ertain industrial onenaren saria Credeblugek jaso zuen; nazioartera zabaltzeko egindako ahalegina Arcorta Forging Grouperi aitortu zioten; Kutxaren ibilbideak ere jaso zuen saria eta urteroko enpresaburu onenaren izendapena Eduardo Junkerak eta Alfonso Urtzainkik jaso zuten –biak Egile Corporation XXIeko kideak–.

## Maiatzaren seian egingo dute Arantxen zazpigarren topaketa, Arantzazun

Lehendabizikoz 1956. urtean elkartu ziren Arantxak, fraideen ekimenez

I.G. | OÑATI

Arantxen eguna ospatuko dute maiatzaren seian Arantzazun. Bi urtean behin antolatzen duten topaketa da eta azken bietan hirurehun bat Arantza, Arantxa eta Arantzazu bildu ziren.

**Egun osoko egitaraua**

Goizean, 10:30ean, elkartuko dira Gandiaga Topagunean Arantxak. Bertan, Arantzazuko historiari buruzko ikus-entzunezko bat ikusiko dute. Ondoren, 12:00etan, meza nagusira joango dira. Bertatik irten ostean, talde argazkia aterako dute ohiturari jarraiki, eta gero bazkaltzera joango dira. Trikitilari eta guzti izango dute giroa alaitzeko. Hain zuzen, antolakuntza lanetan dabilen Arantxa Egoskozabal oñatiarrak adierazi digu: "Helburua ondo pasatzea da; baita Arantzazu ezagutzen ez duten Arantxei Santutegia erakustea ere, izan ere, asko bailarakoak izaten garen arren, urrutitik ere etortzen dira".

Gaur da bazkarirako izena emateko azken eguna. Interesatuek Euskadiko Kutxan 35 euro sartu behar dituzte.

**Historia luzeko topaketak**

Aurtengoa zazpigarren topaketa da. 1956an egin zen lehena, Arantzazuko eraikin berria inauguratu zen urtean. Aita Fermin Altube eta Jose Agustin Elostondo izan ziren antolatzaileak, beste fraide batzuen laguntzarekin.

40 urte pasa behar izan ziren bigarren topaketa antolatzeko, 1996an. 2.000 Arantxa elkartu ziren urte horretan. Emakumeak gustura gelditu ziren eta bazkarian bertan erabaki zuten bost urtean behin elkartzea. Baina 2005ean bi urtean behin egitea erabaki zuten.

# Aldundiak asteon jardungo du gizarte eragileekin diru-laguntza berriaz

▸ 600 eta 900 euro arteko laguntza sortzeko asmoa du Diputazioak

▸ Sei hilabete erroldatuta daroatenek jaso ahal izango dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gizarte Politikako foru diputatuak, Ander Rodriguezek, Batzar Nagusietan azalduko ditu Foru Aldundiak iragarri duen diru-laguntza berriaren nondik norakoak. Bestalde, oraingo astean hasiko da foru sail hori Gipuzkoako gizarte arloko talde sozialekin eta profesionalekin batzartzen.

Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza da Foru Aldundiak eguaztenean iragarri zuen gizarte laguntza berria, dekretu bidez sortuko dena. Rodriguezek batzarkide taldeei jakinaraziko dizkie proiektu horren buruzko xehetasun guztiak: besteak beste, zenbat onuradun espero dituzten eta hileko zenbateko diru-laguntzak izango diren; halaber, argituko du Foru Aldundia zergatik dagoen behartuta Gipuzkoako araudia berriz ezartzera, Eusko Jaurlaritzaren gizarte arloko murrizketak indarrean jarri aurretik.

Diru-laguntza berriaren gaineko datu batzuk aurreratu zituzten eguaztenean Ander Rodriguezek eta ahaldun nagusiak, Martin Garitanok. Gipuzkoako herritarren "bizitza baldintzak hobetzeko" eta Eusko Jaurlaritzak aplikatutako murrizketa sozialek eragindako "huts larria" betetzeko helburuarekin sortuko dela esan zuten. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI, espainolez) jasotzeko epea urte batetik hirura handitzeagatik, Gizarte Politikako Departamentuaren aurreikuspenen arabera, Gipuzkoan 600 lagun inguru geratuko dira prestazio ekonomikorik gabe.

> ESANAK
>
> **"Ezin gara ezer egiteke gelditu pobrezia hazten ari denean"**
>
> MARTIN GARITANO
> AHALDUN NAGUSIA

**Denondako baldintza berak**

Dekretu berriaren bitartez orain arte izan diren bi laguntza kenduko dira eta Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza jarriko da, denondako baldintza batzuk ezartzen dituena; tartean, erroldatzearen gutxieneko aldia sei hilabetekoa izatea.

Prestazioa 600 eta 900 euro artekoa izango da hilean, familia unitatearen arabera; beraz, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 80 eta %120 artekoa.

Aldundiak bere aurrekontuak erabiliko ditu laguntza berria ordaintzeko. Gizarte Politikako Departamentuaren aurreikuspenen arabera, 1,4 milioi euro inbertitu behar dira aurten, 5 milioi euro 2013. urtean, eta 8,3 milioi euro 2014an.

**"Ez daude enpleguari lotuta"**

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak, Gemma Zabaletak, Eusko Jaurlaritzaren iritzia adierazi du. Hain zuzen, esan du Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza "Foru Aldundiak lehendik ezarrita zeukan diru-laguntza" bat dela; izan ere, Foru Aldundiaren 29/2009 Foru Dekretuak laguntzak aurreikusten ditu DBE jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztenentzat. Bestalde, laguntza berriari eragozpen handi bat ikusten dio Sailak: "Gure ustez, oker handia da gizarte-prestazioak ez egotea enplegu zerbitzuei lotuta".

> DATUA
>
> **1,4**
> MILIOI EURO
>
> Foru Aldundiak bere aurrekontuko 1,4 milioi ipiniko ditu laguntzotarako.



Bergarako Larramendi industrialdea ia hutsik dago. | ARRITXU BARRUSO

# Embalan, Larramendi industrialdeko bakarra

Bilgarri handiak egiten ditu Embalanek, eta ondo doa; horregatik instalatu ahal izan da poligono hartan

ARRITXU BARRUSO/L.K. | BERGARA

Krisi ekonomikoaren eta gure ibarreko enpresek bizi duten egoera zaila oso ondo islatzen duen irudia topatu dugu Bergaran, Larramendi industrialdean, hain justu ere. 2010eko udazkenean inauguratu zuten, 300.000 metro koadro ditu eta Debagoieneko industrialde handiena eta Euskadiko handienetarikoa da. Industria Sailaren SPRI enpresa publikoak egin zuen. Bada, momentuz, enpresa bakarra kokatu da bertan: Embalan, tamaina handiko enbalajeak edo bilgarriak egiten dituen enpresa bergararra. Urtarrilean hasi ziren han lanean eta momentuz ez dute bizilagunik ondoan.

Embalaneko ugazaba Andoni Alberdik Arritxu Barruso kazetariari esan dio "gustura" daudela instalazio berrietan, baina "pena" dela poligonoko bakarrak izatea. "Ea berpizten doan ekonomia, beste enpresa batzuk animatzen diren eta poligono honi irtenbidea ematen zaion".

**Krisia bukatzen denerako**

Embalanek momentuz bakarrik jarraituko duela dirudi, izan ere, SPRIk ez du han instalatzeko beste eskaerarik jaso. Baina Bergarako Udala pozik dago industrialdea egin izanarekin: alkateak dio lursailak birkalifikatuta eta gertu izatea oso garrantzitsua izango dela krisia bukatzen denerako.

Embalan ondo doa. Hala ere, "krisiak denoi eragiten" diela onartzen du Alberdik: "Ingurukoa ondo ez dabilenean, gu ere ukitzen gaitu; hala, kobratzeko arazoak edo beste modu batera lan egin beharra egon daiteke". Enpresaburu horren esanetan, Embalanendako "apustu handia" izan da Larramendin ezartzea.

**Industria eta komertzioa**

Industrialde horrek 303.179 m2 ditu, eta 130.317 m2-tan eraiki daiteke. Industriarako 4.590 eta 34.725 m² bitarteko azalera du, eta komertziorako, 255 eta 300 m2 artekoa.




Andoni Alberdi, Embalaneko ugazaba. | ARRITXU BARRUSO

## Mundu osora bidaltzen dute

Embalanek esportatu egiten du, batez ere. Oso bilgarri edo enbalaje handiak egiten ditu. Andoni Alberdi ugazabak azaltzen digu: "Bezeroaren makineria edo pieza hark nahi duen munduko lekura bidaltzen dugu, behar den moduan bilduta eta etiketatuta. Piezak gero eta handiagoak eta pisutsuagoak dira, eta horrek lana eman digu azken urteotan". Larramendin, bi garabi-zubi ipini ditu Embalanek, bat 80 tonakoa eta bestea 25 tonakoa.

# Euskadiko Kutxak kapitala handitzea erabaki du

J.B. | ARRASATE

Euskadiko Kutxak kapitala handituko du, zapatuan Donostiako Kursaal jauregian egindako Batzar Nagusian onartu zenez. Kapital handitze hori 165 milioi eurokoa izango da eta etorkizunean eman daitezkeen kapitalizazio eskaera handietarako prestatuta egotea du helburu. Hau da, zapatuko ekitaldian Txomin Garcia presidenteak adierazi zuenez, Euskadiko Kutxak ez du egun handitze horren ezinbesteko premiarik eta ez dauka zerikusirik Ipar Kutxaren integrazioarekin. Beraz, etorkizunerako aurreikusten dituzten kapital eskaera altuagoei aurre egiteko gertu egotea gura da handitzearekin.

**Gaur jarriko da martxan**

Kapitalaren handitzea gaur bertan jarriko da martxan. Bazkide zein kolaboratzaileei –kapitala izaten jarraitu gura duten erretiratuak– eta Euskadiko Kutxari lotuta dauden beste kooperatibei dago zuzenduta kapitalaren handitzea.

Gainera, zapatuko batzarrean ez zen mahai gainean jarri Euskadiko Kutxa aztertzen dabilen beste neurri bat: etorkizunean kutxaren bezeroek ere kapitala eskuratzeko aukera izatea. Hori bai, kutxako iturrien arabera, kapitala bezeroei ere zabaltzea onartzea Batzar Nagusiari dagokio.

**Victor Herrero** | Historian lizentziaduna

# "Formazio militar bako gizonezkoekin osatzen zuten gerrara joateko milizia urbanoa"

- Victor Herrero historialariak hitzaldia egingo du maiatzaren 2an Arrasaten, Kulturaten
- Arrasatek Nafarroaren konkistan izan zuen parte-hartzeaz jardungo du

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Victor Herrero (Donostia, 1961) Historian lizentziaduna da eta gaur egun eskolak ematen ditu Bergaran, Uneden. Herrerok *La participación de la Villa de Arrasate en la conquista de Navarra* delako hitzaldia egingo du maiatzaren 2an. Harekin berba egin dugu hitzaldian kontatuko duenaren aurrerapena egiteko.

**Nolatan halako hitzaldia?**

Iaz, Nabarraldek antolatuta, Nafarroaren Konkistaren gaineko II. kongresua egin zuten Oñatin. Orduan, Iraurgi bailarako Azkoitiak eta Azpeitiak Nafarroako konkistan izan zuten parte-hartzeaz egin nuen berba. Hitzaldiaren bukaeran pertsona batek galdetu zidan ea zer-nolako parte-hartzea izan zuen Arrasatek, eta berba egiten hasi ginen.

Oraingo honetan, Arrasateko hitzaldi ziklora gonbidatu naute. Maiatzaren 2an izango da berbaldia, 19:00etan, Kulturaten.

**Bada, nolako parte-hartzea izan zuen Arrasatek Nafarroaren konkistan?**

Parte-hartze inportantea izan zuen. Garai hartan udalek zuten betebeharretako bat militarra zen. Egun baditugu orduko betebeharrei erreferentzia egiten dieten ekintzak; besteak beste, Hondarribiko eta Irungo alardeak.

Hori horrela, Arrasatek milizia urbanoa zuen. Udalak zuen soldaduak antolatzeko ardura. Milizia urbanoa antolatzeak eta haiendako hornidurak gastu batzuk zituen, eta horiek jasota geratzen ziren udaletxeko gastuen liburuan. Gastu haiek aintzat hartuta dakigu zenbaterainoko parte-hartzea izan zuen Arrasatek.

**Noiztik norako liburuak begiratu dituzu?**

Arrasateko artxiboan 1500. urtea ezkero daude gordeta. Ordutik 1524ra Udalean egindako mugimendu guztiak daude jasota: gastuak eta sarrerak.

**Nola antolatzen ziren orduko milizia urbanoak?**

Gaztelako monarkia hartu-emanetan ipintzen zen Gipuzkoako lurraldearekin. Gaur egungo Batzar Nagusien pareko erakundea zen. Monarkiaren ordezkari zen Gipuzkoako korrejidoreak ekintza militar bat egiteko gizonezkoak eskatzen zituen. Gehienez ere, 3.000 pertsona eskatu zituzten Gipuzkoa osorako.

Ondoren, udal bakoitzak erabakitzen zuen zenbat pertsona bidali behar zituen ekintza militarrera.


Victor Herrero, unibertsitateko artxiboan. | VICTOR HERRERO

Arrasateko datuak ikusita, gehienez ere, 130 gizonezko bidali zituen. Baina zifra inportantea da, kontuan hartuta, batez beste, 4.000-4.500 biztanle zituztela Gipuzkoako herriek.

**Bat-batean horrenbeste gizonezko gerrara bidatzea kaltegarria izan zen Arrasaterendako?**

Bai, baina ez bakarrik Arrasaterendako, baita Gipuzkoa osoarendako ere. Gizonezko helduak ziren, gehienek lan egiten zuten: joskinak, okinak, igeltseroak, arotzak, iturginak... Langile xumeak ziren, formazio militar bakoak. Gerrara joaten zirenean euren lanbidea eta familia utzi egiten zuten, eta ondorioak ekartzen zituen.

> "Lanbide xumea zutenak hartzen zituzten: arotzak, joskinak, okinak..."

> "10-12ko taldeetan banatzen ziren, eta kaboak zuzentzen zuen taldea"

Familiaren batean, aitak ezin zuenean milizia urbanoko kide izan, semeak parte hartu behar zuen, derrigorrez.

**Hortaz, derrigorrezkoa zen milizia urbanoko kide izatea?**

Bai. Udalak egiten zuen aukeraketa. Batzar Nagusiek kopurua zehazten zutenean, herri bakoitzak egiten zuen ekarpen fiskalaren arabera zehazten ziren herri bakoitzeko pertsonak. Familia bakoitzaren araberako ekarpena zen, eta Arrasatek 138ko kopurua zuen.

Behin hori zehaztuta, etxerik etxe eta baserririk baserri gizonezko bila joaten ziren udal arduradunak milizia urbanoa osatzeko.

**Baina pertsona haiek ez zuten formazio militarrik.**

Bai, hala da. Orduko erregistroak begiratuta, izen-abizenen alboan lanbidea agertzen da. Banaka batzuk daude soldadu moduan identifikatuta.

**Orduan, nola moldatzen ziren gerran?**

Formazio bakoak izan arren, dokumentuek garbi erakusten dute bazekitela armada antolatzen.

Milizia urbanoaren buru kapitaina zen. Kapitaina Udal Gobernuko kidea eta ordezkaria zen. Harekin batera alfereza zegoen eta haien azpitik kaboak. Soldaduak 10-12ko taldeetan banatzen ziren, eta kaboak zuen taldearen ardura.

Guztien aurretik Arrasateko bandera zeraman pertsona bat zihoan, eta haien ondoan danborra jotzen zuen beste pertsona bat. Danbor-doinuen bidez, kapitainak emandako aginduak aditzera ematen zituen.

Horrek guztiorrek erakusten du formazio militarrik ez eduki arren ondo antolatzen zirela.

**Gerrak hildako asko eragin zituen?**

Duda barik, bai. Baina Arrasateri dagokionez ez dago hildakoen erreferentziarik. Azkoitiko eta Azpeitiko dokumentuetan badago hildakoen erregistroa, baina Arrasaten ez. Horrek ez zu esan nahi benetan ez zela hildakorik egon, baina oso gutxi izango ziren.

**Zenbat denbora egoten ziren gerran?**

Batez beste, hilabeteko gerrak izaten ziren, baina 23 eguneko liskarren dokumentuak daude, eta baita hiru hilabetekoak ere.

Beharren araberako denbora izaten zen. Kontuan hartu behar da gerran zeuden bitartean kobratu egiten zutela. Ez ziren doan joaten, eta horrek, noski, kostu bat zuen.

**Nortzuk gonbidatuko zenituzke hitzaldira?**

Arrasateren iraganaren gainean jakin-mina dutenak, Nafarroaren konkistaren garaian Arrasaten zer gertatu zen jakin gura dutenak, Nafarroarekin hartu-emana dutenak...

## ZABALIK



**MANU ARREGI**
http://goiena.net/iritzia/

# Zaborren gerra

Errekak zikin dauzkagu, baina hori onargarria dela dirudi. Egunkariak itxi dira hemen, baina, hasierako protesten ostean, isildu gara. Erabaki politikoak direla medio jendea dugu kartzelan, baina hori ez omen da gure arazoa. Baina, hara non, izugarrizko mobida sortzen den atez atekoaren harira. Lasai-lasai zaude plazan zerbezatxo bat hartzen eta atez atekoaren kontrako firma bilketa jartzen dizuete muturren aurrean. Normala al da hau? Betikoa. Norberaren hanka zapaltzen dutenean mugitzen dugu ipurdia. Hainbesterako dela uste duzue?

Giroa berotzen joan da eta hil edo biziko gaia dirudi honek. Nahi eta nahi ez irabazi beharreko lehia. Dezepzionatuta nago, honen harira, Bildurekin. Herritar asko dago atez ateko sistemaren aurka eta hori ukaezina da. Aurretik herri kontsulten alde azaldu ondoren, kasu honetan ez dela tokatzen esan du Bilduk. Atez atekoa herriaren onurarako dela, hauteskunde programan zegoenez, onartutzat hartzen dutela… Argudiorik gabe gelditzen dira hurrengo batean beste edozein gairen inguruko herri kontsulta eskatzeko. Berdin-berdina argudiatu ahal du EAJk AHTren inguruan, adibidez.

**"Giroa berotzen joan da eta hil edo biziko gaia dirudi honek"**

Nor bere posturan atrintxeratuta ez dago aurrera egiterik. Akordio batera iritsi beharko lukete alde biek, posible balitz. Bestela, hezkuntza sisteman gertatzen den bezala, hurrengoa datorrenean bere gustukoa ezarriko du, aurrekoena bertan behera utziz.

Soluziorik egokiena erdibidean dagoela uste dut. Ez naiz bosgarren edukiontziaren aldekoa. Baina ez dut ulertzen sistema berriak zergatik dakarren beste edukiontzien amaiera. Konpatibleak dira. Atez ateko sistemarekin orain arte birziklatzen ez diren hondakinak birziklatuko nituzke. Paperezkoak, kristalezkoak eta plastikozkoak, berriz, betiko edukiontzien bidez. Sistema erosoagoa izango litzateke herritarrentzat. Eta zero zabor filosofiarekin bat dator. Nire ustez.

## USTEAK USTE

**ENEKO AZKARATE** | eazkarate@goiena.com

# Gezurra badirudi ere....

Espainiako Ingurumen Ministerioak (PP) eredugarritzat jo du Usurbilgo atez atekoa. Praktika on moduan nabarmendu du. Madrilen, PSOE, errauskailuaren aurka eta atez atekoaren alde agertu da. Eta Kataluniako hondakinen agentziako zuzendariak, CIUren gobernukoak, animatu zituen usurbildarrak atez atekoarekin hastera. Adibideak besterik ez dira. Beste asko, alderdi ezberdinetakoak tartean direla, ere aipa genitzake (herri kontsultak...), baina gurean gori-gori dagoen gai batekiko politikarien inkongruentziaren erakusle garbia da. Krisi gordin honetan, gobernu eta oposizio, akordiotara heltzeko gauza izango balira, eskertuko genieke herritarrek. Horixe da-eta herri ordezkarien zeregina.

## KALE INKESTA

# Liburuaren Eguna da gaur. Baduzu irakurtzeko ohiturarik?



**SUSANA DE LA CONCEPCION**
ARRASATE

"Ez daukat ohitura handirik irakurtzeko. Horretarako denbora hartu behar dut eta ez dut izaten".



**ARITZ AZURMENDI**
OÑATI

"Gutxi irakurtzen dut, gehienetan klasetik behartzen digutenean. Betiko liburuak nahiago ditut elektronikoak baino".



**JULIA ROLES**
ARRASATE

"Badut ohitura, batez ere ohera sartu aurretik. Gustatzen zait irakurtzea. Liburu elektronikoak ez ditut probatu, oraingoz".



**MANUEL SANCHEZ**
ARRASATE

"Gutxitan irakurtzen dut eta irakurtzen dudana, paperean. Hala ere, irakurtzea baino irratia entzutea nahiago dut".

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Ideologiarik eza nagusi

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
http://eibar.org/blogak/amatino/

Filmak salatzen duen arlorik larriena ez da Sarkozyren izaera lotsagabea, jarrera maltzurra edo neurribako handinahia, zenbait politikariren (Sarkozy bera tarteko, jakina) ideologiarik eza baino. Eta, segurutik, are kezkagarriago, zenbait hautesle-andanaren ideologiarik eza. Eskuin zein ezker muturreko hiritarrek hautagai berberaren aldeko apostua egin izana, gizartean barrena benetako larrialdiren bat gertatzen ari denaren adierazgarri nabaria baino ez da.

Aurreko asteburuan aurkeztu zen estreinako, Espainian, *De Nicolas a Sarkozy* filma. Bidenabar, ukaezinezko egia biribil bi azpimarratu dituzte espainiar komunikabideek, alegia: Frantzian lehendakari-hauteskunde bezperetan ari direla eta Nicolas Sarkozyk ez duela nahi izan filma ikusi. Inon gutxitan irakurri ahal izan dugu, ordea, film hau, *La conquête* izenburuaz, iazko maiatzean aurkeztu zela Frantzian eta zorabio edo katramila handirik gabe gainera. Segurutik Sarkozy pailazo samarra da eta politika-giroa antzekoa. Baina zirku mediatikoan bekaturik ez duenak bota dezala lehen harria.

Filma ez da inondik ere sekulakoa baina, denbora pasatze aldera, dezente aproposa. Segurutik karikatura lartxo eta antzezpen gehiegitxo baina, batez beste, politikagintzan, alderdien baitan eta komunikabideen esparruan sarri (ez beti) gertatu ohi diren hainbat azpijanen eta azpijokoren adierazgarri bai, behintzat.

Nabarmena gero. Pelikula hasi aurreko kreditoetan jakinerazi nahi izan du zuzendariak ondoko 105 minutuetan azaltzen diren protagonisten eta gertakarien zertzeladak fikziozkoak baino ez direna. Baina, berehala, lehen sekuentziatik aurrera, datak, datuak eta jakineko izen-abizen zehatzak agertzen dira, dagozkien kargu eta karga guztiekin.

Xavier Durringer zuzendariak aitortu duenez, ekoizpen eta grabazio-lanean legelari-taldea izan dute aholkularitzat eta, jaramonik egingo badiogu, ez dute "omen", "diotenez" edo "daitekeen" pasarterik batere sartu, "jakinekotzat" jotzen direnak baizik. Orduan?

Behar bada, filmak salatzen duen arlorik larriena ez da Sarkozyren izaera lotsagabea, jarrera maltzurra edo neurribako handinahia, zenbait politikariren (Sarkozy bera tarteko, jakina) ideologiarik eza baino. Eta, segurutik, are kezkagarriago, zenbait hautesle-andanaren ideologiarik eza. Eskuin zein ezker muturreko hiritarrek hautagai berberaren aldeko apostua egin izana, gizartean barrena benetako larrialdiren bat gertatzen ari denaren adierazgarri nabaria baino ez da.

# Osasun-lapurrak

**Bixente Serrano Izko**
http://berria.info/blogak/bixente/

Bidelapur zaharrek aukera ematen zuten: "Diru-zorroa ala bizitza!".

Diru-harrapari teknikoago berriek ez eta aukerarik ere: guztion diru-zorroaz jabetu ahala, bizitza laburtu, bizitzaren zati bat lapurtu egiten digute.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko ediozio arduraduna** Julen Irio ndo
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** SS-0088/04
**ISSN:** 2173-707X
**Tirada:** 5.000 ale.
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# NAZIOARTEKO VIII. MAGIA MOSTRA

## 2012, MAIATZAK 4 - 5 eta 6

## ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

### 4 - BARIKUA

22:30 MAGIA SAIOA
Prezioa: 15 €

MagoMigue
'AluCine' ikuskizun berriarekin



**Munduko Magia saria**

. Kartomagiako munduko txapelduna
. Publikoaren saria Elgetako 2006ko Magia Mostran

### 5 - ZAPATUA

22:30 MAGIA GALA
Prezioa: 18 €

P-Cubique
'Cubic Act'
- Ilusio handiak -

**Lehen saria Europako magia txapelketan**

. Lehen saria Frantziako magia txapelketan



Enric Magoo
'Frankie J.B.' ikuskizuna
- Magia komikoa -

**Mandrakes d'Or saria**

. Zilarrezko barita Montecarlon
. Magia komikoaren saria Lausanne hiriko jaialdian



Charlie Mag
'Gala ikuskizuna'
- Magia usoekin -

**Lehen saria mundu mailako mago gazteen txapelketan**

. Lehen saria Suitzan



Silvana
- Antzerki magia -

**Lehen saria Alemaniako Street Magic Festival jaialdian**

. Originaltasunaren saria Blackpool-eko jaialdian.



### 6 - DOMEKA

13:00 MAGIA KALEAN - Doan
. Brando eta Silvana. 'Circus'.
. Enric Magoo.



Sarrerak dagoeneko salgai. Bazkideendako bi ikuskizunetarako sarrerak: 23 € - www.espaloia.com - Tel.: 943 78 90 85

ANTOLATZAILEAK: Elgetako Espaloia Kafe Antzokia; MagialdiA Vitoria-Gasteiz
BABESLEAK: Elgetako Udala; goiena Komunikazio Taldea
LAGUNTZAILEAK: Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco, Kultura Saila – Departamento de Cultura; Gipuzkoako Foru Aldundia – Diputación Foral de Gipuzkoa; GED Grupo Elcoro Decoletaje, S.L.; gizarte kutxa

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Jesus Agirre** | EAJko zinegotzia (1991-1995) Antzuolan

- Kultura eta Kirol zinegotzia izan zen lau urtez
- Herriko margolarien erakusketak bultzatu zituen
- Antzuola izeneko kalea jarri zuten Madrilen

# "Orduko oposizioak proiektu asko atzera bota zizkigun, eta oso gogorra izan zen niretzat"



Jesus Agirre, zinegotziei ematen zaien Antzuolako banderarekin. | U.AGIRRE

M. GALILEA / M. ARREGI | ANTZUOLA

Jaiotzez bergararra da, baina, txikitatik, 3 urte bete zituenetik, Antzuolan bizi da Jesus Agirre. Antzuolartzat duela bere burua kontatu digu. Egungo Udal Gobernua "borondate onarekin" lanean dabilela ikusten duela dio. 81 urte ditu eta hiru seme-alabaren aita da; lau biloba ere baditu. Politikan ibilitako lau urteek ametsak egia bihurtzeko aukera eman ziotela azaldu gura izan digu.

**Zergatik erabaki zenuen politikan aritzea? Zerk bultzatu zintuen?**

Nire borondatea, nolabait, gure foruak eta gure ohiturak garatzea zen. Politikak nire nahia aurrera eramateko aukera eman zidan, nire bokazioa garatzeko baliabide gisa ikusten nuen; eta horregatik afiliatu nintzen Euzko Alderdi Jeltzalera.

**Zein lan egin zenituen lau urteko agintaldi hartan?**

Antzuolako Udalean zinegotzi lanak egin nituen; Kultura eta Kirol zinegotzi izan nintzen. Gai politak ziren eta ahal izan nuen guztia egin nuen hori garatzeko; antzuolarrendako eta Antzuolarentzako lan ondo egiteko asmoz.

**Zein izan zen hartu zenuen erabakirik gogorrena?**

Tokatu zitzaidan oposizioa nahiko gogorra izan zen. Hartu nahi genituen erabakiak behin baino gehiagotan ezin izan genituen aurrera eraman. Momentu oso txarrak pasatu nituen hura gainditzeko; hori izan zen niretzat txarrena. Adibidez, askotan, aurrekontuen inguruan neurriak jartzen ziren eta proiektu batzuekin atzera egin behar izan genuen.

**Zein izan zen hartutako erabakirik gustukoena?**

Gauza asko egin nituen. Erakusketa mordo bat jarri nituen, adibidez. Margotzea da nire zaletasun handiena, eta margolari askok parte hartu zuten erakusketetan.

> "Politikako urteek nire ametsak egia bihurtzeko aukera eman didate"

> "Proiektu batzuekin atzera egin behar izaten genuen, oposizioagatik"

Baina lortu nuen gauzarik ederrenetariko bat herriko margolarien erakusketa antolatzea izan zen. Ez nuen uste herrian hainbeste margolari zeudenik, eta horrelako mailako lanekin, gainera; margo mordoa ekarri zituzten eta oso ederra izan zen. Horretaz aparte, Cesareo Gabarain jauna, Antzuolako apaiza, hil zenean haren izenean omenaldia egin genuen eta orkestra eta Errenteriako abesbatzak parte hartu zuten. Oso emanaldi indartsua eta elegantea antolatu genuen.

**Herria ezagutzera ematea izan al zen zure helburutako bat?**

Herriaren izena zabaltzen saiatu nintzen. Antzuolak Madrilen kale bat du. Hango urbanizazioa egin zuen arkitekto tolosar batek jarri zion izena, zehazki. Udalean egon nintzen lau urteetan, Madrilgo Antzuola kaleko bizilagun guztiei txartel bat bidali nien Gabonetan. Telefono gidan begiratu helbidea eta Antzuolako udaletxearen argazkiarekin, euskaraz eta gazteleraz, Gabon zoriontsuak opa egiteko txartela bidali nien guztiei. Madrildik erantzunak jaso nituen; emozioz beterikoak asko.

**Zerbait igartzen al duzu faltan? Orain zerbait egingo zenuke?**

Bai, noski. Orain nire nahiak asetzeko modurik ez daukat, ez dakit nola zabaldu; Antzuolan gauza batzuk egingo nituzke, baina hauek aurrera eramateko modurik ez dut ikusten.

> "Antzuolak Madrilen kale bat du, arkitekto tolosar batek jarrita"

> "Egungo Udala borondate handiarekin lanean ari dela uste dut"

**Kanpotik begiratuta, nola ikusten duzu gaur egungo Udala?**

Nahiko borondate handiarekin dabiltzala lanean ikusten dut; laguntasun handia dute, batuta. Diru gutxi daukate, eta, horregatik, gauza handirik, inbertsio potolorik, ezin dutela egin uste dut; ezin gehiago eskatu une hauetan.

**Zerbait aldatuko zenuke?**

Elkarren arteko hartu-emana askoz zintzoagoa izatea gustatuko litzaidake, elkarri laguntzeko borondate handiagoa izatea, alegia. Elkarren arteko politikako gerra hau hasi zenetik elkarri jaten, zapaltzen ari direla uste dut, eta hori oso txarra da; gauza bat erabakitzen denean denok aurrera egin behar dute batera, eta orain ez da horrela jokatzen.




ALKATE JAUNA, HARIRA

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | OXEL EROSTARBE ELGETAKO ALKATEAREKIN ELKARRIZKETA
APIRILAK 24, 21:27 | APIRILAK 25, 13:05 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

PARTE HARTU ETA EGIN GALDERAK ALKATEARI
SAIOAREN AURRETIK: posta: *harira@goiena.com* | Goiena.net: albistearen barrenean, galdera edo iruzkina utzi.
ZUZENEAN: 943 25 05 03 | Twitter: traola *#harira* | Goiena.net: ikusi streaming bidez, eta egin galderak eta iruzkinak.

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# HERRIAK

ESKORIATZA

# Maiatzean hasiko dituzte Atxorrotzeko azken indusketak

- Larrate enpresa izan da proiektua idatzi duena, eta eurek egingo dituzte lanak
- Lanetara bisita gidatuak egingo dituzte eta azalpen panel bat ere jarriko dute

TXOMIN MADINA |ESKORIATZA

Behin Udalak onartu duela, maiatzean hasiko dute Atxorrotz ingurua osorik ikertzea helburu nagusitzat duen proiektuaren laugarren eta azken fasea.

Aurrekoak bezala, Larrate enpresa izan da proiektuaren fase hau idatzi duena, baita aurrera eramango duena ere. Proiektuan azaltzen denez, 2012ko kanpaina dago zuzenduta etorkizunean multzo osoa balioesteko esku-hartzeak diseinatzeko informazio garrantzitsua lortzera. Sei pertsona ibiliko dira lanean Atxorrotzen bertan. Atxorretzen bertan egin beharreko hiru lan aurreikusten dira fase honetan: esku-hartze arkeologikoa; sendotze eta zaharberritze lanak; eta sozializazioa.



2011ko kanpainan ere egin zituzten harresia sendotzeko lanak. | IÑAKI SAGREDO

### Lekuan bertan egiteko lanak

Larrate enpresako Iñaki Sagredo historialariaren arabera, esku-hartze arkeologikoari dagokionez, arkeologi bilaketa, zundaketa eta laginak hartzea izango dira jarraituko diren metodoak. Zundaketetan, bi aurreikusten dira: bata hego-ekialdeko harresian eta bestea ermita barruan (ikus behean). Aurkitutako egituren eraikuntza-ezaugarriak ere dokumentatuko dituzte; baita material arkeologikoa eta ondare materiala erregistratu eta kudeatu ere. Horretarako laborategia Atxorrotzen bertan jarriko dute, bisitariek lan horiek zeintzuk diren ezagutu dezaten.

Sendotze eta zaharberritze lanak harresian zentratuko dira, baina lanok ermitan ere egingo dituzte; zurezko zorua jarriko dute bertan, behin egin beharreko zundaketa lanak bukatutakoan.

Aurreko faseetan legez, lanen sozializazioa garrantzitsua izango da. Hala, lanak egiten ari diren bitartean egiteko bisita gidatuak antolatu dituzte Atxorrotzera. "Helburua da inguruko gazteek ondarea balioestea eta, era berean, etorkizunean zaintzea", dio Iñaki SagredokAzalpen panela ere ipiniko dute ermita kanpoan eta, aurrerago, aldi baterako erakusketa jarriko dute, baita hitzaldi ziklo bat antolatuko ere.

Lekuan bertan egin beharreko lanek hilabete edo hilabete eta erdi inguru irautea da asmoa.

### Atxorrotz, kultura ondare

Kultura ondare izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak Atxorrotz martxoan eta horrek lan egiteko orduan zorroztasun handiagoa eskatuko dien arren, Iñaki Sagredorentzat albiste ona da izendapena: "XII. mendean Atxorrotz izan zen Gipuzkoako gaztelurik garrantzitsuena eta, izendapen honekin, beste leku batzuetan egindako moldaketak ekidingo dira".




## Hego-ekialdeko harresiaren zundaketa

Gazteluaren goiko esparruko hego-ekialdean harresiaren itxiera osatuko dute proiektuaren laugarren fase honetan. Leku horretan aipatutako esparrura sartzeko ate nagusia zegoen.

Zundaketa lekuaren zati batean indusketak egin ziren 1968an eta, beraz, aldaketak eta unitate nahasiak egotea espero dute, eta baita unitate negatiboak ere. Aurreikuspenen arabera, gutxi gora behera, hilabeteko lana ekarriko du zundaketa honek.




## Zundaketa ermita barruan

Egoera txarrean daudenez, beharrezkoa da ermitaren zorua estaltzen duten zurezko oholak aldatzea. Lan hori egin behar denez, ermita barruan zundaketa bat egiteko aprobetxatuko da. Zundaketa horretan gazteluaren dorre nagusiaren oinarriaren Erdi Aroko aztarnak aurkitzea espero da. Izan ere, seguru asko, dorre hori gaur egun ermita dagoen lekuan egongo zen, ur-biltegiaren ondoan, esparruko leku garaienean. Landu beharreko eremua 20 metro koadrokoa da. Lan hauek hilabete inguru irautea aurreikusten dute.

ESKORIATZA

# 'Bat ekarri, bi eruen' liburu azokak jende asko erakarri du aurten ere

▸ Euri arriskuagatik bibliotekako atarian egin zen, plazan egin beharrean

▸ Etxeko liburuak berritzeko formulak funtzionatzen duela argi geratu da

**JOKIN BEREZIARTUA** | ESKORIATZA

Gaur ospatzen den Liburuaren Eguna ez da oharkabean pasa Eskoriatzan. Udalaren eta bibliotekaren *Kataia Eten Barik* ekimenaren barruan, *Bat ekarri, bi eruen* liburu azoka egin zuten egubakoitzean. Euri arriskuagatik bibliotekako atarian egin zen, Herriko plazan egin beharrean.

Jende askok bisitatu zuen azoka, aurrez liburutegian utzitako liburu baten truke bi liburu eramateko aukera aprobetxatzera joanda. Adin guztietako eskoriatzarrak izan ziren, liburuei adi-adi, gustukoak bilatzen. Eta, urtero moduan, umeendako tailerrek ez zuten hutsik egin. Biblioteka barruan, era berean, irakurle gaztetxoek euren aiton-amonen bizitzen gaineko zenbait testu irakurri zituzten, familia giro ederrean.



Herritar asko gerturatu ziren bibliotekara gustuko liburuak etxera eramateko asmoz. | JOSETXO ARANTZABAL



**UXUE BELOKI**
ESKORIATZA

"Urtero etortzen naiz azokara, oso ondo dago-eta. Bat ekarri, bi eraman. Aurten ere aurkitu ditut gustuko liburuak, eta horietako batzuk etxera eramango ditut".



**CARLOS CAMPOS**
ESKORIATZA

"Azoka oso ondo doa, jende asko etorri da. Lekua txiki geratu da akaso, baina oso giro ona dago. Adin guztietako irakurleak daude, azoka errotuta dagoen erakusle".



**ASUN ARREGI**
ESKORIATZA

"Etxeko liburuak berritzeko oso ondo dago. Irakurtzeko ohitura handia daukat. Plazan giro hobea egoten da baina hemen ere jendea badabil, ondo".



**JANIRE RABANETE ETA ELAITZ IREGI**
ESKORIATZA

"Gustuko dugu liburu azoka baina aurten ez ditugu guretako moduko liburu gehiegi aurkitu. Liburu gehienak gu baino irakurle gazteagoendako edo zaharragoendako dira; guretako ez zegoen larregi aukeratzeko. Hala ere, etxera ez gara esku hutsik bueltatuko. Asko gustatzen zaigu irakurtzea, egunero irakurtzeko ohitura dugu. Liburu bat ekarrita etxera bi eramateko aukera oso ondo dago; formula hori gustuko dugu".



J.B.

**IÑAKI AGIRIANO**
LIBURUZAINA

## "Irakurtzen jarraitzen den bitartean azoka egiteak merezi izango du"

Eguraldiagatik azoka bibliotekako atarian egin behar izana pena izan zela dio Iñaki Agiriano Eskoriatzako liburuzainak. Hala ere, aurtengo azokak izan duen erantzunarekin pozik dago.

**Nola joan da aurten Liburu Azoka?**

Alde batetik pena izan da eguraldia dela-eta azoka bibliotekaren atarian egin behar izana. Eguraldiak ez zuen Herriko plazan egin ahal izateko ziurtasuna eskaintzen eta ez gara ausartu plazan egitera. Eta begira, azkenean ez du euririk egin. Hala ere, herritarrek ondo erantzun dute, etxetik ekarritako liburu baten truke bi eramateko aukera hori ondo aprobetxatu dute, urtero moduan.

**Eskaintza zabala al da?**

Batez ere eleberriak jarri ditugu, astean zehar jaso ditugun liburu gehienak eleberriak izan direlako. Haurrendako liburuak jarri ditugu, noski, baina gehienbat helduendako literatura izan da aurtengo azokan. Azoka errotuta dagoela esango nuke eta uste dut merezi duela jarraitzea, liburuak irakurtzen jarraitzen den bitartean behintzat.

ANTZUOLA

# Dantzaz gozatu eta dantza taldeen arteko harremana sendotzeko urteroko zita

**J.B.** | ANTZUOLA

Debagoieneko Dantzari Eguna ospatu zuten zapatuan Antzuolan. Bailarako 170 bat dantzari batu ziren eta aurten, nobedade moduan, Aramaioko dantza taldeak ere parte hartu du lehenengoz. Eguraldia ez zuten lagun izan eta horregatik eskolako jolastokian egin zituzten erakustaldiak. Aurten Antzuolari egokitu zaio eguna antolatzea eta dantza talde guztiek batera egindako bazkariaren ostean harrapatu genuen Oinarin dantza taldeko Gorka Garitano; pozik zegoen: "Eguraldiagatik azken orduko aldaketak egin behar izan ditugu, dantza aterpean egiteko. Hala ere, pozik gaude sortu dugun giroarekin. Dantza egiteko gogoz gaude, hori da garrantzitsuena".

**15 urte dagoeneko**

Egun berezia da ibarreko dantzariendako. Dagoeneko 15 urte bete ditu ekimenak eta helburua argi du Garitanok: "Asmoa da bailarari erakustea dantza bizirik dagoela, gure kulturaren parte delako".



Arratsaldeko erakustaldian bost taldek hartu zuten parte; irudian, Arrasateko Txikitxu Arrostaitz taldea. | IRATI GOITIA


Denetariko hainbat motorrek hartu zuten goizetik Bergarako Amillaga gunea. | JOSETXO ARANTZABAL


Motor ederrez gain, kolore beltza eta garezurrak nagusi. | JOSETXO ARANTZABAL


Hardcore doinuak jarri zituen arratsaldean Aretxabaleta eta Arrasateko Drop! taldeak. | JOKIN BEREZIARTUA

BERGARA

# Motor hots eta rock doinu artean gustura, bizitza eredu baten isla

## Bergara Black 3 motor zaleen jaia egin zuten zapatuan, askotariko ekintzekin

**JOKIN BEREZIARTUA** | BERGARA

Ezinezkoa oharkabean pasatzea. 150 lagun inguru elkartu ziren zapatuan Maribel Carazo bergararrak beste lagun batzuekin batera antolatu duen Bergara Black 3 motorren jaian. Motor zaleek familia txiki bat osatzen dutela eta eurendako motorra bizitza estilo bat dela argi geratu zen Amillagan egindako topaketan. Narruzko jantzi beltzez gain, motor hotsek eta bazkalosteko rock doinu gogorrek Bergara hartu zuten. Eta ez bakarrik Bergara, goizean buelta ederra egin zuten-eta ibarrean zehar. Besteak beste, Arrasate osoa zeharkatu zuten. Hala ere, euriak ez zuen lagundu eta askok goizeko bueltaren ostean etxerako bidea hartu zuten. Izan ere, hainbat txokotako motor zaleak izan ziren gurean: ibarrekoez gain, Azpeitia, Zumarraga, Gasteiz, Miranda Ebro, Logroño Madril...

**Urteroko hitzordua dagoeneko**

Aurten hiru urte bete ditu jai bereziak baina Carazok adierazitakoaren arabera jaia errotuta dago eta urtero egingo da; hori da bere asmoa.



**MARIBEL CARAZO**
ANTOLATZAILEA

"Jaia oso ondo joan da, eguraldiak lagundu ez arren. Denda ireki berri hasi nintzen jaia antolatzen eta urtez urte jende gehiago etortzen da; aurten, 150 lagun inguru. Urtero antolatuko dugu".



**DAVID ETA TXEMA**
MADRIL ETA ARRASATE

"Talde hasiberriak ezagutzera emateko irratsaioak egiten ditugu. Musika jarioa bilatzen dugu eta halako jaiak horretarako ezin aproposagoak dira. Beste kultura eredu baten alde egiten dugu".



**JOSE RAMON ETA OCTAVIO**
ZUMARRAGA

"Maribelek antolatu duelako etorri gara, bestela ez ginateke bustiko. Hala ere, euriari aurpegi ona jarri behar zaio. Zumarragatik zazpi lagun etorri gara, buelta bat eman eta ederto pasatzeko asmoz".



**MARLON**
LOGROÑO

"Leku onenetan elkartzen garen jende ona gara. Halako jaiak lagun berriak egiteko aukera paregabea dira. Motorrak eta musika onak eskaintzen diguna partekatzeko eguna. Bustita hasi garen arren, oso gustura gabiltza".

ARRASATE

# Gaztetxe Eguna: beste urte batzuetan baino jende gutxiago, baina giro ederra

**J.B.** | ARRASATE

Apiril osoa ospakizunetan dabiltza Arrasateko gaztetxean. AGAKOk 21 urte bete dituela ari dira ospatzen, hain justu. Bada, hileko egun seinalatuenetako bat izaten da Gaztetxe Eguna; zapatuan ospatu zuten. Beste urte batzuetan baino gazte gutxiago batu ziren, baina giro ederra izan zen nagusi. Goizeko eztabaida saioaren ostean, trikitilarien eta gaztetxeko bertso eskolako kideen eskutik girotutako poteoa egin zuten. Luze jo zuen poteoak, 16:00etan hasi ziren-eta bazkaltzen. 50 bat lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan.

**Gaueko ska festan jende asko**

Bazkalostean Azkaiter Pelox musikari bergarararrak kontzertu bikaina eskaini zuen, ikusleekin ohikoa duen *feedback*-a lortuz. Gero kalejiran irten ziren, bozgorailuekin musika herri osora zabalduz. Kalejira "iazkoa baino lasaiagoa" izan zela esan digute. Hori bai, eguna borobiltzeko, jende asko eta sekulako giroa izan zen gaueko ska festan.


50 bat lagun elkartu ziren gaztetxeko bazkarian, giro ederrean. | JOSU BELTRAN


Azkaiter Pelox zuzenean. | ANDER MONEDERO

# Maiatzaren 7an sartuko da indarrean alde zaharreko zirkulazio ordutegi berria

▸ 15 eguneko "probaldia" izango da lehenago

▸ Udalak aurretik informatu ditu inguruko bizilagunak

UBANE MADERA | ARRASATE

Udalerriko alde zaharrean autoz ibiltzeko ordutegia aldatu egingo du Arrasateko Udalak.

Albiste hori ez da berria, bai ordea ordutegi berria maiatzaren 7an (astelehena) sartuko dela indarrean. Ordura arte, datozen 15 egunetan "probaldia" ezarriko dute, gaurtik, apirilaren 23, maiatzaren 6ra arte, hain justu ere, "ordutegi berrira ohitzeko".

Zirkulazioaren ordutegi aldaketak eragingo duen guneetako bizilagun, merkatari eta bestelakoek joan den egubakoitzean izan zuten Udalaren erabakiaren berri. Esaterako, inguruko ikastetxeetako ikasleen seme-alabei dagoeneko jakinarazi diete zein izango den funtzionamendu berria.



Seme-alabak eskola aurrean lagatzen; hori ezingo dute egin aurrerantzean. | U.M.

### Seinaleak jarrita

Bestalde, Arrasateko Udalak jakinarazi du dagoeneko ordutegi berriak azaltzen dituzten seinaleak jarrita daudela dagozkien kaleen hasieratan, baina estalita daudela. "Seinale horiek maiatzaren 7an jarriko dira bistan, legez indarrean sartzen denean antolaketa berria. Hamabost egun horietan udaltzainak herritarrak informatzen arituko dira".

### Alde zaharra handitu

Labur esanda, zirkulazioaren ordutegi berria orain arteko oinezkoen gune guztietan aplikatzeaz gainera, alde zaharreko gune berri batzuetara ere zabalduko da: Gazteluondo-Olarte (goiko aldea) eta Mitarte guneetara.

Helburua da gune horiei ere alde zaharreko gainontzekoek duten izaera ematea. Bestela esanda, oinezkoek lehentasuna izango duten gune bilakatu gura dituzte. Horrek ekarriko duena da bertako kaleak ordutegi zehatz batean izango direla zabalik, "bertako bizilagunek eta komertzioek karga eta deskarga egin ahal dezaten, oinezkoen espazioa zainduz".

### Ordutegi orokorra

Kontuak kontu, alde zaharreko zirkulazioaren ordutegia aldatu, eta orokorrean honakoa aplikatuko dute: astelehenetik egubakoitzera, 09:15ean zabalduko dute eta 12:00etan, itxi. Arratsaldez, astean behin zabalduko dute: martitzenetan 19:30etik 21:00ak arte. Gainontzeko egunetan ibilgailuek ezin izango dute zirkulatu arratsaldez.

### ORDUTEGIA GUNEKA

| GUNEAK | GOIZEAN | ARRATSALDEAN | APARKALEKUA |
|---|---|---|---|
| **Maalako Errabala, Iturrioz, Erdiko kalea, Ferrerias, Arrasate pasealekua, Mitarte** | Astelehenetik egubakoitzera arte zabalik: 09:15-12:00<br>Zapatu, domeka eta jai egunetan itxita. | Martitzenetan zabalik: 19:30-21:00 | Bakarrik zamalanak egiteko, 15 minutu. |
| **Gazteluondo-Olarte goiko aldea** | Astelehenetik zapatura arte zabalik: 09:15-12:00<br>Domeka eta jai egunetan itxita. | Astelehen, martitzen, eguazten eta domeketan zabalik: 19:30-21:00 | Zabalik dagoen orduetan aparkatu daiteke eta autoa bertan utzi. |
| **San Frantzisko Olarte beheko aldea eta Zerkaosteta** | Astelehenetik zapatura arte zabalik: 07:30-12:00<br>Domeka eta jai egunetan itxita. | Martitzenetan zabalik: 19:30-21:00 | Bakarrik zamalanak egiteko, 15 minutu. |

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

Bestalde, zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan itxita izango da.

### Gazteluondo-Olarte

Gazteluondo-Olarte guneak (goiko aldea), berriz, goizez orokorraren ordutegi bera izango du, baina arratsaldez sarriago zabalduko dute: astelehen, martitzen, eguazten eta domeketan, 19:30etik 21:00ak arte.

### San Frantzisko-Olarte

Eta San Frantzisko-Olarte (beheko aldea) guneari dagokionez, Zerkaostetaren ordutegi berezia aplikatuko diote: goizez astelehenetik zapatura 07:30ean-12:00ak arte zabalduko dute. Domeka eta jaiegunetan itxita izango da. Arratsaldeetan, berriz, martitzenetan zabalduko dute, 19:30etik 21:00ak arte.

### Orduz kanpoko aparkatzeak

Zirkulazioaz gainera, aparkatze kontuak ere zaindu gura dituzte alde zaharrean. Kasu horretan, ezin izango da aparkatu Iturriotz, Erdiko, Ferrerias, Maala, San Frantzisko eta Olarte (beheko aldea), Zerkaosteta (beheko aldea) eta Mitarte kaleetan. Gazteluondon eta Olarteko goiko aldean, berriz, markatuta dauden guneetan aparkatu ahal da.

### Mugikortasuna bultzatu guran

Hau guztia egiteko arrazoia da Udalak "zirkulazio arazoa konpontzeko eta oinezkoen eskubideak babesteko" asmoa daukala "ingurumen iraunkortasuneko ikuspegia zainduz zenbait neurri hartzeko". Alde Zaharraren antolaketa berria da neurri horietako bat. "Garraio publikoa bultzatzea, bidegorrien sarea indartzea, garabi zerbitzuaren berrantolaketa, seinaleztapena hobetzea edo doako TAO sistema ezartzea" dira lantzen dabiltzan bestelako asmo batzuk. Zentzu horretan, Udalak asmoa daka, baita ere, "oinezkoen espazioak zabaltzeko".

# Arrasatearren parte-hartze handia Musikaldian

Egubakoitzetik maiatzaren 6ra hainbat estilotako zazpi musika emanaldi izango dira herrian



Kulturaten egin zuten aurkezpena. | ANDER MONEDERO

A.MONEDERO-M.BITERI | ARRASATE

Egubakoitzean, hilak 27, jarriko dute martxan Udaberriko VIII. Musikaldia. Aurtengo ezaugarrietako nabarmenetarikoa da arrasatearren parte-hartze handia, eta horren erakusle izan zen egubakoitzean Kulturaten egindako aurkezpenean Perku2c taldeko kide Nestor Morales perkusiogilea izan zela, Kepa Urteaga Kultura Saileko zinegotzi eta Jon Garai eta Karmelo Alberdi teknikariekin batera.

### Jokin Vitoriaren kolaborazioa

Gorka Saenz de Ibarra gasteiztarra eta Nestor Morales arrasatearrak 2005ean sortu zuten Perku2c. Perkusio estilo ezberdinak landuz, maiatzaren 4an, emanaldi "arina" eskaintzeko asmoa dute Kulturateko areto nagusian, eta horretarako laminazko instrumentuak diren barinba eta bibrofonoa erabiliko dituzte, besteak beste. Gainera, ez dira bakarrik izango taula gainean, Jokin Vitoria perkusionista arrasatearraren kolaborazioa izango dute-eta.

Esan bezala, egubakoitzean hasiko da aurtengo Musikaldia, eta maiatzaren 6an amaitu; zazpi egunetan beste horrenbeste emanaldi daude aurreikusita. Askotariko estiloko taldeak arituko dira: hain justu, Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoa eta Goikobalu Abesbatza, Ekimende, Alberto Urretxu eta Marion Desjacques-Huguel, Urval Ensemble, Perku2c, Arrasate Musikaleko Txistu Banda eta Vocalia emakumeen abesbatza.

### EGITARAUA, EGUNEZ EGUN

**APIRILAK 27**

**20:00** Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoa eta Goikobalu Abesbatza, San Frantzisko elizan.

**APIRILAK 28**

**20:00** Ekimende soka laukotea, Kulturateko areto nagusian.

**APIRILAK 29**

**20:00** Alberto Urretxu tronboia eta Marion Desjacques-Huguel arpa jotzailea, Kulturateko areto nagusian.

**APIRILAK 30**

**20:00** Urval Ensemble klarinete laukotea, Kulturateko areto nagusian.

**MAIATZAK 4**

**20:00** Perku2c perkusio bikotea, Kulturateko areto nagusian.

**MAIATZAK 5**

**12:30** Arrasate Musikaleko Txistu Banda, Herriko plazan.

**MAIATZAK 6**

**20:00** Vocalia abesbatza, San Juan Batailatzailearen parrokian.



Kexuak Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira. | U.M.

# Ekainetik hona 800 kexu jaso dituzte Arrasateko Udalean

## Aurkezten diren kexuetako batzuk ez dira Udalaren eskumena; hala ere, Udalak jarraipena egiten die

**UBANE MADERA** | ARRASATE

2006az geroztik (BAZ zabaldu zenetik) herritarren kexuak Biztanleen Arreta Zerbitzuan jasotzen dituzte; eta datuak esku artean, zerbitzu horrek ondo funtzionatzen duela ondoriozta daiteke.

Adibiderik gertukoena da iazko ekainetik orain arte 800 kexu jaso dituztela Arrasateko Udalean. "Jendeak geroago eta gehiago ezagutzen du zerbitzu hori, eta, gainera, kexua aurkezten dituzten gehienek modu positiboan aurkezten dute; hau da, konponbidea gura dutelako aurkezten dute kexua. Dena den, denetik egoten da, badaude batzuk sekulako harrikadak botatzen dituztenak, mehatxu modura etortzen direnak ere bai, baina, esan bezala, gehiengehienak zentzudunak dira, eta konpondu ahal direnak", adierazi du Kepa Urteagak, kexuak bideratzeaz arduratzen den udal ordezkariak.

> **DATUA**
>
> **%80**
>
> ZERBITZUEKIN LOTUAK
>
> **Aurkezten diren kexuen %80 zerbitzuekin lotutakoak dira: estolderia kontuak, jarleku falta, traban dauden autoak...**

**Autoak, jarlekuak, zuhaitzak...**

Herritarrek aurkezten dituzten kexu gehienak zerbitzuekin lotutakoak dira: "Normala da, herritarren zerbitzu saila da-eta. Adibidez, kexu asko jaso ditugu Agerre plazan ez dagoelako jarlekurik; zuhaitzen adarrak beheregi daudelako ere izaten dira; estolderiekin lotutakoak, zarata ateratzen dutelako; autoak gaizki aparkatuta traban egoten direlako... Eta asko izaten dira, baita ere, ziburuekin lotutakoak. Adibidez, Zaldibarkoetan lurzorua txarto zegoela-eta kexua jaso eta aldatu egun genuen zorua", kontatu du Urteaga zinegotziak.

**Kexuak Udalak berak bideratu**

Hark jakinarazi du, baita ere, jasotzen dituzten kexu batzuk Udalari z dagozkionak, arlo horretan eskumenik ez duelako. "Bidegorriekin lotuta, Epeletik aurrerako tunelean eta Polmetasa inguruan argiztapen gutxi izatearren kexuak jaso ditugu; kasu horretan ardura Foru Aldundiarena da. Halakoetan egiten duguna da gaiari jarraipena eman eta guk geuk bideratu eskaria Diputazioari".

**Erantzuteko denbora**

Jakina, kexua aurkezten duenak erantzuna espero du. Zoritxarrez, baina, gehienetan asko tardatzen du erantzun horrek. Urteaga zinegotziak ere hala onartu du Arrasate Irratian: "Normalean bastante denbora pasatzen da, prozesua bera luzea delako. Kexuak BAZen sartzen diren egunean bertan bideratzen dira dagokion sailera. Sail horrek baliteke 15 egunean behin izatea batzordea, edo astero, eta hor aztertu behar dituzte kexuak. Gero, kexuaren izaeraren arabera, Gobernu batzordetik pasa behar da; eta oso ezohikoa izaten da, baina hala badagokio, baliteke osoko bilkuratik pasa behar izatea ere".

Kontuak kontu, Urteagak kexuak aurkezten segitzeko eskatu gura du: "Jendeak arazoak dituenean, uste duenean konpon daitezkeela, etor daitezela. Irekita gaude guztiak entzuteko eta batzuetan konpon daitezke. Errazagoa da kexatzea tabernetan eta gero ezer ere ez egitea. Beraz, positiboa da kexua aurkeztea.

> ### Kexuak zelan aurkeztu
>
> Kexuak Biztanleen Arreta Zerbitzuan sartu behar dira.
> Hiru bide daude:
> – Telefonoz (943 25 20 00).
> – Internetez (*arrasate-mondragon.org/tramiteak/iradokizunak-eta-kexak*).
> – BAZera bertara joanda.
>
> Kexua aurkezteko derrigorrezkoa da izen-abizenak ematea. Eta Interneteko bidea aukeratuz gero, norberaren helbide elektronikoa ere jarri behar da.

> ### Kexuen prozedura
>
> Kexuak BAZen sartzen diren egunean bertan bideratzen dituzte dagokion sailera (Zerbitzua, Obrak, Hirigintza...). Sail horrek astero edo hamabostean behin (sailaren arabera) egiten duen batzordean aztertuko du kexua. Sail bakoitzak pertsona bat dauka horretara bideratuta. Gero, kexuaren izaeraren arabera, Gobernu batzordetik pasatu behar du; eta oso ezohikoa izaten da, baina hala badagokio, baliteke osoko bilkuratik pasa behar izatea ere. Prozedura hori guztia egin eta gero, erantzuna bidaltzen zaio kexua aurkeztu duen pertsonari. Eta kexuak konponbidea badu, konpondu egingo dute.

# Zalduspe-Osinaga pasagunea itxiko dute gaur eta bihar, egituran hainbat lagin hartzeko

**M.B.** | ARRASATE

Nafarroako etorbidea industrialdearekin lotzen duen Zalduspe-Osinagako oinezkoendako pasagunean zenbait lan egin behar dituzte, eta, hori dela eta, gaurtik bihar arte pasagunearen erabilera itxi egin beharko dute. Udal iturriek jakinarazi dute lanak egiten diren bitartean egongo dela hori itxita: hain justu ere, 08:30etik 19:00etara. Gainerako orduetan erabili ahal izango da.

Zubiaren egitura nola dagoen aztertu nahi dute, eta horretarako hainbat lagin hartuko dituzte horretan. Pasagune ondoan jarriko duten garabia arduratuko da lagin horiek hartzeaz, eta arrasatearren segurtasuna bermatze aldera, itxi egingo da.

**Egitura herdoiltzen**

Udal iturrien arabera, egitura azkarregi ari da herdoiltzen, eta horixe da, hain justu, aztertu gura dutena. Laginek eskaintzen dituzten emaitzen arabera erabakiko du Udalak arazo horri zelan egin aurre.

TXALOAK ETA TXISTUAK

# Bizikleta apurtuta Uarkapen

Irakurle bat haserre agertu da gurean, Uarkape pilotaleku ondoan guztiz puskatuta dagoen bizikleta ikusi duelako: "Bizikleta bere tokian ondo aparkatuta dago, eta ez dio inori trabarik egiten; dena dela, baten batek apurtzea erabaki du". Azkenaldian, herriko kaleetan apurketak asko ugaritu direla gogoraraztearekin batera, nabarmendu du horrelako jokaerak zentzugabeak direla.


MIRIAN BITERI



Zabala presidentea (bigarrena eskumatik) eta zuzendaritzako kideak, Arrondo presidente ohia eta Maria Eugenia Silanesekin.

# Jose Ignacio Zabala izendatu dute San Joxepe elkarteko presidente

## Hamar lagun dira zuzendaritza berrian; Rosa Mari Larrañaga, presidente ordea

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Carlos Arrondo ordezkatuz, Jose Ignacio Zabala dugu San Joxepe elkarteko presidente berria. Hasiera baten, hiru urte egingo ditu karguan. Martxoaren 27ko batzarrean zuzendaritzan hainbat aldaketa adostu zituzten San Joxepeko bazkideek. Arrondo presidentearekin batera Maria Eugenia Silanes atera da zuzendaritzatik eta haien ordez Jose Ignacio Zabala bera eta Jose Mari Larrañaga dira kide berriak. Gauzak horrela, Zabala izendatu dute presidente; Rosa Mari Larrañaga izango da presidente ordea; Jose Inazio Beristain, diruzaina; eta Jose Ramon Lozanok idazkari lanak egingo ditu. Horiez gain, bokalak Begoña Garitano, Beatriz Larrañaga, Benjamin Lazkano, Antolin Marchena, Jose Mari Larrañaga eta Mari Karmen Otaola izango dira.

Carlos Arrondok sei urte eman ditu San Joxepeko presidente. Erretiratuen elkartea bizi-bizi dago, bazkide kopuruak erakusten duen bezala: San Joxepek 1.608 bazkide zituen joan den abenduan, horietatik 946 emakumezkoak eta 662 gizonezkoak.

### Logroñora bihar

Urtean zehar antolatzen dituzten kultur jarduerekin jarraituz, San Joxepeko lagunek Logroñora irteera egingo dute bihar, martitzena. Goizean aterako dira, autobusez, 08:30ean eta eguerdi partean Iregua bailaran zehar ibiliko dira, jarraian Logroñon bazkalduko dutelarik. Iluntzean iritsiko dira Bergarara.



Kirol jarduera ezberdinen artean igeriketa izango da aukeran. | GOIENA

# Uda Kanpaina: haur eta helduei zuzendutako kirol eskaintza zabala

**E.M.** | BERGARA

Kirol Zerbitzuak kaleratu du dagoeneko aurtengo Uda Kanpaina. Hain zuzen ere, izen ematea egiteko lehenbiziko aukera abian da, eta eguenera arte, apirilaren 26ra arte egongo da zabalik.

### Eskaintza zabala

Aurreko urteotan bezala, eskaintza zabala izango dute 3 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek: igeriketa, piraguismoa, tenisa, irristaketa, dantza eta beste, Lehenbiziko txanda ekainaren 25etik uztailaren 6ra izango da eta bigarrena, berriz, uztailaren 9tik 20ra. Informazio osoa *www.agorrosin.net* webgunean duzue eskuragarri.

### Helduendako txanda bakarra

Helduei dagokienez, izena emateko epea maiatzaren 2an irekiko dute eta plaza libreak egongo balira, haiek betetzeko epea ekainaren 2tik 13ra egingo da zabalik. Helduen kasuan jardueretarako txanda bakarra izango da, ekainaren 25etik uztailaren 20ra hain zuzen ere.

## Bergarako Erreal-Zaleak: Petritegi sagardotegira eta Real-Racing partidua ikustera zapatuan

Bergarako Erreal-Zaleak lagunarteak irteera iragarri du zapaturako. Petritegi sagardotegian bazkaldu ondoren, Reala eta Racingen arteko partidura joango dira. Bazkariaren prezioa 30 eurokoa da eta sarrerak 20 eurotan izango dira eskuragarri. Izen-ematea Matxiategi elektrizitate dendan (943 76 19 94) egin daiteke. Irteera autobus geltokitik egingo dute, 13:00etan.

## Udaleku Musikaletarako izen-ematea eguenera arte dago zabalik Bergarako Musika Eskolan

Musika Eskolak Udaleku Musikalak iragarri ditu ekainaren 25etik uztailaren 6ra. 1999tik 2007ra bitartean jaiotako neska-mutilei zuzendutakoak dira. Musikaren mundu zoragarria ezagutu, ulertu eta bizi izateko helburuarekin ekitaldiak izango dituzte. Izena emateko epea eguenera arte, apirilaren 26ra arte dago zabalik. Argibideak Musika Eskolan, 943 76 57 80 telefonoan.

## 'Jendaurrean nola hitz egin' eta 'Ipuin kontaketa tailerra' ikastaroak asteon, Bizikasiren eskutik

Bizikasik pare bat ikastaro iragarri ditu datozen asteotarako. Alde batetik *Jendaurrean nola hitz egin* landuko dute (apirilak 24, 26 eta maiatzak 3 eta 8) eta bestetik *Ipuin kontaketa tailerra* egiteko aukera izango da apirilaren 25etik maiatzaren 10era. Bietan ere plaza mugatuak dira eta izen-ematea kultura etxean, 943 77 91 58 telefono zenbakian egin daiteke.

## Liburuaren Eguna: haurrendako ipuin kontaketa gaur eta ikasleendako bisitak Udal Liburutegian

Liburuaren Eguna ospatzeko, Amaia Arriaranen eskutik haurrei zuzendutako ipuin kontaketa izango da gaur, astelehena, Udal Liburutegian, 17:30ean. Era berean, astean zehar bisita gidatuak eskainiko dituzte ikastetxeetako haurrei (0-12 urte) zuzenduta. Nagusiendako, berriz, liburutegian jasotako dohaintzek eraginda, bikoiztuta dauden aleak izango dira eskuragarri.

# Pazkoetako kartel lehiaketarako lanak bihar arte jasoko dituzte

**E.M.** | BERGARA

Mendekoste jaiak hilabete barru ospatuko dira (maiatzaren 25ean hasiko dira, ohiko Bitorianatxoren jaitsierarekin) eta aurreko urteotan moduan egitarau ofizialeko azala ilustratzeko kartel lehiaketa deitu du Udalak. Lehiaketan edozein pertsonak har dezake parte baina hainbat baldintza betetzea beharrezkoa da: kartelek 24 x 34 zentimetroko neurria izango dute, eta formatu bertikala. Teknika librea erabili ahal izango da baina *Pentekoste Jaiak 2012 Bergara* testua azaltzea derrigorrezkoa da. Irabazleak 400 euro jasoko ditu.

Lanak kultura etxean aurkeztu behar dira bihar martitzeneko 13:00ak baino lehen. Interesatuek kultura etxean edo 943 77 91 58 telefonora deituta jaso ditzakete lehiaketaren gaineko argibide gehiago.

### Bi bilera bihar

Pazkoetako ohiko hitzorduetako bat bakailao lehiaketa da. Bihar, martitzena, elkarteen arteko gastronomia antolatzeko bilera luzatu diete interesatutako guztiei. Kultura etxean izango da, 18:30ean hasita. Bestalde, Pazkoak antolatzeko bilera irekia deitu dute bihar kultura etxean, 20:00etan.



Maiatzaren 25etik 29ra ospatuko dira Pazkoak aurten.

**David Zapirain** | Udal Museoko teknikaria

# "Herriko jauntxoen eraginagatik izan zen Bergarako besarkada hemen"

- 1839ko akordioa ekarri zuen gogora Zapirainek barikuko hitzaldian
- Bergarako besarkadaren gaineko erakusketa zabalik dago Irizarren

EDU MENDIBIL | BERGARA

Irizar jauregiko sarreran, Bergarako besarkadaren gaineko erakusketa zabaldu zuten Aste Santuaren atarian. Gertaera historiko hura gogoratzeko bi hitzaldi izan ziren aurreko astean, Juan Madariaga eta David Zapirainen eskutik. Zapirain (Pasaia, 1968) historian doktorea da eta Udaleko Museoko teknikari berria dugu. Harekin egin dugu berba Lehen Gerra Karlistari amaiera eman zion hitzarmenaz. Maroto jeneral karlista eta Espartero jeneral liberala izan ziren besarkada hartako protagonistak, 1839ko abuztuaren 31n.

**Bergarako besarkada gogora ekartzeko erakusketa zabaldu berri duzue hitzarmen hura sinatu zen tokian, Irizar jauregian.**

Bai, herriko ondarearen zati bat da Bergarako besarkada eta bi helburu nagusirekin ireki dugu erakusketa: alde batetik ondare hori aldarrikatzeko eta bestetik ondare horren erabilera aldarrikatzeko, zabaltzeko. Azken baten, gertaera hori jaso eta modu egokian zabaldu nahi dugu, etortzen diren bisitariei zein herritarrei beraiei ere. Aurreko astean, esaterako, Valentziatik turista talde bat etorri zen eta aukera izan zuten erakusketa ikusteko. Turismo Bulegotik antolatutako bisitek geldialdia egingo dute aurrerantzean Irizarreko erakusketan. Eta egunero izango da zabalik Irizarreko sarreran; aste barruan egun osoz eta zapatu eta jai-egunetan goizez, 10:30etik 13:30era.




David Zapirain historialaria, Irizarreko erakusketa iraunkorraren ondoan, aurreko astean. | E.M.

**Nolako garrantzia izan zuen Esparteroeta Marotoren arteko akordioak?**

**Zer nolako ondorioak izan zituen orduko gizartearendako?**

Bi ondorio nagusi izan zituen: alde batetik, gerraren amaiera ekarri zuen, horrek suposatzen duen guztiarekin. Eta, bestalde, hitzarmenarekin kutsu politikoko kontuak ere adosten dira, etorkizunari begira ezinbesteko garrantzia izango dutenak. Foruei aipamen zehatza bezain zalantzazkoa egiten zaie. Geroago etorriko da desarmatzearen alderdi teknikoen garatzea eta baita soldaduen aitortzak ere.

**Zergatik sinatzen da akordioa Bergaran?**

Karlisten eta liberalen arteko akordioa Oñatin eman zen, bi egun aurretik. Ez dago guztiz argi zergatik datozen Bergarara hitzarmena sinatzera. Espartero Oñatin zegoen eta Maroto hara joan izan balitz, etsipen bezala interpretatu zezaketen batzuek, ez dakit. Argi dago Bergarako jauntxoek (Joaquin Irizar Moia tartean) zerikusi zuzena izan zutela akordioa lortzeko orduan eta baliteke hori izatea besarkada Bergaran izateko arrazoi nagusia. Edozein modutan, Oñatin hitzartutakoa berretsi baino ez zuten egin Bergaran.

**Zelako protokoloa jarraitu zuten egun hartan?**

Garai hartako grabatuetan une zehatz bat jasota dago batik bat, besarkadarena, baina sekuentzia bat bezala ikusi behar da. Maroto Esparteroren zain egon zen San Antonion eta Irizarren etxera etorri ziren. Ekitaldi ospetsu hartan parte hartu zuten 22 gizonak mahairen bueltan bildu ziren ondoren bazkaltzera, hitzarmena ospatzera. Bi jeneralekin batera, bi gudarosteetako kabo lehenak eta hainbat laguntzaile elkartu ziren. Bizkaitarrak izan ziren lehenak elkar besarkatzen eta Gipuzkoako batailoiak beranduago sartu ziren. Arabarrek eta nafarrek, berriz, ez zuten parte hartu.

Bestalde, esan behar da hurrengo lau urteetan Bergarako besarkadaren urteurrenak ospatu zirela; horiekin lotutako brokel-dantza (Iztueta maisuaren jatorrizko koreografiarekin) eta orduko kantuak gogoratu genituen eguneko eta egubakoitzeko hitzaldietan. Eta bitxikeria bat ere bai: 1839ko akordioa sinatzeko erabili zuten eta udaletxean gordeta dagoen mahaia erakutsi dugu aurreko astean.

**"Oñatin aurretik adostutakoa berretsi zuten Bergaran"**

**"Foruei aipamen zehatza bezain zalantzazkoa egiten zaie hitzarmenean"**

**"Herriko ondarea aldarrikatu nahi dugu Irizarreko erakusketarekin"**




KB PHOTOESTUDIO

## Lokatzako zozketa

Gorlako Txirrindulari Igoeraren harira Lokatza Ziklismo Eskolak egindako zozketan 261 zenbakidun txartela izan da sarituta eta Jose Ibarra ezagunak eraman du saria etxera: urdaiazpikoa eta ardo kaxa bat. Jose Mari Gabilondo Lokatzako ordezkariak entregatu zion saria Jose Ibarrari. Lokatzako lagunek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza emandako guztiei.



MARIAREN LAGUNDIA

## Ikasle holandarrak bisitan

Holandako Groenlo herriko Marianum ikastetxeko ikasleekin elkartrukea egiten dute Mariaren Lagundiakoek azken urteotan. Lehenengo Bergarako ikasleak izan ziren Holandan eta oraingoan holandarrak etorri dira gurera, apirilaren 15etik 22ra hain zuzen. Eguraldiak lagundu ez arren, kultur eta kirol jarduera mordoa izan dituzte. Guztira 60 ikaslek eta ikastetxe bakoitzeko bina irakaslek hartu dute parte elkartrukean.

# Liburuek duten garrantzia azpimarratzeko astea

## Hitzaldiak, tailerrak, zinekluba eta beste egingo dituzte gaurtik

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Apirila liburuaren hilabetea da. Hilaren 2an, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotegunean, Haur Liburuaren Eguna ospatzen da; eta gaur, hilak 23, Liburuaren eta Idazle Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna ospatzen da. Gaurko egunez hil ziren Miguel de Cervantes eta William Shakespeare idazleak.

Hori horrela, Oñatiko udal liburutegietan askotariko ekintzak egingo dituzte, liburuek gure egunerokotasunean duten garrantzia azpimarratzeko.


*Adur, Adur, ez naiz hire beldur* poesia aretoko sukaldea. | GALTZAGORRI

**Beldurrari aurre egiteko**

Aste osoan zehar, gaurtik domekara arte, Juan Kruz Igerabideren *Jonas eta hozkailu beldurtia* liburuan oinarritutako *Adur, Adur, ez naiz hire beldur* poesia aretoa ipiniko du Galtzagorri elkarteak. Haurrek beldurrari aurre egiteko literaturak eskaintzen dituen tresnak erakutsiko dituzte.

Poesia aretoa zabalik egongo da gaurtik egubakoitzera arte, goizez.

Bestalde, Pako Aristi idazleak hitzaldia egingo du bihar, martitzena, 19:00etan, kultura etxean. *Euskal Herria: errealitatea eta utopia* delako liburuan oinarritutako hitzaldia egingo du. Aristirenekin batera, Azurmendiren, Currinen, Zulaikaren eta Ibarretxeren gogoetak batu zituen liburua izango du hizpide. "Proposamen ausartak eta meditazio sakonak eskaintzen dituzte, nork bere ikuspegitik", diote. Pako Aristik alderdikraziaren kontrako salaketa egingo du, eta independentzia lortzeko estrategia eraginkor eta berehalako bat eskatuko du.

**Pena-kentzaileak egiteko**

Eguaztenean, hilaren 25ean, tailerra egingo dute, haur liburutegian, 17:30ean. Hasteko, Anthony Browneren *Kezkamuxelak* ipuina kontatuko diete 6, 7, eta 8 urteko neska-mutikoei. Ondoren, parte -hartzaile bakoitzak pena-kentzaile bana egingo du, kolore ezberdinetako oihalak, zotzak eta hariak erabiliz.

Azkenik, eguenean, hilaren 26an, zineklub emanaldian, *Jane Eyre* pelikula emango dute (20:00). Umezurtz-etxe batean hezi eta haurtzaro gogorra izan duen neskato baten istorioa kontatzen du pelikulak.

**Bildumatik erretiratutakoak**

Bestalde, Liburuaren Astea aprobetxatuz, Udal Liburutegiak bildumatik erretiratutako liburuak, eta errepikatutakoak ipiniko ditu bazkideen eskura.

# Urko Egañak egindako '11 kantatzeko' DVDa

M.B. | OÑATI

Oñatin bizi den Urko Egañak egindako *11 kantatzeko* DVDaren aurkezpena egingo dute bihar, martitzena, Koldo Mitxelenan 12:00etan. Liburuan parte hartu dute Leire Derteano oñatiarrak marrazkiak egiten, Olatz Amozarrain arrasatearrak musika ikuskatzaile lanetan, eta Antton Iztueta eta Oskar Estangak. Gainera, Iñaki Olalde eta Ezozi Soba oñatiarren kolaborazioa izan du Egañak. "Bertsolaritza eta literaturaren arteko zubi bat egitea" izan da helburua, eta bi urteko lanaren ondoren, "11 ipuin beste horrenbeste bertso-sortatan bilakatu" dituzte.



DVDaren portada. | GOIENA

# Garay enpresak kaleratutako lau langileak lanera itzuliko dira

M.B. | OÑATI

Hijos de Juan de Garay enpresak kaleratutako lau langileak lanera itzuliko dira uda baino lehen. Hala proposatu dio enpresak Langileen Batzordeari, eta langileek aho batez onartu dute proposamena. "Pozik gaude lortutakoarekin. Gainera agindu digute lana dagoen artean ez dutela beste inor kaleratuko", esan digu langileen batzordeko presidente Mikel Oleak.

Dena den, enpresak egindako proposamenean beste puntu batzuk ere jasotzen dira: kalean dauden lau langileei antzinatasuna mantenduko zaie, eta hiru urteko lan jarduna egiten dutenean, finko izaera izango dute.

**Protesta ekitaldiak**

Haserre agertu ziren hilaren 13an Garay enpresako Langileen Batzordeko ordezkariek egindako agerraldian. "Bidebageko kaleratzeak" zirela salatu zuten, eta "arazoa konpontzeko borrokatuko" zirela. Batzordeko kideek elkarretaratzeak egin zituzten, eta arazoa konpondu ezean greba egiteko prest zeudela esan zuten. Bada, arazoa konpondu dute. "Langileen aldetik bultzada izugarria jaso dugu", diote.


San Martin 6, 7 eta 8 bebarruak egiten dihardute. | MIREIA BIKUÑA

# 137 eskatzaileren artean banatzeko 39 etxebizitza

## San Martingo etxeen zozketa hilaren 25ean egingo dute, kultura etxeko zinema-aretoan

M.B. | OÑATI

San Martin auzoa 6, 7 eta 8 bebarrutan egiten diharduten babes ofizialeko etxeen zozketa, etzi, eguaztena egingo dute kultura etxeko zinema-aretoan. 18:30ean hasiko den zozketan 39 etxebizitza banatuko dituzte behin betiko zerrendan jasotako 137 eskatzaileren artean.

Behin betiko zerrenda ikusgai dago oraindik ere Udaletxeko iragarki taulan, *www.oinati.eu* atarian eta Santa Ana aretoko beiratean. Zerrenda horrekin egingo dute etziko zozketa.

**Bi logelako etxeak**

Zozketa lau kupotan banatuko dute: elbarrituak, familia ugariak, bi logelakoak eta kupo orokorra. Mugikortasun arazoak dituztenendako bi etxe daude eta eskatzaile bakarra; familia ugariendako bi etxe eta bi eskatzaile; bi logelako etxea gura dute 29 eskatzaileren artean sei etxe banatuko dituzte; eta kupo orokorrean 29. Bi logelako etxeen zozketan etxe barik geratzen direnak, kupo orokorrean sartuko dituzte.

Etzi egingo duten zozketak duen berezitasunetako, lehen aldiz, bi logelako etxeen eskatzaileekin kupo bat egin izana da. 29 lagunek eman zuten izena halako etxe bat lortzeko.

**Baldintzak**

San Martinen egiten diharduten 39 etxeen zozketan parte hartu ahal izango dute 2011ko abenduaren 1a baino lehen Etxebiden izena emanda eta Oñatin bi urte lehenagotik erroldatuta daudenak. Dena den, mugikortasun arazoak dituzten pertsonek ez dute erroldaren baldintza derrigorrez bete behar, baina oñatiarrek izango dute lehentasuna.

### Uemaren gainekoak azaltzeko batzar irekia egingo dute herritarrekin eguaztenean, 19:00etan

Ueman (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) sartzeko prozesuaren nondik norakoak eta orain arte emandako pausuak azalduko dituzte herritarren aurrean, hilaren 25ean, 19:00etan, euskaltegian. Udal euskara zerbitzuko eta Uemako teknikariek parte egongo dira. Oñatiko Udalak 15.000 euro gorde ditu 2012ko aurrekontuetan Uemako kide izateko prozesua martxan ipintzeko.

### Boluntarioak behar dituzte Oñatiko Txolartea taldearekin zapatuetan lan egiteko

Adimen urritasuna duten pertsonen aisialdia antolatzen duen Atzegi elkarteak, boluntarioak behar ditu Oñatiko Txolartea taldekoekin lan egiteko. Zapatuetan elkartzen dira Bidebarrietako lokalean 17:00etatik 20:00etara arte. Interesatuek 943 42 39 42 telefonora deitu behar dute. Martxoaren 24an hasi zuen ibilbide berria Oñatiko Txolarteak. Oraingoz 10 lagun elkartzen dira zapatuetan.

### Txiki-Txoko haurreskolak ate irekiak egingo ditu eguaztenean, 18:00etatik 20:00etara

Olakua auzoan dagoen Txiki-Txoko haurreskolak ate irekiak egingo ditu hilaren 25ean 18:00etatik 20:00etara arte. Informazio gehiago gura dutenek 943 71 64 05 telefonora deitu ahal izango dute eskola orduetan. Egun horretan haurreskolako gelak eta jangela ikusteko aukera izango dute umeek eta gurasoek. Bestalde, maiatzaren 2tik 11ra matrikulazio kanpaina hasiko dute 0-2 urte arteko umeendako.

ESKORIATZA

# Uztailean hasi gura dituzte Zaldibar antzokiko lanak

▶ Egueneko osoko bilkuran proiektua eta baldintzen plegua onartu zituzten

▶ Urte amaierarako obra horiek amaituta egotea espero du Udalak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Bildu, Elizateak eta PSE taldetako udal ordezkarien oniritziarekin eta Ezker Anitzakoaren kontrako botoarekin onartu zituzten eguenean Zaldibar antzokia egokitzeko bigarren faseko proiektua eta kontratazio espedienteari hasiera emateko erabakia. Beñat Herce alkateak ekaineko osoko bilkuran gura du horren gaineko esleipena egitea; hori horrela izanda, uztailean lan egiten hasiko lirateke, eta urte amaierarako bigarren faseko obrak amaituta.

Eguenean onartutako proiektuak eraikineko barruko azalera egokitzea aurreikusten du. Hain justu, zoruarekin amaituko dute eta argia, ura eta bestelako instalazioak sartuko dira. Horretarako, 580.000 euroko aurrekontua aurreikusi dute. Deialdia egin ostean, eskaerak jasoko dituzte, eta arkitektoak eskatuta, obraren ezaugarri bereziak bermatuko dituen hainbat enpresei gonbidapena bidaliko zaie maiatzean, proposamena aurkeztu dezaten. Jarraian, horiek aztertuko dituzte hainbat faktore kontuan izanda: ekonomikoa, proiektuaren bermea, enplegua eta hobekuntzak. Hortik irtengo da esleipena lortuko duen enpresa.



Antzokiko barrualdea egokituko dute oraingoan. | TXOMIN MADINA

### Elizak OHZ ordaintzea

Osoko bilkura berean, Ezker Anitzak erlijioei Ogasun Higiezinen Zergaren (OHZ) salbuespena kentzeko aurkeztutako mozioaz eztabaidatu egin zuen udalbatzak. Bozkatzerakoan adostasuna ez zen erabatekoa izan, eta zinegotzi bakoitzak pertsonalki bozkatu zuen: Mozioak Beñat Herce eta Jose Angel Petralanda (Bildu), Jose Luis Cantero (PSE-EE) eta Juan Luis Merinoren (Ezker Anitza) aldeko botoa jaso zuen; Arantza Iregi eta Jose Mari Herceren (Bildu) kontrakoa; eta Itziar Martinez (Bildu), eta Iñaki Madinabeitia eta Iker Akizuren (Elizateak) abstentzioa.

Mozioak lau proposamen ditu. Batetik, Udalak Espainiako Gobernuari eta Batzar Nagusiei eskatzen die Toki Ogasunen Legetik eta Ondasun Higiezinen Zerga arautzen duen Foru Arautik esandako zergaren salbuespena kentzea eliza katolikoari eta gainerako erlijioei. Bigarrenik, eliza katolikoaren eta beste erlijio eta horien kideko erakundeen eta elkarteen izenean Eskoriatzan erroldatuta eta erregistratuta dauden hiri eta landa ondasun higiezinen errolda egitea onartu zen.

Hirugarrenik, Espainiako Estatuak Vatikanoarekin dituen hitzarmenak, bereziki gai ekonomikoenak, indargabetzeko eskatzen dio Espainiako legebiltzarrari. Aldi berean, eliza katolikoa autofinantzatzera behartzea proposatzen du, eta horrenbestez, errenta-aitorpenenetik eliza katolikoari laguntza emateko laukitxoa kentzea. Azkenik, eliza katolikoak eta beste hainbat erakunde juridikok OHZren eta beste hainbat zergetan salbuespenak izan ez ditzaten, legeetan dagozkion aldaketak egitea eskatu die Gorte Nagusiei.

ESKORIATZA

## Magia saioa egingo dute bihar zaharren egoitzan

M.B. | ESKORIATZA

Egubakoitzeko liburuak trukatzeko azokaren ondotik, datozen egunotan ere askotariko ekintzak egingo dituzte, *Kataia eten barik* egitarauaren harira. Bihar, martitzena, generazio arteko trukea izango da zaharren egoitzan: han bizi direnekin batera, magia ikuskizuna egingo du Angel magoak, 17:30etan. Eguenean, ostera, ipuin kontaketa eskainiko du Peio Añorga kontalariak liburutegian, 18:00etan.

Horrez gainera, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, bestelako ekintzak gertatu dituzte. Gaur umeendako ipuin kontaketa dago liburutegian, 18:00etan, Almeneko DBH 2. mailako ikasleek gertatutakoa. Bestetik, bihartik eguenera bitartean, Almeneko DBH 4. mailako ikasleek egindako ikus-entzunezko muntaia poetikoa ikusteko aukera izango da toki berean, 16:30etik 20:00etara.

Azkenik, etzi, eguaztena, gaztelaniaz eta ingelesez eginiko irakurketa emanaldia egingo dute 18:00etan, Charles Dickensen jaiotzaren II. mendeurrena dela-eta.

ARETXABALETA



Erretiratuen taberna. | MIRARI ALTUBE

## Egubakoitzera arte aurkez daiteke Basotxoko taberna kudeatzeko

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Basotxo erretiratuen egoitzako tabernaren kudeaketa kontratatzeko deialdia egin dute, eta egubakoitzera arte, hilak 27, aurkeztu daitezke horretarako eskaintzak. Udaleko erregistrora eroan behar dira, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara.

Baldintza pleguan aurreikusten da tabernako argindarra, ura eta bestelako gastu arruntak Udalaren eta ardura hartzen duenaren artean %50era izango dela, eta behin betiko bermea 600 eurokoa. Horren gaineko informazio gehiago gura duenak joan den apirilaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontsulta dezake.

## Kalean dira kultura proiektuen gaineko dirulaguntzen oinarriak

M.B. | ARRASATE

Dagoeneko argitaratu dituzte aurten Aretxabaletako irabazi asmorik gabeko kultura erakundeei beraien kultura proiektuen eta urteko programen garapena finantzatzera zuzendutako dirulaguntzen gaineko oinarriak. Esleitutako zenbatekoa 17.000 eurokoa da.

Eskariak abenduaren 15a baino lehen aurkeztuko dira Udaleko Kultura Departamenduan, oinarrietan ageri diren eskari-orrietan eta dagokion dokumentazioarekin. Udalak honako irizpideak izango ditu kontuan eskariak baloratzekoan: proposatutako programaren ezaugarriak, erakundearen irmotasuna eta ezaugarriak eta erakundearen finantza baliabideak.

### Grabazioak

Bestalde, grabazioak egiteko masterrak eta beste produkzio kulturaletarako eta partikularrendako eta herriko taldeendako dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarriak kaleratu dituzte, eta azaroaren 30era arte eska daitezke. Dirulaguntza bien gaineko informazioa apirilaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dago.

## 'Bookcrossing', liburu truke azoka eta irakurketa maratoia daude egunotan

M.B. | ARETXABALETA

*Bookcrossing* edo liburuak askatu ekimena egingo dute Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek. Herriko liburutegiarekin batera antolatutako ekimena da eta Aste Santuko opor egunetan irakurri dituzte liburuak. Gaur, astelehena, *Bookcrossing* ekimena zer den azalduko diete liburutegikoek ikasleei, eta jarraian, liburuak askatuko dituzte herrian. Bi eratara egingo dute: ezagun bati emanda, edo zuzenean herriko txoko batean utzita.

Gainera, gaurtik egubakoitzera, liburu eta disko truke azoka egingo dute Durana kalean, 16:00etatik 20:00etara; irakurketa maratoia ere egingo dute gaur Duranan, 18:00etatik 19:30era.

## Batzarra dago bihar Mundumira antolatzeko

M.B. | ESKORIATZA

Maiatzaren 18tik 20ra egingo den Mundumira jaialdia antolatzeko laguntza behar dute, eta Eskoriatzako Udaleko Kultura batzordeak dei egin die egun horietan borondatez txandaka laguntzeko gertu dauden eskoriatzarrei. Prest daudenak bihar, martitzena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo den batzarrera joan daitezke, 19:00etan. Parte hartzeko gertu egon, baina, bilerara joan ezin direnak kultura etxearekin harremanetan jarri daitezkeela jakinarazi dute, 943 71 46 88 telefono zenbakian edo *kultura@eskoriatza.net* helbide elektronikoan.

## OHARRAK

### JAIETARAKO BATZARRA

Eguenerako, Andramaixak gertatzen hasteko batzarra deitu du Kultura Sailak. Arkupeko 2. solairuan, 18:00etan. Edonork har dezake parte.

### KIROLDEGIAREN KUDEAKETA

Bihar, martitzena, egingo duten ezohiko osoko bilkuran, besteak beste, kiroldegiaren kudeapena esleituko dute. 18:00etan hasiko da batzarra.

## OHARRAK

### XABIER ITURBE BATZOKIAN

Kutxabankeko presidenteorde Xabier Iturbek krisiari buruzko hitzaldia eskainiko du astelehenean, apirilak 23, herriko batzokian. 19:00etan hasiko da berbaldia.



Memoria tailerrean parte hartu duten aramaioarrak, bat izan ezik. | CRISTINA ETXENAUSIA

ARAMAIO

# Eguneko zentroko memoria tailerrarekin oso pozik arduradunak eta ikasleak

Arlo kognitiboa hobetzen eta gorputz-jarrera desegokiak zuzentzen ikasi dute Lurgorri zentroan, hilabete baino gehiago iraun duen ikastaroan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Lurgorri Eguneko zentroan lehenengoz egin duten 60 urtetik gorako pertsonei zuzendutako memoria tailerra joan den egunean amaitu zuten. Hamar pertsonek hartu dute parte, aramaioarrak guztiak, eta bederatzi saio egin dira guztira. Hilabete baino gehiago iraun du –astean bi orduko saio bi–, Aste Santua tartean izanagatik eragindako atzerapena kontuan hartuta.

Tailerrean bi arlo landu dira: arlo kognitiboa eta gorputz-jarrerak zuzentzeko arloa. Lehenengo arloan ariketa ezberdinen bidez arreta, lengoaia, kalkulua eta oroimena landu dira, besteak beste. Oroimena hobetzen lagun ditzaketen hainbat teknika ere ezagutu dituzte. Arlo kognitiboaren helburua izan da garuna zaintzearen garrantzia azpimarratzea. Bigarren arloan, bestalde, denboraren poderioz garunak gorputzaren postura desegoki batzuk ontzat nola hartzen dituen ikusteko aukera izan dute, modu praktiko eta pertsonalizatu batean. Izan ere, askotan, bizkarreko, lepoko eta besoko minak eguneroko hartzen ditugun gorputz-jarrera txarren ondorio dira.

Bada, tailerrean jarrera desegokiak zuzentzen ikasi dute eta era berean, ohitura onak berreskuratzeko jarraibide batzuk eskaini dituzte. Gainera, osasunerako egokiak diren ohiturak ere ikusi dituzte.

### "Erantzuna oso ona izan da"

Karmele Barrutia Lurgorri Eguneko zentroko ordezkariaren arabera, parte hartzaileen erantzuna "oso ona" izan da: "Asko inplikatu dira, asistentzia oso altua izan da eta jorratu diren gaien gainean euren kezkak azaldu dizkigute". Udalarekin batera gauzatutako lehen esperientzia izan da eta Barrutiaren arabera, oso balorazio ona egiten dute: "Beste ekimen batzuk antolatzeko aukera badagoela erakutsi digu, baina beti ere Udalarekin elkarlanean egingo dugu".

### "Oso gustura ibili gara"

Ikastaroa jaso dutenen iritzia ere jaso gura izan dugu. Argi Ormaetxearen arabera "oso gustura" ibili dira: "Ikastaroa oso ondo egon da, oso irakasle onak izan ditugu. Asko ikasi dugu, egunerokoan erabilgarriak diren hainbat kontu. Hasi dugun guztiok amaitu dugu. Gure adineko jendeari gomendatzekoa da, erabat".

ANTZUOLA

# Uztaileko udalekuetan izena emateko epea zabalik dago

Apirilaren 27ra arte, egubakoitzera arte, dago udalekuetan izena emateko epea zabalik

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Uztailaren 2tik 12ra bitartean izango dira aurtengo udalekuak, goizez –09:30etik 13:00era–. 5 urteko haurren gelakoetatik seigarren mailara artekoek eman ahal izango dute izena; apirilaren 27an itxiko da epea. Prezioa 40 euro da; eta 28 euro, familia ugarien kasuan.

Izena emateko, izen-emate orria beteta (*www.antzuola.com* udal webgunean bete daiteke eskaera orria) eta ordainketa agiriaz udaletxera jo beharko da –izen-ematea ez da kontuan hartuko, ordainketa agiri barik.

Diru sarrera ondorengo konturen batean egin daiteke: Kutxan: 2101-0023-56-0000089045 edo Euskadiko Kutxako kontu korrontean: 3035-0040-13-0400900009.

### Jaiak antolatzeko bilera

Gaur, 18:30ean, udaletxeko batzordе gelan egingo da bilera irekia. Nahi duten guztiek dute bertan parte hartzeko aukera.

### Ipuin tailerra

Lizarraga auzoko Laskurain Haundi baserrian egingo du ipuin tailerra Oihulari Clownek. Hasiera batean domekan egitekoak ziren, baina maiatzaren 6ra atzeratu dute ikastaroa. Izena emateko 943 76 97 90 telefonora dei daiteke edo *oihulariklown@oihulariklown.org* helbidera idatzi.

ELGETA

# Maria Elena Eztenagak plazara aterako ditu liburuak arratsaldean

Udalak, bestalde, zaharberritu dituen herriko dokumentu historikoak ipiniko ditu ikusgai

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Liburuaren Nazioarteko Eguna den honetan, Maria Elena Eztenaga udal liburuzainak Herriko Plazan ipiniko du gaur bere mahaia. Urte osoan herritarrek liburutegira igo behar izaten dute liburu bila, baina gaur ez: liburuak *jaitsiko* dira Herriko Plazara.

Eztenaga plazan izango da 16:00etarako, eta, bertan, liburutegira iritsi diren azken nobedadeak erakutsiko ditu. Liburuak oparituko dituela ere adierazi du: "Liburuaren Eguna aprobetxatzen dut liburutegian garbiketa moduko bat egiteko. Iristen diren liburu berriei tokia egin behar izaten zaie, eta dagoeneko irakurrita ditugunak opari ematen ditut. Aurten ere badauzkat batzuk", adierazi du. Ez da, baina, Liburuaren Egunaren ildora liburutegian egingo den ekintza bakarra: eguenean, 30 bat neska-mutikok entzun zuten Izaskun Muxika ipuin kontalariak egindako saioa.

### Hiri Gutuna ikusgai

Udalak, bestalde, zaharberrituak izan diren Udal Artxiboko zenbait dokumentu historiko erakutsiko ditu gaur. Eztenagak ipiniko duen mahaiaren ondoan erakusleiho bat egongo da. Bertan, Elgetako Hiri Gutuna, antzinako osoko bilkuren akta liburuak eta material fotografiko ugari egongo dira ikusgai.



Maria Elena Eztenaga udal liburuzaina, plazan ipintzen duen postuan. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

# Auzo egurra eskatzeko epea zabaldu du Udalak

Maiatzaren 11 arte dute gatzagarrek eskaera egiteko aukera; udaletxera jo behar da

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Onura publikoko mendietako zuhaitzetatik ateratako egurra eskatzeko epea zabalik dagoela iragarri du Udalak egunotan. Maiatzaren 11 izango da eskaera egiteko azken eguna, eta udaletxera jo behar dute interesatuek (943 71 47 46).

Orain arte udazkenean zabaldu izan du Udalak izena emateko epe hori eta zozketa egin gero eskaera egindakoen artean egur loteak izendatzeko. Aurten, baina, aurreratzea erabaki du lanak denboraz egin eta hobeto antolatzeko asmoarekin. Izena orain eman arren zozketa udazkenean izango dela jakinarazi dute, urri inguruan, eta orduan ezagutaraziko diote eskaera egindako herritar bakoitzari zein gunetatik hartu beharko duen egurra.

### Gatzagarrendako egurra

Egur hori eskatzeko gutxienez urtebetez herrian erroldatuta egon behar dute interesatuek, eta derrigorrez herrian bertan erabiltzeko izango da jasotakoa.

Aldundiko basozainek erabakitzen dute urtero zein gunetako egurra har dezaketen eskatzaileek, basoaren beharren arabera; loteak esaten diete horiei. Izena emandakoen kopuruaren arabera egiten dituzte loteak, eta Udalak erabaki du aurten denboraz jakin gura duela zenbat lote gertatu beharko dituzten basozainek. Hala, lanak hobeto antolatu ahal izango dituzte.

Behin lotea emandakoan eskatzaile bakoitza arduratuko da egurra txikitu, jaso eta basotik etxera ekartzeaz.

# APIRILEKO SARIEN IRABAZLEAK

**Koloore kamisetak eta izerdi-jertsea**
- **Jabier Agirre Irasuegi** (Aretxabaleta)
- **Nagore Eguren Moraza** (Bergara)
- **Maite Arana Osinaga** (Arrasate)
- **Ainhoa Velez Azkarretazabal** (Aretxabaleta)
- **Gaizka Eraña Arana** (Arrasate)

**Danbakako kamiseta**
- **Oskar Elizburu Egiazu** (Arrasate)

**Umeentzako ipuinak**
- **Iradi Belategi Fernandez** (Arrasate)

**Umeentzako puzzleak**
- **Aritz Auzmendi Zufiria** (Arrasate)

**Skunkfunk-eko kamiseta eta poltsa**
- **Irune Agiriano Biain** (Arrasate)

# ASTE HONETAKO ESKEINTZAK

## MAGIA

**Espaloiko MAGIA MOSTRA ikusteko sarrerak.**
Elgetako Espaloia kafe antzokian.
Maiatzaren 4an, 22.30ean.

Bidali KLUBA MAGIA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



## DANTZA

**ELRALE taldearen OTTO dantza emanaldirako sarrerak.**
Arrasateko Amaia antzokian. Apirilak 29an.
Gonbidapen bikoitza.
1-6 urte bitartekoentzat.

Bidali KLUBA DANTZA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



## KONTZERTUA

**MATXURA eta HERSTURA taldeen kontzerturako sarrerak.**
Oñatiko gaztelekuan.
Apirilaren 28an, 22.00etan.
Gonbidapen bikoitza.

Bidali KLUBA KONTZERTUA
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
SMS bidez.

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Urteko kuota: **50 €.** | Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com*

**goienakluba"**
Abantailaz betetako kluba!

## Atera etekina

goienakluba" 2012

**%15eko deskontua**

LILURA Edertze Institutua
Bergara, 943 76 31 71

- **%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).**
- %20 elikagai-intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

Bazkidearentzat eta lagunarentzat.

## LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAI

**AQUARIUM**
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

**AVIA MECA**
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

**ARGIA**
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

**BEGIONDO**
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21

**EUREKA!**
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

**ESKO SPORT**
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

**GAHIR**
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

**GAES**
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

**GUZTIZ EDER**
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

**IKER SUKALDEAK**
**IKER**
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

**IZENADUBA BASOA**
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

**JAIXAK**
denda
Bergara, 943 76 31 45

**LASTAI**
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

**MULTIOPTICAS**
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

**NAREN**
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

**RENAULT AUTOBERRI**
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

**TXURI URDIN**
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

# KIROLA

ALOÑAKO IGOERA

# Errekorra gaindituta, Ionut Zinca izan zen azkarrena atzo

▸ Europa mailako zirkuituan sartu da proba aurten

▸ Nerea Amilibia izan zen emakumeetan lehena



Zinca eta Amilibia, sari banaketa, xanpainarekin ospatzen. | JON BEREZIBAR

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Aurten berriz ere agerian geratu da Oñatiko proban egon den maila altua baina faboritoen kinielak ez dira bete. 2009az geroztik errekorraren jabe izan den Walter Becerrak podiumeko lehen postua Ionut Zinca errumaniar gazteari utzi behar izan dio hamabost kilometro eta erdiko proban. Podiuma bai eta baita errekorra ere, 1:11:34 denbora eginda harena baita Aloñako Igoerako marka berria, orokorra eta baita igoerakoa ere. Becerra, proba honetan hiru aldiz txapeldun izan dena, bigarren iritsi zen helmugara eta Agustí Roc hiru aldiz munduko mendi-lasterketa txapelduna hirugarren iritsi zen Oñatiko plazara. Izan ere, goi mailako atleten partaidetza handia izan da, ez baita alperrik sartu Aloñako Igoera nazioarteko Mountain Running Cup delako txapelketan. Emakumezkoen porran Azara García de los Salmones zen apustua baina hari Nerea Amilibia aiarrak hartu zion ia minutu bateko aurrea, 1:32:39 denbora eginez.

**DATUA**

**185**

LASTERKARI

Horietxek amaitu dute aurtengo lasterketa eta debagoiendarrak 77 izan dira. Iaz baino txikiagoa izan da parte-hartzea.

### Debagoiendarrak

Debagoiendarretan lehena Joseba Molinero izan zen atzoko proban 1:21:54 denborarekin eta haren atzetik Iñaki Uribe-Etxebarria eskoriatzarra iritsi zen, oso gutxira, 1:22:49 denbora eginda. Joxe Mendiola izan zen hirugarren debagoiendarra, oñatiarra bera ere, 1:24:14 denboran. Emakumezkoetan ere oñatiarrak nagusi Leire Altube lehena iritsita (1:40:24), bigarren Ana Isabel Urmeneta (1:54:08) eta hirugarrena, Eskoriatzatik, Marije Zubizarreta (2:03:26). Beteranoei dagokienez, gizonezkoetan Joxe Mendiola oñatiarra izan zen lehena, hamaikaigarrena helmugan eta 1:24:14 denbora eginda. Emakumezkoei dagokienez, Nerea Amilibia izan zen lehena.

Berezitasunen artean aurten nabarmentzeko da Aloñako Igoera aipatutako Mountain Running Cup delako lasterketan sartu dela lehen aldiz. Apirilaren 14ean hasi zen Ingalaterran eta irailera arte izango dira probak Grezia, Eslovenia ala Italian, besteak beste. "Europa mailako zirkuitu batean sartuta, aurten erantzukizuna handiagoa zen" dio Iban Isasti, antolakuntzakoak, baina lasterketakoek esan omen diete "oso gustura geratu" direla. Oñatikoa Euskal Herriko proba bakarra izango da.

Parapente probari dagokionez, haizea gora-behera, egin ahal izan zuten proba eta Belarretik atera ziren atzo.

### Jazinto Larralde, omendua

Beteranoen artean beteranoenak omenaldia jaso zuen gainera atzokoan. 81 urteko Jazinto Larraldek herritar eta kirolzaleen mirespena jaso zuen atzo. Podiumean igota eta hunkituta esan zuen "Oñatin makina bat ibilbide eder" daudela eta "erretiratu guztiei" dei egin zien etxetik atera eta ibiltzen hasteko. Zeharkaldi, mendi ibilaldi eta baita ultratrail probak bizitza guztian zehar egin izan ditu Larraldek eta behin jubilatuta egonda ere ez dio kirola egiteari utzi. 81 urterekin ere sasoi ederrean jaso zituen herritarren txaloak.



Jazinto Larralde, oroigarriarekin. | JON BEREZIBAR



**NEREA AMILIBIA**
IRABAZLEA

"Hasieran ez nuen uste harrapatuko nituela baina beherako bidean hartu dut aurrea nik. Alabari dedikatu nahi diot txapel hau, hark esan baitit ehun lortu arte ezingo naizela erretiratu. Laurogeigarrena da hau".



**IONUT ALIN ZINCA**
IRABAZLEA

"Aurreko astean Ingalaterran hasi zen Mountain Running txapelketako lehen proban egon nintzen eta gaur denboraldiko lehen garaipenaren bila etorri naiz. Banekien, hasieratik ihes egitea ezinbestekoa dela".



**IBAN ISASTI**
ANTOLAKUNTZA

"Oso gustura gaude ze azken asteetan bota duen euria ikusita beldur ginen. Haizearengatik ere arduratuta geunden baina parapentean ibiltzeko ere ez da arazorik egon. Zauritu pare bat besterik ez da egon".



**JOSEBA MOLINERO**
LEHEN OÑATIARRA

**LEIRE ALTUBE**
LEHEN OÑATIARRA

"Pozik" amaitu zuten biek lasterketa baina Molinerok dio aurten "luzetxoagoa izan dela nabaritu" duela eta Altubek, berak ezetz. "Eguraldiarekin okerrena espero genuen baina azkenean egun polita izan da". Molinerok dio, halere, igoeran lokatzarekin zailagoa egin zitzaiola.

**FUTBOLA** | Aloñak erraz irabazi | **24**





Lehen parapentelaria. | JOSETXO ARANTZABAL


Lasterkariak, Aloñako azken aldatsean. | ANDER MONEDERO

## SAILKAPENA MAILAKA

**GIZONEZKOAK**
1. Ionut Alin Zinca
2. Walter Becerra
3. Agustí Roc

**EMAKUMEZKOAK**
1. Nerea Amilibia
2. Azara García de l. Salmones
3. Montse Vázquez

**GIZ. BETERANOAK**
1. Joxe Mendiola
2. José Luis Barrena
3. Josean Larrea

**EMA. BETERANOAK**
1. Nerea Amilibia
2. Merche Palacios
3. Ana Isabel Urmeneta

**DEBAGOIENDARRAK**
1. Joseba Molinero
2. Iñaki Uribe-Etxebarria
3. Joxe Mendiola

BIARK STUDIO arkitektoak
Komunitateak Fatxaden isolamendua Erreformak Igogailuak

Etxebizitzak Lokalak Baserriak
Aholkularitza eta laguntza tramitazioan: aukera tekniko desberdinen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisia, obra zuzendaritza....
Eskatu zure aurrekontua konpromisorik gabe
www.biark.net
Usaetxe plaza 1, behea, Arrasate - Tel.: 943 79 80 33 - e-maila: biark@arquired.es

OHOREZKO ERREGIONALA

# Gol festa Azkoagainen, erraztasunak eman zituen Trintxerperen aurrean

- Goitik zein azpitik nagusi izan zen Aloña eta partidu erosoa izan zen
- Atzoko hiru puntuekin hamar puntura utzi dituzte jaitsiera postuak

**EMAITZA**

ALOÑA
**5-1**
TRINTXERPE

**FITXA TEKNIKOA**

**Aloña Mendi:** Aginagalde, Ruiz (Moreno 77.min), Agirre (Bengoa 73. min), Idigoras (Lizarra 77.min), Garmendia, Palacios, Ugarte (Agirre 80.min), Urkia, Zubia, Zelaia (Bikuña 45.min) eta Olalde.

**Trintxerpe:** Diez, Kheirredine, Zugarramurdi, Arregi (Faria 65.min), Cachafeiro, Ormaetxea (Madariaga 45.min), Celihueta, Lizarza (Etxauri 69.min), Sarriegi (Cabero 56.min), Hipolito (Santiago 65.min) eta Casillas.



Sekulako partidua egin zuen atzo Asier Ugartek. Irudian, baloia eramateko aurkari batekin lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

**JOKIN BEREZIARTUA** | OÑATI

Gol festa izan genuen atzo Azkoagainen. Gehiago izan ziren Andoni Azkargortaren mutilak baina esan beharra dago Trintxerpek –kanpokoen aulkian Josu Zubia Aloñako entrenatzaile ohia egon zen– erraztasun handiak eman zituela. Atzealdean hainbat akats egin zituzten eta Aloñak ondo baino hobeto aprobetxatu zuen hori. Behin baino gehiagotan Aloñakoek geldiko baloiak azkar atera eta ustekabean harrapatu zituzten Trintxerpeko defentsak. Tarteka intentsitate falta nabaria erakutsi zuten Zubiaren mutilek eta horrek asko erraztu zizkien gauzak etxekoei. Izan ere, oñatiarren ia gol guztiak kanpokoen akatsetatik etorri ziren.

### Lehen zatian joko gutxi

Lehen gola Aritz Garmendiak egin zuen 8. minutuan, azkar ateratako hegaleko sake baten ostean baloia burukada eder batekin gurutzatuz. Lehen zatian ez zen joko larregi egon eta goiko baloiak izan ziren nagusi. Goitik ere. Aloña hobeto. 23. minutuan, baina, kanpokoen jaurtiketa batek sarean amaitu arren penaltia adierazi zuen epaileak, baloiak defentsa baten eskuan jo zuelako. Kanpokoek ez zuten erabakia ulertu eta gainera, penaltia ez zuten asmatu. Bada, 1-1koa izan behar zena 2-0koa bihurtu zen lehen zatiko azken jokaldian: korner jaurtiketa baten Mikel Palaciosek gola egin zuen.

Bigarren zatia hasi eta berehala 2-1koa egin zuten kanpokoen kapitainak: defentsaren aldaratze bat ederto amaitu zuen, baloia eskuadratik sareratuz. Hala ere, Aloñak oso gutxira zapuztu zituen Zubiaren mutilen esperantzak, hiru minutura 3-1koa jarri zuen -eta Asier Ugartek, kontraeraso bat ederto amaitu ostean. Hor amaitu zen partidua eta hirugarren goletik aurrea oso eroso jokatu zuen Aloñak. Trintxerpek aurrealdean jokalari onak eta azkarrak dituela argi utzi zuen, eta izan zuten golen bat egiteko aukera. Hala ere, talde moduan zer hobetu baduela erakutsi zuen, atzokoan behintzat.

4-1koa ere Ugartek egin zuen. Partidu ederra egin zuen oñatiarrak. Golez haratago, lan ederra egin zuen eta baloiarekin aurkari bat gehiago zoratu zuen. Zelai erditik egindako jaurtiketa sartzea falta izan zitzaion bakarrik. Azkenik, 5-1ekoa Unai Bikuñak egin zuen, korner baten.

### Jaitsiera postuak urrun daude

Atzoko garaipenarekin Azkargortaren mutilek ia behin betiko aurrerapausoa eman dute datorren urtean ere Aloña Ohorezko Erregional mailan egon dadin. Matematikak ez dute hori bermatzen oraindik baina asko aldrebestu behar dira gauzak mailaz jaisteko –jaitsiera postuak hamar puntura daude–. Orain minutu gutxi jokatu dutenendako aukerak emateko unea da, baita datorren urterako probak egiteko ere.

**ANDONI AZKARGORTA**
ENTRENATZAILEA

## "Garaipen erosoa izan da, jokatzeko espazio asko utzi digute"



J.BEREZIARTUA

Hiru puntuak beharrezkoak ziren maila mantentzeko. **Nola ikusi duzu lehia?**
Partidu lasaia izan da. Baloiarekin eroso jokatzen irteteko espazio asko utzi digute. Lehen zatian ez dugu nagusitasun hori ondo aprobetxatu eta ez dugu oso joko ona egin. Bigarren zatian eurak gola egin arren segituan egin dugu 3-1ekoa eta hortik aurrera oso eroso jokatu dugu.
**Maila mantentzeko behin betiko urratsa, ia-ia.**
Garrantzitsua zen gaur irabaztea. Matematikoki ez bada ere esango nuke aurtengo helburua bete dugula. Denboraldia ahalik eta txukunen amaitzen saiatuko gara, datorren urtera begira sentsazio onekin amaitzeko. Eta ea bide batez Mondrari laguntzeko aukera dugun.



JOSETXO ARANTZABAL

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

## Berdinketarekin, denok pozik (1-1)

Mondrako neskek bana berdindu zuten Osasunaren aurka. Hala, Andoni Ezkurra eta Jon Zuloagaren neskek matematikoki lortu dute maila mantentzea. Lehen zatia etxekoendako izan zen, eta nagusitasun hori Lide Zubiagaren golarekin islatu zen markagailuan. Bigarren zatian, baina, Osasuna gehiago izan eta partidua berdintzea lortu zuen. Osasunak ere puntu bat nahikoa zuen maila mantentzeko.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Mondrak galdu egin du liderraren etxean, eta jaitsiera gertuago dago

Lehen zatiko 35. minutuan egindako golari esker Anaitasuna liderrak Mondra garaitu zuen zapatuan (1-0). Jon Muruamendiaratz entrenatzailearen arabera, porrota justua izan zen eta igarri zen zergatik dagoen Anaitasuna sailkapeneko lehen postuan. Hala ere, pozik zegoen taldearen lanarekin: "Lan handia egin dute eta azken minutura arte ez dute etsi; askoz gehiago ezin da eskatu". Galdu arren, aurkari zuzenek ez dute punturik lortu eta maila mantentzeko distantziak bost puntura jarraitzen du. Hori bai, aldea gainditzeko partidu bat gutxiago geratzen da.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Irunen galduta, Hirugarren Mailara igotzeko aukerak galdu ditu Aretxabaletak

Galdu egin zuen UDAk Real Unionen aurka (3-1). Markagailuan aurretik jarri ziren Juanan Cruzen mutilak, Aitor Perezek egindako golari esker. Hala ere, kontraeraso baten aurrelari irundar bat atezainaren aurrean bakarrik geratu eta ez zuen barkatu, atsedenaldiaren aurretik 1-1koa jarriz. Bigarren zatia ere nahiko ondo hasi zuten aretxabaletarrek, baina akats baten eta euren aurrelariaren abileziaren ondorioz 2-1koa heldu zen eta 3-1koa beste kontraeraso bat aprobetxatuz egin zuen etxeko taldeak. Porrotarekin agur esaten diote aretxabaletarrek bigarren postuan geratu eta Hirugarren Mailara igotzeko lehian aritzeko aukerari.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Aukerak barkatu ostean merezimenduz galdu du Bergarak Ondarroan

Bergarak 2-0 galdu zuen Aurreraren aurka. Neka Galanen mutilek ez zuten partidu ona egin eta merezimenduz galdu zuten. Ondarroakoen lehen gola estrategia jokaldi baten heldu zen; bergararren defentsak intentsitate falta erakutsi eta hori ondo baino hobeto aprobetxatu zuten etxekoek. Bergarak berdinketa lortzeko aukerak izan zituen baina ate aurrean ez ziren fin ibili. Bigarren zatian heldu zen 2-0koa; defentsaren bi aldaratze txar aprobetxatu zuen Aurrerak. Orokorrean baloiaren jabe izan ziren kanpokoak, baina nagusitasun hori ez zen markagailuan islatu.


Iker Elortza, irabazleen domina jaso eta gero, erakusten. | IÑAKI ETXEBESTE

ERREGE KOPA

# Finala irabazi egin du Ordiziak, Iker Elortza arrasatearra zelaian zela

## El Salvadorren kontrako minutu erabakiorretan jokatu zuen Elortzak

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

"Zortzi urteren ostean horrelako titulu pat irabaztea oso pozgarria da; orain ospatzea besterik ez zaigu geratzen". Horiek izan ziren Iker Elortza arrasatearrak Ordiziarekin Errege Kopako finala irabazi eta Goienari egindako aurreneko hitzak. El Salvadorren aurka oso zail jarritako partidua irabazita gustura zen Elortza, beragatik eta orain zortzi urte taldean hartu zuen klubagatik, Ordiziagatik: "Lehenengo finala eta lehenengo titulua izan da; azken urteetan gauzak ondo ari dira egiten eta lan horren fruitua da garaipen hau".

Garaipena, nahiz eta gauzak oso zail jarri zitzaizkien ordiziarrei lehenengo zatian: "Taldea oso urduri atera da; lehenbailehen egin nahi genituen jokaldiak eta oso gaizki hasi gara".

**Hasiera txarra**

3 eta 21 aurreratu ziren El Salvadorrekoak lehenengo zatian. Gaztelarrak erasoan indartsu, obalaren jabe, eta Ordizia haiek geratu ezinda. Hiru entsegu eta hiru transformazio kontra; baina atsedenaldia baino lehen iritsi zen Elortzaren taldearen lehen entsegua, eta: "Bigarren zatian taldeak sinistu egin du bere aukeretan eta erakutsi dugu zeren kapaz garen". Arrasatearraren esanetan gakoa izan zen "dinamikoago" jokatzea: "Lehenengo zatian fase estatikoetan saiatu gara min gehiago egiten. Bigarrenean jokoa gehiago zabaldu eta hortik iritsi dira aukerak".

Laugarren entsegua egin eta 27 eta 24koarekin 65. minutuan jarri ziren aurretik markagailuan, lehen aldiz, ordiziarrak; Elortzari azkeneko minutu horietan tokatu zitzaion, hain justu, jokatzea: "Partidua aulkitik jarraitzea da litekeen gauzarik okerrena; ezer ezin egina". Baina Arrasatekoak zelaian bizi izan zituen emozio handieneko uneak; zigor kolpe batekin berdindu egin zuten gaztelarrek bost minuturen faltan, eta partidua amaitzear zela Krollek gauzatutako drop batek eman zien garaipena Goierrikoei, 30 eta 27: "Oso hunkigarria izan da; ezin dut hitzez adierazi".

Elortzak bereziki eskertu nahi izan zuen zaleen babesa, baita Arrasatetik joandakoena ere.


Elortza, partiduko une batean. | IÑAKI ETXEBESTE



Etxekoekin eta lagunekin, partidu amaieran. | IÑAKI ETXEBESTE.


Amarekin garaipena ospatzen. | IÑAKI ETXEBESTE.

SENIOR MAILA

# Durangok eskuratu du lagunarteko zazpiko errugbi txapelketa

## Bi garaipenekin arrasatearrek txapelketako bigarren postua lortu zuten

**ANDER MONEDERO** | ARRASATE

Arrasateko Errugbi taldeak Garagardo egunean zazpiko errubgi txapelketa prestatzeko lagunarteko txapelketa jokatu zuen zapatuan Mojategin. Hasierako asmoa zen arrasatearrek Elorrio eta Durangoko taldeak hartzea, baina azken talde honek 20 jokalari eraman zituenez, bi taldetan banatzea erabaki zuten. Gauzak horrela, hiru talderen arteko txapelketa izan behar zena, lau taldeetakoa bilakatu zen.

Nahiz eta etxean jokatu, Igor Isasiren mutilek ezin izan zuten etxeko lagunarteko txapelketa eskuratu. Elorrio eta Durangoko lehen taldeen aurka garaipena lortu zuten, baina ezin izan zuten Durangoko bigarren taldea mendean hartu. Azkenean, talde zuri-moreak txapelketako bigarren postua lortu zuen.

Bi garaipen (Arrasate eta Durango) eta berdinketa batekin (Elorrio) Durangoko bigarren taldeak eskuratu zuen zapatuan Mojategin jokatutako txapelketa. Zapatuko txapelketan partidurik irabaztea lortu ez zuen talde bakarra Elorrioko errugbi taldea izan zen.

**Beste bi lagunarteko txapelketa**

Zapatukoa Arrasateko taldeak Garagardo eguneko txapelketa prestatzeko jokatuko duen hiru txapelketatik lehenengoa izan da. Izan ere, Mojategin jokatu zuten bi taldeek lagunarteko txapelketa bana antolatuko dute. Arrasatearren hurrengo hitzordua maiatzaren 5ean Durangoko Arripausueta zelaian izango da.


Lezamiz Durangoko bi jokalari atzean uzten. | JOSETXO ARANTZABAL

TRIATLOIA

**Aratz Losada** | Oñatiko triatloi taldeko kidea

# "Esatari moduan jarduteko norberak kirola egiteak izugarri laguntzen du"

- Distantzia luzeko triatloia egin berri du Marbellan
- Hurrengo hitzordua Bilboko triatloian izango du



Aratz Losada, Marbellako triatloiko dominaz. | A.LOSADA

**XABIER URTZELAI** | OÑATI

Galderak erantzutera baino egitera ohituago dago Aratz Losada (Oñati, 1985). Oñatiko kirolari guztiak ezagutzen dituela esanda ia-ia asmatuko genuke, Oñati irratiko mikrofonoetan ez bada, seguru, probaren bateko helmugan elkarrizketatu duelako, *speaker* lanetan. Oraingoan, baina, berak bota du izerdia, bost ordu pasatxoan (5:11:03) Marbellako Ironman erdia egin du-eta Pazkoa Astean. Sei hilabete eman ditu hitzordu horretarako entrenatzen, eta esperientziaren gainean egin digu berba.

**Kirolera bideratutako oporraldia izan duzu.**

Bai, hori zen asmoa, gainera. Iaz lesioren bat eta lan kontuak tarteko kirol kontuetan ez nuen urte oso ona izan, ez nintzen oso motibatuta ibili. Eta aurtengo urterako erronka potoloa jarri nahi nion buruari. Egutegian begira ibili nintzen oporrak aprobetxatuta ze lasterketa egin nezakeen, eta hala aukeratu nuen Marbellako distantzia luzeko triatloia.

**Lehenago ere triatloiak egindakoa zara, baina hau distantzia luzekoa izan da, ironman erdi; Donostiako maratoia izan zen zure lehen kirol erronka handia, eta orduan ez zinen oso gustura geratu.**

Ez, 2009an egin nuen maratoia, eta giharretako arazoekin ibili nintzen. Pentsatzen hasita, goizegi egin nuen lasterketa hura, hau da, gorputza moldatu egin behar da erresistentziako proba luzeetara, eta ni oraindik ez nengoen ohituta.

**Marbellatik, berriz, oso pozik itzuli zara.**

Sekulako esperientzia izan da. Lasai hasi nuen proba, uretan nahiko ondo moldatzen naiz, eta bizikletan beharrezkoa zena estutu nuen, ez gehiago. Taldekideekin berba eginda, eta maratoiaren esperientziatik, banekien lasai ibili behar nuela, beherakadaren bat izango nuela. Asko zaindu nituen jatekoak eta edatekoak. Korrika hasi eta ondo nengoela ikusterakoan erabaki nuen estutzea, fresko nengoelako; oso ondo iritsi nintzen helmugara.

**Etxeko lanak ondo eginda zenituen seinale.**

Sei hilabete gogor izan dira, hori da egia. Goizetan 07:00etarako hasten nuen lehenengo entrenamendu saioa, eta lan kontuak eta bestelako konpromisoek ez didate lasai entrenatzeko tarte askorik uzten. Asteburuak entrenatzeko aprobetxatzen nituen, eta lagunekin afariak eta halakoak baztertuta izan ditut. Gogorra egiten da, baina proba ondo egiteak ematen duen poztasunak merezi du.

**Halakoetan izugarri eskertzen dira ondokoen laguntzak.**

Badut, bai, eskerrak nori eman. Hasteko etxekoei, besteak beste, lasterketa egunean Marbellan egon nahi izan zutelako. Eta hor, amaren lana azpimarratuko nuke. Halakoetan jendeak badaki ze tonto jartzen garen jateko kontuekin, entrenamenduko arropak etengabe garbitu beharra... Eta hor egoten da ama, beti. Horrekin batera entrenatzaileari ere eskerrak eman behar dizkiot, planifikazioa oso ona izan delako eta gainean egon delako uneoro. Asko zor diet, baita ere, Iñigo Tercerori eta batez ere Iban Letamendiri. Entrenamendu-kideak izan ditut, euri zaparrada bat baino gehiago jasan dute entrenatzen laguntzearren, eta amaitzeko lagunei ere eskerrak, animo mordoa jaso dudalako euren partetik.

**Distantzia luzeko probei gustua hartzen hasita... Zahartzen ari zaren seinale.**

[Barre] Bai, hori dio esaerak. Adin batetik aurrera gorputza hobeto moldatzen dela distantzia luzeko probetara...

**Ironman erdi eginda, beste pauso bat ematea geratzen zaizu.**

Ironman erdi prestatzea kostatu zaidanarekin, ez dakit zelan moldatuko nintzatekeen ironman bat prestatzen. Taldean batek baino gehiagok komentatu dit, eta printzipioz ez dut baztertzen, baina ordu asko eskaini behar zaizkio, ahalegin handia egin behar da, eta ez dakit horretarako prest nagoen. Aurrerago, batek daki.

**Lehenago, Bilboko triatloia, maiatzean bertan.**

Bai, orain dudan gorputzaldi ona aprobetxatzea da asmoa, eta Bilbokoa ere distantzia luzeko proba da. Marbellakoa ondo irten zaidalako ez dut Bilbon helburu zehatzik jarri nahi, distantzia honetan hasiberria naizelako eta konfiantza larregi hartzea komeni ez delako. Ondo amaitzeko asmoz noa.

**Zer nahiago, kirola barrutik bizi, ala kanpotik jarraitu?**

Erantzun zaila da hori, aitarekin ala amarekin nahiago erantzutea modukoa [Barre]. Bietan gozatzen dut nik. Hurrun joan gabe, aurten Oñatiko saskibaloi taldeaz izugarri gozatu dut kanpotik.

**Kirol esatari moduan jarduteko lagungarria da norbera kirolaria izatea?**

Duda barik, kirol jarduera barrutik ezagutzen duzulako, kirolak ematen dituen gauza on eta txarrak zeintzuk diren norberak ere badakizkielako, momentu on horietan zer sentitzen den, kirolaria une txarrean badago zelan egongo den... Oso lagungarria da.


Losada, gurasoekin, lasterketa amaieran. | A.LOSADA


Korrikako saioan. | A.LOSADA


Bizikleta gainean 83 kilometro egin zituzten. | A.LOSADA

HEZIKETA

# Jolasteak duen garrantziaz ohartarazi eta arreta handiagoa eskaintzeko gonbita egin dute

'Guraso.com' atariko kolaboratzaile Irene Txurrukaren azken ekarpena da

**MIRIAN BITERI** | ARRASATE

Jolasak gizakiaren osasun fisiko, emozional eta mentalean daukan eragina aztertu, eta eman ohi zaion arreta handiagoa merezi duela uste du Irene Txurrukak; eta hainbat aholku ere ematen ditu. Horren arabera, haurraren jolasaren ezaugarrietako bat esperimentatzea da, esperimentatuz ikasten duelako. Hori horrela izanda, esperientzia "aberatsak" eskaintzen ahalegintzeko gomendioa egiten du, inguruan duena ukitzen eta dastatzen utziz. Horren harira, ohartarazi du inguruaren aberastasuna ez dela nahastu behar ugaritasunarekin. Horrekin batera, Txurrukak dio jolasaren bidez bizi izandakoa atera eta bihurtzen du ikaskuntza.

Bestalde, irudimena lantzen laguntzeko, umeari eskainitako jostailuak xumeak izan behar direla dio; eta ezer egiten ez duten pilarik gabekoak badira hobe.



Umea hondartzan jolasten. | IMAGINARIUM

**Telebistarik gabe**

Beste ezaugarrietako bat errepikapena da; behin eta berriz errepikatzeko beharra dute-eta. Bestetik, trebetasun sozialak ere jolasaren bidez garatzen dituztela nabarmendu du. Horren harira, telebistarik gabe baliabideak bere kabuz aurkitzeko aukera gehiago dutela uste du. Debozioa eta aurkikuntzarekiko lilura ezaugarritzat jotzeaz gain, gurasoek duten babesteko premiaren eta umeen askatasun beharraren arteko oreka bilatzeko gomendioa egiten du Txurrukak.

# Abian jarri dute ostera 'Guraso.com' atarian oinarritutako irratsaioa

Txatxilipurdik eta Txapa Irratiak elkarlanean egindako irratsaioak entzungai daude webgunean

**M.B.** | ARRASATE

Txatxilipurdik eta Bergarako Txapa Irratiak (97,25) martxan jarri dute atzera ere *Guraso.com* atarian oinarritutako irratsaioa; hain justu ere, webgunean dauden albiste, agenda eta beste hainbat kontu lantzen dituzten *Gurasoak* izeneko irratsaioak berreskuratu dira, eta dagoeneko *Guraso.com* atarian daude entzungai.

Irratsaio horietan kolaboratzaile baten parte-hartzea dago. *Guraso.com* atariko kolaboratzaileen idatziak dituzte hizpide bai elkarrizketa bidez eta baita idatzitako kolaborazioak uhinetara ekarriz. Aste honetan, esaterako, Irene Txurrukaren ekarpenaz egingo dute berba. Horretaz gainera, astean agertutako albiste eta agendako hitzordu nagusiak ere mintzagai dituzte. Horrez gain, irratsaio berean hainbat gomendio egiten dituzte liburu, disko eta jolasen inguruan.

**Bi astetik behin**

Esan bezala, Bergarako Txapa Irratiak Arrasateko Txatxilipurdi elkartearen laguntzarekin ekoitzia da *Gurasoak* irratsaioa; gurasoei zuzenduta dauden 30 minutuko saioak dira horiek, bi astetik behin egiten direnak. Joan den urteko ekainean jarri zuten esandako proiektua martxan; azkenaldian alde batera utzita zuten, eta orain berreskuratzea erabaki dute.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLAKO LANBIDE HEZIKETA

# "0 euste-eredua": utopia?

**Arantza Hernandez**
Osasungintzako irakaslea

0 euste-eredua: utopia? Horixe izan zuten eztabaidagai osasun eta gizarte arloko 100 profesional inguruk –erizaintza -laguntzaileak gehienak– *Erizaintza-laguntzaileak, gaur* izeneko jardunaldietan. Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketakoek hirugarrenez antolatuta dute aurten.

Agerian gelditu zen Estatu Espainiarrean eta Euskal Herrian handiegia dela neurri fisikoen edo kimikoen bidez "lotuta" dauden pertsonen kopurua, batez ere, inguruko herrialde batzuekin alderatuz gero. Arrazoi nagusien artean dago pertsonak erortzeko arriskua saihestea, horrek dakarren ondorio guztiekin (erortzeko legezko eta ez-legezko ondorioak saihestea, alegia). Baina beste faktore batzuk ere agertu ziren, esaterako, zaharrak zaintzeko unean gure gizartean dagoen eredu paternalista, laguntzaileen lanaren antolaketa eta kudeaketa, behar teknikoak (pertsonen agitazioa, diagnostikoak...) eta abar.

**Libera-ger Araua**

Ana Urrutiaren ponentzian, euste sistemaren mitoak banan banan joan ziren erortzen, pertsonak eusteko arrazoiak desmitifikatzen; egun, estatuko 25 bat egoitzetan ezartzen ari den 0 euste-sistemaren emaitzak kontrakoa frogatzen baitute: alde batetik, erorketen tasa gutxiagotu egiten da, edo behintzat ez da areagotzen. Bestetik, erorketen ondorio larriak gutxiagotu egiten dira. Gainera, pertsonen oreka hobetzen da eta baita langileen estresa ere. Azkenik, senitartekoen gogobetetasuna hobea da.

Libera-ger arauak jarraibideak ematen ditu 0 euste-sistema egoitzetan ezartzeko, baina Urrutiaren esanetan, sistema horretan arrakasta lortzeko zera da garrantzitsuena: arduradunen eta senitartekoen mentalitate -aldaketa. Aldaketa hori ezinbestekoa da, eta gainera, benetakoa behar du izan, batez ere, zainketak planifikatzeko unean. Garrantzitsuena da abiapuntutzat hartzea zaintzen diren pertsonen beharrak eta horien erabakiak errespetatu behar dira. Pertsonaren ongizatea da helburua eta ez beste ezer.

Urrutiak biziki eta uste osoz defendatu zuen proiektu berritzaile hori eta hausnarketarako aurrean zituenei zuzendutako galdera batekin bukatu zuen bere ponentzia: euste-sistema gabe lan egiten ausartuko zinateke?

Klaudia Lukita (GSR-Legazpi) ausartu egin da euste-sistema barik lan egitera eta jardunaldiotan azaldu zituen jarraibide teknikoak, kasu praktikoak, aholkuak eta arazo errealentzako irtenbideak. Han bildutakoei batez ere transmititu nahi izan zien era horretan lan egiteko ilusioa eta ziurtatu zien hori posible dela.



Kulturaten egin zituzten jardunaldiak. | ARIZMENDI IKASTOLA

## Horrelako jardunaldien garrantzia

Fernando Fantovak eman zion hasiera jardunaldiari, Etorbizi Fundazioaren berri emanez eta jardunaldiaren helburuekin bat etorriz. Arratsaldean 35 pertsona parte hartu zuten tailer batean, sistemaren elementu praktikoak garatzeko helburuarekin. Arizmendi Ikastolako Erizaintza-laguntzaileen heziketa-zikloak eskerrak eman nahi ditu jardunaldiak errealitate izateko parte hartu duten guztiei, eta berresten du indarrez jarraituko duela zerbitzu soziosanitarioak hobetzeko garrantzitsuak diren gaietarako eztabaidagai elkarte-puntuak antolatzen.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK

# KULTURA



Aurtengo lehiaketako irabazleak. | JON BEREZIBAR



Desfileko uneetako bat. | JOSETXO ARANTZABAL

# Bailara gaztea dela erakutsi dute gaztetxoek bideoen bitartez

## Barikuan banatu zituen Arizmendi Ikastolak BH Klip lehiaketako sariak

**JON BEREZIBAR** | ARRASATE

Aurten "bailara gaztea" eta "bizikleta" gaiak proposatuta laugarren BH Klip lehiaketa antolatu du Arizmendi Ikastolak eta barikuan, batxilergoko ikasleen moda desfile-ekitaldian banatu zituzten sariak. Lan originalak eta mezudunak jaso dituzte, antolatzaileen arabera, eta epaimahaiak bi lan aukeratu ditu, irabazle moduan: DBH mailan Matilde Aizpurua, Deiane Marcos eta Nerea Elortzaren *Bailara gazte batengatik* eta Batxilergo mailan Asier Lete, Iratxe Moreno eta Ana Martinen *Gazteak post-it*. Bideo kamera bana jaso dute sari moduan irabazleek.

Ikuslearen saria ere banatu da eta *Erreportaia* izeneko lana aukeratu dute ikusleek, Janire Berasaluze, Elene Azkoaga eta Karmele Varorena.

**Parte-hartzea**

Arizmendi ikastolako Gari Ibarzabalek parte-hartzea nabarmendu du, "kontuan hartuta 40 bat lan aurkeztu dituztela eta talde bakoitza hiruzpalau lagunek osatu dutela. Aurten gainera Leintz ibarretik bailara osora zabaldu dituzte lanak eta Oñati eta Bergarako lanak ere jaso dituzte. Bideoak ikusteko Goiena.net atarian bloga ireki dute eta bertan ikus daitezke lan guztiak (*goiena.net/blogak/bhklip*). Ikuslearen saria aukeratzeko modua bertan egon da eta 774 lagunek eman dute botoa.

**Durango.** Emakume euskalduna eta arduratsua haurrak eta nagusiak zaintzeko, zein etxeko lanak egiteko lan bila. Interesatuok 659-08 81 85 telefono zenbakira.

**Durango.** Gizon bat,tekniko laguntzaile eta etxeko laguntzaile erantzukizun zibeloarekin eta gizarte segurantzan alta emanda autonomoz,adikeko gizon edo emakume bati zaintza prest nago. Etxeko lanak ere bai (garbiketak,-sukaldea.) elorrio edo inguruetan 690-28 60 71.

**Durango.** Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 669-32 11 75.

**Elgeta edo Bergara.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

**Etxarri-Aranatz.** Haur psikologikoan masterra. Buruaren psikologikoan masterra. Etxarri Aranatzen. Tel: 651- 34 16 79.

**Iurreta.** Pertsona nagusiak zein gaixo daudenak zaintzeko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 -74 57 23. Ines.

**Zornotza.** Umeak zaintzeko, jantokietan zerbitzatzeko, garbiketarako... lan bila. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 68 66 08 (Geraxane)

**Zornotza.** Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688-68 66 08 (Geraxane) eta 678-21 39 67 (Rafa)

**Zornotza.** Lorezaintza, altzairuen muntaia, elektrizitatea edota pintore lanetarako lan bila. Esperientzia baita fundizioan ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678-21 39 67 (Rafa).

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Aretxabaleta.** Kimikako irakasle partikularra behar da selektibitatea prestatzen laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690 31 89 63

### 502. EMAN

**Durangaldea .** Euskal filologian lizentziatutako neska euskara klase partikularrak emateko prest, maila guztietan. Gazte zein helduei. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 -809 628

**Durango.** Irakasle euskalduna klase partikularrak emateko prest; Lehen Hezkuntza zein DBH. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-70 20 49.

**Villabona.** Ingles eta frantseseko klaseak ematen dira gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@ hotmail.com

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi A4 salgai.** Audi A4. Diesela. 2003 urtekoa. 160.000 km. Oso egoera onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673-49 36 39.

**Fiat punto salgai.** Fiat punto salgai. 2007. Urtekoa. 48.425 km. 8.000euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665-74 56 03.

**Volkswagen Touran-a salgai. Prezio berria!.** 2004 urtekoa. 120.000 km. 1. 9 tdi. 6500 euro. Oso egoera onean. Distribuzioko korrea aldatuta. 699-09 75 36 edo atxatarra@ yahoo.es

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astoak salgai.** 2 asto eme salgai. 3 urtekoak eta txikiak. 616-919 061.

**Ahuntzumak salgai.** Hauntzumak ernaldian. Azpizuri eta azpigorria. Mugikorra: 688-60 95 60. 94-466 81 37.

**Seter txakurkume ehiztariak salgai.** Seter txakurkume ehiztariak salgai. 150 euro. Telefonoa: 695-71 00 68.

**Txakurrak salgai.** Urtarrilaren 17an jaiotako pitbull kumeak salgai. Arrak eta emeak ditut. Beltzak batzuk eta besteak tigre itxurakoak. Gurasoak ondo hezitakoak, jatorrak eta mantzoak. Deitu konpromiso barik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688-69 87 56.

**Yorkshire terrier txakurkumeak salgai.** Yorkshire Terrier txakurkumeak salgai bi hilabeteko txakurkumeak. Oso politak. Txertoa jarrita eta pedegreedunak. Prezio ona. 680-99 68 87, 943-76 40 17.

### 703. EMAN

**Txakurkumeak oparitzen dira.** Labrador arrazako hiru kume ar etxe bila dabiltza. Martxoaren 2an jaio ziren. Ondo zainduko duen/dituen pertsonarik badago, email bat bidal dezala ondoko helbidera: mzubizaga@yahoo.es

**Txakurra opari.** Arratoi txakur bat oparitzen da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645-71 48 59.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Abadiño.** Lursaila salgai Matienan (Abadiño), Arzubia kalean, 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minitutara oinez. 658-75 65 12.

**Agria motokultorea salgai.** Agria 2700 motokultorea salgai. Diesela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-682 45 90. Luis.

**Aulki elektrikoa.** Gurpildun aulki elektrikoa. Egoera oso onean. 1.500 €. 677 38 85 64

**Bernedo.** Lursail eraikigarria urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta Izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana)

**Bizikleta.** Neskatilarendako bizikleta salgai. 20 hazbetekoa. Egoera onean. 647 58 40 73

**Bizikletak eramatekoa.** Bizikletak kauto gainean eramatekoa saldu nahi dut. "Feu Vert BX1" lapurreten aurkakoa dauka eta gutxi erabilia. 40 euro. 606 28 81 19

**Bizikletarako umeen aulkia salgai.** Bizikletarako umeen aulkia salgai. Ume txikia atzean eramateko, erosoa. Oso gutxi erabilia, eta merkea. 648-63 58 06.

**Casualplay S6 karrotxoa salgai.** Casualplay s6 karrotxoa salgai. Kapazua, prima easy arrautza eta karritoa saltzen dut. Euritarako 3 burbuila eta bi zaku oparitzen dira. 275 euro. Ikusi konpromisu barik. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618-21 38 62.

**Durango.** Bulegoko altzariak salgai: mahaiak, aulkiak, batzar gela.... Egoera oso onean daude. Tel: 656-73 77 79.

**Elorrio.** Elorrio. 500 metroko lursaila salgai. Sarbide ona, fruta arbolekin, guztiz itxia eta laua. Mobil-home bat, baratza edo txakurrak edukitzeko aproposa. 685-73 48 25.

**Ileordea.** Ile naturalez egindako ileordea salgai. Ilehoria. Luzea. 635 06 20 72

**Isolatzailea salgai.** Isolatzailea (kortxo beltza) salgai Elorrion. Teilatuak, paretak eta lurra aislatzeko balio du. Prezioa negoziagarria da, eroandako kopuruaren arabera. 661-82 93 59.

**Karro-denda.** Wolder-Tuareg salgai. Zabaltzeko eta jasotzeko oso erraza. Gutxi erabilia, 2008-koa. Udako toldoa du eta 3 bizikleta eramateko gertatua. 678 90 86 30

**Mahaiak eta aulkiak salgai.** Egurrezko lau mahai eta aulkiak salgai. Txoko baterako egokiak. 695-76 84 21.

**Mp4a salgai.** Mp4a. 4Gbkoa. Screen, Slot Micro SD, 16 orduko bateriarekin, USB eta FM irratia. Berria, estreinatu gabea. 30 euro. Emmanuel Iantxas. 699-77 86 38.

**Motxila.** Umeak eramateko motxila salgai. Egoera onean. 647 58 40 73

**Labeska eta argi-lanpara salgai.** Kanpingeko labeska (su txikia) eta argi-lanpara saltzen ditut, behin ere erabili gabe daude. Bakoitza bere bonbona urdin txikiarekin, bonbonak beteta daude. 50 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 692-71 85 00.

**Lursaila.** Apotzagan 11.000 metro koadroko ursaila salgai. Borda eta guzti. 690 81 64 39

**Ohe elektrikoa salgai.** Pertsona ezinduentzako, ospitaleen motako ohe elektrikoa saltzen dut. Berri-berria. Akaroen kontrako koltxoia, oheburukoa eta segurtasun barra. Mandoak zortzi botoi ditu. Lurretik 30 zm-tara jaitsi daiteke eta 95 zm-tara igo. Ikusi, konpromiso gabe. 700 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636-43 00 20.

**Ordenagailua eta pantaila salgai.** Pentium 4, 1,5 Gb ram. Disko gogorrak 160 Gb. Fire-ware txartela. Sistema eragilea W-XP/SP-3. 100 euro. 669-65 48 87.

**Txirrindulari zapatillak salgai.** Northwave Evolution FBS Leopard-trek. 43 zenbakia (27,5 zm-ko plantilla). Ia berriak (3 aldiz erabiliak). Prezioa: 125 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626-46 44 22. Mikel.

**Umeak autoan eramateko aulkia.** Debagoienan umeak autoan eramateko aulkia salgai. 9-18 kilo artekoa. Informazio gehiagorako: 658-12 43 38.

**Umea eramateko motxila.** Vaude jolly light umea eramateko mendiko motxila salgai. Estreinatzeko,etiketa eta guzti. 100 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-603 25 02.

**Umeendako karroa.** Debagoienan bigarren eskuko bi umeentzako Bugaboo donkey, babyjogger city select, icandy peach edo antzeko karroa erosiko nuke. Informazio gehiagorako: 605-76 08 29.

**Xurgagailua.** (aspiradora). Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. Informazio gehiagorako: 659 62 02 49

### 802. EROSI

**Umeendako karroa.** Bigarren eskuko bi umeentzako Bugaboo Donkey, Babyjogger city select, Icandy peach edo antzeko karroa erosiko nuke. 605 76 08 29

**Zilarra erosten dut.** Zilarrezko gauzak erosten ditut: txanponak, etxeko kuberteria eta abar. Harremanetan jartzeko, Telefonoa: 657-70 43 16. Posta:numipega@ gmail.com.

### 804. EMAN

**Bidali zure ordenagailua Boliviara.** Bidali zure ordenagailua Boliviako eskoletara. Ordenagailua hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskoletara. 655-71 76 66.

### 804. HARTU

**Birkiendako aulkia** emateko badaukazu, gustura hartuko genuke. Oñati. Deitu 662 57 48 84 telefonora.

### 806. GALDU

**Erretrato kamara digitala Bergaran.** Martxoaren 31n, Samsung kamara digitala, funda gorriarekin, Bergarako Ibargarai kalean galdu nuen. Aurkitu baduzu mesedez deitu zenbaki honetara: 688 60 92 02

**Telefonoa Urkulun.** Martxoaren 22an, arratsaldean, Urkuluko urtegian karkasa morea duen poltsikoko telefono beltza galdu nuen. Aurkitu baduzu mesedez deitu telefono zenbaki honetara: 685 72 19 86. Mila esker aldez aurretik.

**Txamarra.** Besaide eta Udalatxeko meatzeen artean txamarra galdu dut. Arrosa estiloko kolorea. Emakumezkoa. 605 73 70 02

**Umearen txamarra galdu Aretxabaletan.** Aretxabaletan, aratuste-domeka arratsaldean galdu nuen. Marroia da, quiksilver etxekoa eta 4 tailakoa. 659-35 89 92.

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasatetik Donostiara autoan.** Egunero Arrasatetik Donostiara joateko autoa partekatzeko jende bila nabil. Arrasatetik 7:15ean irtetzen naiz eta Donostiatik 17:30etan, gutxi gora behera. Autoa partekatzeko deitu 669 13 20 08 telefono zenbakira eta Imanolengatik galdetu.

**Mutil bila.** Kaixo, Mikel naiz eta ezkonduta nago. Beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Asmo bera daduzu, bidali SMS bat zenbaki honetara. Nire aldetik erabateko diskrezioa. 605 08 82 76

**Mutil euskaldun jator baten bila Bilbon.** 50 urteko neska euskalduna naiz. Alaia, irekia, berriketari ona, lagun zintzoa. Gustuko dut igeri egitea, senderismoa (baina oso suabea,jeje), zinea, kantatzea, euskal kulturaren mundua, hondartza, bidaiatzea, lagunekin irtetzea, txangoak egitea... Bizitzaz disfrutatzea. Nire antzeko mutil bat ezagutu nahiko nuke,bi oso zenbaki polita delako. Harremanetan jartzeko nire telefono zenbakia 606-25 05 84 da.

**Neska bila.** Neska polit, sentibera eta ezkongabea naiz eta antzeko neska bat ezagutuko nuke Arrasate edo Bergaran. Interesatuak deitu 615 75 09 90 telefono zenbakira.

## TELE-BEGI



AINHOA VITORIA

# Gu ere bisitari

Pertsonon ezaugarrietako bat kuriositatea da. Ez dago zalantzarik, kuriosoak gara eta izaten jarraituko dugu. Gainontzekoen bizitzaz jakitea gustuko izaten dugu. Eta pertsona ezagunen bitxikeriak, etxetik mugitu gabe, ezagutzeko aukera ematen badigute, askoz hobe.

*Bisitaria* saioa aurkeztu berri du Euskal Telebistak. Pertsonai ezagunen bizitzak hobeki ezagutzeko aukera ematen digun saioa. Nolakoa da Ainhoa Goikoetxea bere bizitza pribatuan? Zer egiten du Aitor Zubietak bere aisialdian? Horiek guztiak gertutik ezagutzen laguntzen digu Xabier Euzkitze telebista aurkezleak. Pertsonaia ospetsuen etxera joan eta beraien bizitzako ateak zabaltzen dizkiote-dizkigute.

Egia esan, gustuko dut. Aurkezlearen eta protagonisten arteko *feeling*-a nabaritzen da. Ohituta ez gauden beste arlo batzuetan ikusteko aukera ematen digu saio honek. Pertsonaia ezagunak gu bezalakoak direla jakitea gustatzen zaigu eta, gainera, hauek gertuago sentitzen ditugu. Gure kuriositatea pizten den heinean, ase ere egiten da; beraz, bisitari izaten jarraitu nahi dugu eta jarraituko dugu.

## ASTEA GOIENAN

### GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 23



**Aloñako Igoera ikusgai**

21:28

Domekan jokatu den Aloñako igoerak eman duena ikusi ahal izango duzue *Harmailatik* kirol saioan, Xabier Urtzelairekin.

**12:25** Magazinea
**13:25** Zorion Agurrak
**13:30** Onein
**14:00** Altxor Txokoa
**14:31** Ikusmira
**14:48** Berriak
**15:08** Eguraldia
**15:13** Ur eta lur
**15:37** Bertso saioa
**16:07** Nere herrie
**16:30** Ikusmira
**16:53** Berriak
**17:13** Eguraldia
**17:18** Bertso saioa
**17:51** Onein
**18:13** Berbaz
**19:13** AsteON
**19:43** Zorion Agurrak
**19:48** Berriak
**20:08** Eguraldia
**20:13** Magazinea
**20:58** Berriak
**21:23** Eguraldia
**21:28** Harmailatik
**22:13** Magazinea
**22:58** Harmailatik
**23:43** Berriak
**00:07** Eguraldia

MARTITZENA, 24



**Errenta aitorpena euskaraz**

20:15

Foru Aldundiko Euskara zuzendari Zigor Etxaburua errenta aitorpena euskaraz egiteari buruz berbetan izango dugu.

**12:30** Magazinea
**13:25** Zorion Agurrak
**13:30** Harmailatik
**14:15** AsteON
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:10** Zorion Agurrak
**15:15** Harmailatik
**16:00** Onein
**16:30** Ikusmira
**16:47** Berriak
**17:12** Eguraldia
**17:17** Bizitegia
**17:47** Harmailatik
**18:32** Altxor Txokoa
**19:03** Hamaika.bit
**19:35** Beranduegi.tv
**19:52** Berriak
**20:12** Eguraldia
**20:17** Magazinea
**21:02** Berriak
**21:22** Eguraldia
**21:27** Harira
**22:27** AsteON
**22:57** Magazinea
**23:42** Berriak

EGUAZTENA, 25



**Irabazi sariak lehiaketan**

20:50

Bideokamera digitala irabaz dezakezu lehiaketan; beraz, animatu eta parte hartu. Hau da telefonoa: 943 25 05 03.

**12:15** Magazinea
**13:00** Zorion Agurrak
**13:05** Harira
**14:05** Beranduegi.tv
**14:23** Ikusmira
**14:46** Berriak
**15:06** Eguraldia
**15:11** Gipuzkoa kultura
**15:41** Onein
**16:17** Berbetan
**16:47** Berriak
**17:07** Eguraldia
**17:12** Garaien oiartzuna
**17:51** Harmailatik
**18:34** Ikusmira
**18:57** Ekogune
**19:27** Bertso saioa
**19:55** Berriak
**20:15** Eguraldia
**20:18** Magazinea
**20:50** Lehiaketa
**21:03** Berriak
**21:23** Eguraldia
**21:26** Magazinea
**22:11** Beranduegi.tv
**22:29** Ekogune
**22:59** Bertso saioa
**23:31** Berriak
**23:56** Eguraldia
**00:04** Planik bai?

EGUENA, 26



**'Bizkaiko koplak' emanaldia**

22:19

Xabier Amuritzak eta Kepa Junkerak emanaldia egin zuten Arrasateko gaztetxean; hori ikusi ahal izango duzue eguenean.

**12:30** Magazinea
**13:15** Zorion Agurrak
**13:20** Ekogune
**13:50** Ikusmira
**14:12** Hamaika.bit
**14:44** Berriak
**15:04** Eguraldia
**15:09** Bizitegia
**15:39** Berbaz
**16:44** Berriak
**17:04** Eguraldia
**17:09** Garaien oiartzuna
**17:49** Ikusmira
**18:11** Altxor Txokoa
**18:42** Ur eta lur
**19:06** Ekogune
**19:36** Planik bai?
**19:46** Berriak
**20:06** Eguraldia
**20:09** Planik bai?
**20:19** Magazinea
**20:59** Lehiaketa
**21:09** Berriak
**21:34** Planik bai?
**21:44** Eguraldia
**21:47** Hamaika.bit
**22:19** Gipuzkoa kultura
**22:49** Magazinea
**23:34** Berriak
**23:59** Eguraldia
**00:02** Berriak
**00:26** Eguraldia
**00:31** Planik bai?

EGUBAKOITZA, 27



**Elikagaien Bankua**

21:52

Bergaran dagoen Elikagaien Bankua ezagutzeko aukera izango dugu *AsteOn* saioko erreportajean.

**12:30** Magazinea
**13:15** Zorion Agurrak
**13:20** Gipuzkoa kultura
**13:50** Onein
**14:27** Planik bai?
**14:37** Zorion Agurrak
**14:42** Berriak
**15:02** Eguraldia
**15:07** Planik bai?
**15:17** Bizitegia
**15:47** Berbaz
**16:47** Berriak
**17:07** Eguraldia
**17:12** Planik bai?
**17:22** 28.Klip
**17:48** Harira
**18:48** Berbetan
**19:18** Beranduegi.tv
**19:37** Zorion Agurrak
**19:42** Berriak
**20:02** Eguraldia
**20:07** Planik bai?
**20:17** Harira
**21:17** Berriak
**21:37** Eguraldia
**21:42** Planik bai?
**21:52** AsteON
**22:22** Esatea libre
**23:22** Planik bai?
**23:32** AsteON

### ARRASATE IRRATIA

**'Otto' antzezlanerako eta Elgetako Magia Mostrarako sarrerak**

Sarrerak ditugu zozketan domekan Amaian izango den *Otto* haurrendako antzerki eta dantza ikuskizunerako eta Elgetan maiatzaren 4an egingo den Magia Mostrarako. Eskura itzazu 943 25 05 05era deituta, edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.com* helbidera edo Twitter bidez *@arrasategoiena*-ra. Parte hartu eta zorte on.

**Leuzemia daukan bederatzi hilabeteko umetxoaren kasua**

Fernando Riviere bederatzi hilabeteko haurrak leuzemia dauka eta hezur-muin transplantea behar du sendatzeko. Gurasoak arrasatearrak dira, eta emaile egiteko dei egin dute. Gurean izango dugu Isabel Kirze, mutikotxoaren senidea, Fernandoren kasua azaldu eta emaile egiteko dei egiten. Astelehenean izango da, 10:30ean.

**Liburuaren Nazioarteko Eguna da gaur, eta horri buruz hitz egingo dugu**

Gaur, astelehena, ospatzen da Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta gai horixe ekarriko dugu geuk ere 107.7ko uhinetara. Liburuek gaur egun duten garrantziaz hitz egingo dugu, besteak beste, eta literatura munduan murgilduko gara minutu batzuetan *Igo autobusera* irratsaioan. Hori eta gehiago, 10:30ean, Arrasate Irratiaren eskutik.

## TELE-ALBISTEAK

# Oxel Erostarbe Elgetako alkateari elkarrizketa martitzenean 'Harira'-n

Herritarrek galderak eta kezkak helarazi ahal izango dizkiote alkateari, zuzenean erantzun ditzan



Elgetako udaletxea. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Bihar, martitzena, alkateen errondarekin jarraituz, Oxel Erostarbe Elgetako alkatea izango da *Harira* saioan.

Herriko kontuak izango dituzte hizpide Erostarbek eta saioko aurkezle Eneko Azkaratek, eta herritarrek galderak egin ahal izango dizkiote alkateari, zuzenean erantzun ditzan, martitzenean, 21:27an.

**Egin galderak alkateari**

Hainbat modutara egin ahal izango dizkiote galderak Erostarberi ikus-entzuleek. Zuzenean galderak bi modutara egin ahal izango dira: telefonoz deituta 943 25 05 05 zenbakira edo Twitter bidez, *#harira* traola edo *hashtag*-a erabilita. *Goiena.net*-en *streaming* bidez ere eskainiko da saioa, eta galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek.

Galderak aurretik bidaltzeko aukera ere izango da: posta elektronikoz, *harira@goiena.com* helbidera, hain zuzen.

# Arantzazuko pasealeku egokitua, itsu baten begietara, 'Ekogune'-n

Aiztondo ere ezagutuko dugu, trukerako denbora erabiliz elkarri zerbitzuak emateko bankua

A.T. | ARRASATE

Arantzazun kokatuta dagoen pasealeku irisgarrian izango gara aste honetako *Ekogune* saioan Rafael Kortabarria oñatiarrarekin. Itsua da bera eta azalduko digu horrelako ibilbide egokitu batek zer eskaintzen dion pertsona elbarritu bati.

Eguazteneko *Ekogune* saioan izango da hori, 22:29an hasita.

**Aiztondo denbora bankua**

Bestalde, trukerako denbora erabiliz elkarri zerbitzuak emateko sortutako Aiztondo denbora bankua ere izango dugu ezagutzeko aukera. Bertan joskintza eta ingeles eskolak, masajeak edota xaboia egiten ikasteko ikastaroak eman eta jasotzen dituzte, trukerako denbora erabiliz. Zerbitzu horiek jasotzen dituzten pertsonek ez dute diruz ordaindu behar izaten, denbora da trukatzen dutena.

**Jarraitu sare sozialetatik**

Jarraitu saioa *www.facebook.com/ekogunea* helbidean eta Twitter bidez *@ekogunea*-n. Saioa Internet bidez ikusteko, *www.ekogunea.net* atarian.

## JAIOTAKOAK



### Maria Maiztegi Arruti

Antzuola 2,990 Kilo. Apirilaren 4a. Gurasoak: Oskar eta Ariane. Argazkian, Maria sehaskan



### Izadi Elorza Astola

Arrasate. 4,410 Kilo. Apirilaren 10a. Gurasoak: Aitziber eta Haritz. Argazkian, Izadi epeletan goxo-goxo.



### Irati Inza Marcos

Bergara. 3,300 Kilo. Apirilaren 12a. Gurasoak: Ioseba eta Monika. Argazkian, Irati jaioberria esna-esna.



### Hodei Elorrieta Vaz

Aretxabaleta. 4,130 Kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Rebeca eta Roberto. Argazkian, Hodei amarekin.



### Chao Shen He

Oñati. 3,050 Kilo. Apirilaren 14a. Gurasoak: Lingyan Wu eta Guansheng He. Argazkian, jaioberria amarekin.



### Naia Arejolaleiba Caño

Oñati. 2,930 Kilo. Apirilaren 13a. Gurasoak: Miriam eta Pablo. Argazkian, Naia sehaskan, dotore-dotore.



### Elene Iztueta Etxenausia

Zerain. 3,500 Kilo. Apirilaren 18a. Gurasoak: Ainara eta Andoitz. Argazkian, Elene aita eta amarekin.



### Aiur Vivas Berraondo

Bergara. 3,230 Kilo. Apirilaren 17a. Gurasoak: Saioa eta Alain. Argazkian, Aiur aitarekin.



### Danel Bañares Bengoa

Eskoriatza. 2,910 Kilo. Apirilaren 18a. Gurasoak: Alazne eta Aitor. Argazkian, Danel aitarekin.



### Hugo Carmona Iglesias

Arrasate. 3,290 Kilo. Apirilaren 19a. Gurasoak: Maite eta Anibal. Argazkian, Hugo amaren besoetan.



## Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.**
**Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



### Ibai Garcia Gomez

Arrasate. 2,800 Kilo. Apirilaren 19a. Gurasoak: Joana eta Iñaki. Argazkian, Ibai gurasoekin.



### Unai Alvarez Morillas

Bergara. 3,290 Kilo. Apirilaren 18a. Gurasoak: Sandra eta David. Argazkian, Unai amarekin.



### Oier Otxoa Diaz de Guereñu

Aretxabaleta. 3,100 Kilo. Apirilaren 19a. Gurasoak: Izaskun eta Ion. Argazkian, Oier amatxorekin.

ESKELA **EGUBAKOITZEAN** NAHIZ **ASTELEHENEAN** ARGITARATZEKO, DEITU BEZPERA EGUERDIRAKO:
**943 25 05 05.**



**ARRASATE**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31.
943 25 05 05.

**BERGARA**
Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean).
943 76 08 19.

**OÑATI**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9.
943 78 10 65.

**ARETXABALETA**
Goiena: Basabe poligonoa E05.
943 25 05 05.

**ARAMAIO**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11.
945 44 50 22.

**ELGETA**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2.
943 76 80 98.

**ANTZUOLA**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1.
943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 126 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
**Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**

ESKER ONA



## Juana Beitia Isasmendi

Tomas Lasagabasterren alarguna

Aretxabaletan hil zen 2012ko apirilaren 19an, 91 urte zituela.

Hileta elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko familiaren izenean.

**Aretxabaletan, 2012ko apirilaren 23an.**

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

**Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99**
**e-posta: *euskalduna@harrespil.net***

## ZORION AGURRAK



ANGIOZAR
**Nahia Loidi**
Apirilaren 30ean, 8 urte. Zorionak eta patxo handia etxekoen partetik!!



ESKORIATZA
**Pablo Berezibar Arevalo**
Apirilaren 29an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko hatzamar guztiak bete dituzu! Ondo pasatu Espielen! Zure lehengusu eta familia guztiaren partetik.



ARRASATE
**Itxaro Artola Lizarralde**
Apirilaren 28an, urtebetetzea. Zorionak familiako danon partetik! Eta Luken eta Elenek, pa eta pa!



BERGARA
**Irati Sanz Zubizarreta**
Apirilaren 28an, 15 urte. "Ze azkar pasa diren urteak denontzat zorionak Irati patxo bat zuretza." Etxekuon partetik.



ESKORIATZA
**Itsaso Eraña**
Apirilaren 27an, 18 urte. Zorionak itsas! Primeran pasatu zure egunien eta disfrutau topera, lola. Muxuuhandii-handi bat Silvia, Olatz, Amaia Maialen, Leire eta Lorearen partetik.



OÑATI
**Ezozi Soba**
Apirilaren 26an, 21 urte. Zorionak, Azozi! Ondo-ondo pasatu eguna! Eta juerga ear batekin ospatu asteburuan! 21 tirakada belarrittik! K22!



ARRASATE
**Elaia Gonzalez Ibarrondo**
Apirilaren 26an, 6 urte. Zorionak eta muxu pilo bat etxeko poxpolinari! Izugarri maite zaitugu aitatxok eta amatxok, sorgintxo!



OÑATI
**Xabi Jausoro**
Apirilaren 25ean, 2 urte. Zorionak, Xabi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo potolo bat!



ARRASATE
**Nerea Elduaien Azula**
Apirilaren 25ean, 5 urte. Zorionak eta patxo handia anaia, guraso eta aitaita-amamen partetik.



ARETXABALETA
**Aimar Azpitarte Zubizarreta**
Apirilaren 23an, 4 urte. Zorionak, artista! Ederto ospatuko dou zure eguna. Muxu handi bat etxeko danon partetik eta Anerrek. Pa!



BERGARA
**Antxon Santamaria Iztueta**
Apirilaren 22an, 8 urte. Aupa mutil! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Mila muxu etxekoen partetik. Potxolak ere beste bat bidaltzen dizu.



ARRASATE
**Naiara Lara Muruamendiaraz**
Apirilaren 22an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzea, merezi duzu-eta! Muxu pila-pila Leire, Maider, aitatxo eta amatxoren partetik, bihotzez.



ARAMAIO
**Manex Astola Azkarraga**
Apirilaren 17an, 2 urte. Zorionak, Manex! Muxu pila bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Ibai Zulueta**
Apirilaren 22an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Egun zoriontsua pasatu eta belarri tirakada handi bat etxeko guztien partetik. Muxu potolo-potolo hau zuretzat. Muak!



BERGARA
**Unax Zanguitu Sanchez**
Apirilaren 22an, 7 urte. Zorionak Hodei eta etxekoen partetik.



OÑATI
**Joakin Sagastume Lasa**
Apirilaren 22an, 46 urte. Zorionak, aitatxo! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat zure lau nesken partetik. Lasai mutikotxoa badator bidean eta... Mua!



OÑATI
**Josu eta Jokin Moreno Astigarraga eta Ander Murillo Astigarraga.**
Josuk eta Jokinek apirilaren 21ean, 14 urte eta Anderrek apirilaren 22an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu eguna eta mila muxu etxeko danon partetik!



OÑATI
**Amaia Aranzabal**
Apirilaren 20an, 21 urte. Zorionak,Amalia! Aprobetxatu zure eguna topera! 21 patxo potolo zure kuadrillian partetik!



OÑATI
**Sara Urzelai Eguren**
Apirilaren 20an, 2 urte. Zorionak, Sara! Ondo pasatu zure urtebetze egunian eta patxo handi bat familixa danaren partetik.



ESKORIATZA
**Iosu Urzelai**
Apirilaren 20an, 18 urte. Zure atzamar maiteenaren eta bi maitale ederren partetik, Zorionak, potzolo. Ondo pasatu euna eta txokolatezko muxutxuak!



ARETXABALETA
**Martxel Lasagabaster Arrieta**
Apirilaren 20an, 4 urte. Zorionak, Martxel! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko danen partetik!



OÑATI
**Beñat Murguzur Lizarralde**
Apirilaren 19an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxekuen, eta bereziki, Aitor eta Maddiren partetik.



ARRASATE
**Maria Pilar Bruña**
Apirilaren 19an, 72 urte. Zorionak, amama! Bazkari eder batekin ospatuko degu eguna. Ondo pasatu eguna eta mila muxu etxeko guztien eta bereziki, Ekaitz eta Iratiren partetik. Pa!



ESKORIATZA
**Galder Isasmendi Martinez**
Apirilaren 16an, 10 urte. Zorionak, gure potxolo. Munduko muxu goxoena zuretzat, familia osoak. Maite zaitugu.



BERGARA
**Oihan Leston Ezenarro**
Apirilaren 16an, 3 urte. Zorionak, pirata! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki Marenen partetik!



ESKORIATZA
**Itziar Bengoa Muxika**
Apirilaren 16an, 5 urte. Zorionak, Itziar! Bost urte einttuzu. Patxo bana familixako danon partetik.



ARETXABALETA
**Egoitz Ibabe Santamaria**
Apirilaren 15ean. Kaixo, txiki! Jada bi urte! Ondo pasatu urtebetetze egunean eta beti bezain alai jarraitu. Txokomarrubizko mila patxo etxekoen, eta batez ere, Uxueren partetik. Zorionak!



ARETXABALETA
**Maren Oroiz Antoñana**
Apirilaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Maren! Oso ondo pasatu zure hirugarren urtebetetzean. Musu potolo bat etxekoen partetik eta beste musu erraldoi bat Naiara eta Nerearen partetik.



BERGARA
**Amaiur Olabarria Arrizabalaga**
Apirilaren 15ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partetik. Egun zoriontsua pasa ezazu familiakoen artean.



OÑATI
**Julen Vizcaíno**
Apirilaren 15ean, 10 urte. Zorionak Julen! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
**Itsaso Letamendi**
Apirilaren 15an, 21 urte. Zorionak, Itsas, Poloniako beste alde honetatik! Ondo-ondo pasatu eguna, 21 tirakada belarrittik eta laister egonen gira!



LEINTZ GATZAGA
**Ganix Otazu Arzelus**
Apirilaren 13an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



ARAMAIO
**Amaiur Arana Ajuriagerra**
Apirilaren 12an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ederto pasatu zure egune eta txokolatada ederra prestatu! Muxu handi bat Jauritxikitik.



ARETXABALETA
**Xubane Garai Lazkano**
Apirilaren 12an, 10 urte. Zorionak, poxpolin! Espero gustatuko zitzauzule zure eguneko ospakizune. Muxu handi-handi bat etxeko erreginari. Etxekuen partetik.



BERGARA
**Ane Zangitu Juaristi**
Apirilaren 12an, 21 urte. Zorionak eta urte askotarako, Ane! Egun ona pasatu Polonian eta 21 tirakada belarritxik kuadrillakuen partetik!



BERGARA
**Loli Echeverria Mondragon**
Apirilaren 12an, 66 urte. Zorionak, amama, zure iloben partetik. Ondo pasatu. Maite, Jon eta.....



ARAMAIO
**Nahia Garcia Bidaburu**
Apirilaren 12an, 5 urte. Zorionak, sorgintxo. jadanik bost urte egin dituzu. Ze handi egiten ari zaren. Ondo pasatu zure eguna, familia guztiaren, eta batez ere, asko maite zaituen zure ahizpa Maddiren partetik.



ARETXABALETA
**Aner Sanchez Borrego**
Apirilaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun!! Oso ondo pasatu zure egunean eta gozatu opariakin. Patxo handi bat etxekoen partetik, *Pitxintxo*!



BERGARA
**Ane Garcia Perez**
Apirilaren 11n, 5 urte. Zorionak, potxola! Patxo handi bat familia osoaren eta, bereziki, Jurgi, Elene eta Eriken partetik. Ondo-ondo ospatu urtebetetzea. Mua!



BERGARA
**Nora Larrea Gantxegi**
Apirilaren 11n, 5 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat etxeko guztion eta bereziki Aner eta Unaxen partetik. Ondo pasatu! Asko maite zaitugu!

## ZORION AGURRAK


ARETXABALETA
**Igotz eta Aner Idigoras**
Igotzek apirilaren 25ean, 7 urte eta Anerrek apirilaren 24an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko danon partetik. Ondo pasatu.


BERGARA
**Alazne Suinaga Ena**
Apirilaren 25ean, 4 urte. Zorionak Maitane, amatxo eta aitatxoren partetik.


BERGARA
**Ekain Rodriguez Diaz de Zerio**
Apirilaren 24an, 2 urte. Zorionak, Ekain! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean eta muxu handi bat etxeko danen, eta batez be , Ibairen partetik.


BERGARA
**Mikel Igartza Amasorrain**
Apirilaren 24an, 6 urte. Zorionak eta muxu pila etxeko guztien partetik. Orain arte bezalako jator jarrai eta ondo pasatu zure urtebetetzean.


OÑATI
**Maren Altube Cid**
Apirilaren 24an, 2 urte. Kiku maittia! Zorionik beroenak gure etxeko erreginari. Primeran pasatu merendolan eta txokolatezko muxu potoluenak familixa danan partetik. Mua!


OÑATI
**Eneritz Gereñu Arregi**
Apirilaren 24an, 4 urte. Zorionak etxeko danen partetik. Muxu pila bat eta ondo pasatu eguna, printzesa!


BERGARA
**Unai Barquero**
Apirilaren 23an, 2 urte. Zorionak, *bitxito*! Patxo handi bat etxeko denon eta bereziki Malen eta zure lehengusuen partetik!


BERGARA
**Olaitz Agirrezabal Gabilondo**
Apirilaren 22an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu urtebetetzean eta orao txokolatezko muxu potolo bat, familia eta bereziki Urkoren partetik. Horrela jarraitu, txapeldun!


ESKORIATZA
**Alaitz Salaberria**
Apirilaren 22an, 6 urte. Zorionak, Mari Sorgin. Azkenean sei urte! Ondo-ondo pasatu urtebetetze egunean eta muxu handi bat etxekoen partetik.


OÑATI
**Ane Isasisasmendi Egaña**
Apirilaren 22an, 5 urte. Zorionak eta pa handi bat familixa danan partetik.


ESKORIATZA
**Danel Segovia Servide**
Apirilaren 22an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna zure lehengusu Iker, Naroa eta Ibairen partetik, eta baita zure arreba Naiaren partetik. Besarkada handi bat.


OÑATI
**Unax Altube Ayesa**
Apirilaren 21ean, 4 urte. Zorionak, txapelduna! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean familiaren partetik. Pastel handi bat egongo da. Musu handi bat.


ARRASATE
**Goizeder Uribe**
Apirilaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak eta musu handi bat Errenteriatik!


ARETXABALETA
**Abene Barrena Bruña**
Apirilaren 21ean, 35 urte. Zorionak, amatxo! Ondo pasatu zure eguna eta merienda ederra prestatu danondako,eh? Muxu pila zuretzako aitatxo, Ekaitz eta Iratiren partetik.


BERGARA
**Iban Da Silva**
Apirilaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, aita! Oso ondo pasatu zure egunian eta pillo bat tirakada belarritik! Patxo handi bat etxekuen eta Uxueren partetik.


ARETXABALETA
**Jon Ugalde**
Apirilaren 19an, 8 urte. Zorionak, Jon! Oso ondo pasatu eguna! Bergarako familixiaren partetik.


OÑATI
**Nahia Guridi Olalde**
Apirilaren 18an, 3 urte. Zorionak, pitxin! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Txokolatezko muxu pila bat aitatxo, amatxo eta bereziki Danelen partetik.


ARRASATE
**Lide Azkarate Ojanguren**
Apirilaren 18an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Amatxo, aitatxo eta Garazi.


ARETXABALETA
**Kaiet Pando Egurza**
Apirilaren 18an, 5 urte. Aupa, Kaiet! Zorionak Markel eta senide guztien partetik! Muxu handi bat!


ARRASATE
**Ander Etxabe Uribarren**
Apirilaren 17an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxeko guztion partetik!


BERGARA
**Julen Unamuno Marzan**
Apirilaren 17an, 3 urte. Zorionak gure etxeko mutil handiari. Belarritik hiru tirakada Ekaitzen partetik. Muxu handi bat eta egun polita pasatu etxeko eta familia guztiaren partetik.


ARRASATE
**Cesar Azkarate Beitia**
Apirilaren 17an, 40 urte. Zorionak, aitatxo! Larraitz, Oihan eta Hegoi.


ELGETA
**Urtzi Sarasua Zeberio**
Apirilaren 16an, 3 urte. Etxeko txikiak hiru urte dagoeneko. Zorionak eta ondo pasatu eguna, *terremoto*! Aitatxo, amatxo eta Ander.


ARRASATE
**Naia Zuazubiskar Zubillaga**
Apirilaren 16an, 10 urte. Zorionak, Naia. Muxu bat etxekoen partetik!


ARRASATE
**Aisha Luengo Elkoro**
Apirilaren 15ean, 3 urte. Zorionak, sorgin! Muxu handi-handi bat etxeko guztion partetik. Bereziki Eder eta Luken.


OÑATI
**Oxel Zarketa Dominguez**
Apirilaren 14an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat etxekuen partetik.


BERGARA
**Asier Markez Gil**
Apirilaren 14an, urtebete. Zorionak!


OÑATI
**Oier Laka Sansinenea**
Apirilaren 14an, 2 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat familixa danan partetik.


ARRASATE
**Oier Armendia Zallo**
Apirilaren 14an, 5 urte. Zorionak, Oier! Bost urte jada, txapeldun! Muxu handi-handi bat etxeko danon partetik.


BERGARA
**Ainhoa Gallastegi Visitacion**
Apirilaren 14an, 7 urte. Zorionak zure zazpigarren urtebetetzean. Musu handi bat etxeko guztien partetik.


BERGARA
**Ibai Osoro Agirre**
Apirilaren 14an, 4 urte. Zorionak, Ibai! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxekuen partetik. Aupa Real!


OÑATI
**Iban Perez**
Apirilaren 13an, 26 urte. Zorionak, tio Piban! Ondo-ondo pasatu eguna! Muxu asko etxeko guztien partetik, eta 26 tirakada! Baina, bereziki Marioren eta Enzoren partetik.


OÑATI
**Olatz Gordoa Aspiazu**
Apirilaren 10ean, 17 urte. Olatz! Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu eguna eta badakitzu, zapatuan juerga on bateaz zelebratu! Jaajaja. 17 patxo handi!

ARETXABALETA
**Mirari Antoñana**
Apirilaren 10ean, 38 urte. Zorionak, Mirari! Egun polita izan! Musu asko etxekoen partetik.


OÑATI
**Eider eta Maren Calzada Guridi**
Apirilaren 9an, 2 urte. Zorionak, politak. Ongi igaro zuen eguna!


BERGARA
**Beñat Legazpia**
Apirilaren 27an urte 1 egingo du. Zorionak Ekainen eta familiaren partez.


OÑATI
**Leire Maiztegi Lete**
Apirilaren 8an, urtebete. Zorionak, potxola, eta patxo handi bat Oñatiko eta Antzuolako familixa danan, eta batez be, Maialenen partetik. Ondo pasatu eguna.


ARRASATE
**Jon Barrenetxea Garzia**
Apirilaren 6an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo potoloak etxeko guztion partetik.


ARRASATE
**Ibai Alberdi Segovia**
Apirilaren 5ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun, zure lehengusuen partetik eta arreba Naroaren partetik. Muxu handi bat!


ARAMAIO
**Gaizka Casares**
Apirilaren 5an, 36 urte. Zorionak, Rockero!


ARRASATE
**Urko Muñez Morales**
Apirilaren 3an, urtebete. Zorionak, polit hori! Zure lehenengo urtetxoa! Musu potolo bat etxekoen partetik, potxolo!

## AI, ENE!

### Nondik datoz zonbiak?



Hildako bizidunak modan daude, eta adin guztietan, gainera: badago argazkiko zonbi familia baino gauza ederragorik?

**www.facebookfails.com**

## AHOBERO

### "Ahalegin txiki bat eskatzen dut, euro gutxi batzuk dira hilabetean"

**MARIANO RAXOI** |ESPAINIAKO PRESIDENTEA

Ekonomia ez dago ondo. Ez dago zerbitzu publikoetarako dirurik. Gerrikoa estutu behar da. Baina zergatik izan behar dira/gara beti berdinak ahalegin txiki hori egin behar dutenak/dugunak? Gehituz gero, gainera, gutxi ugarik asko handi bat egin dezakete…

**www.elpais.com**

## EGURALDIA



| | |
|---|---|
| Max. | 15º |
| Min. | 6º |

Astelehen eguerditik aurrera fronte hotz bat pasako da lurraldetik.

**euskalmet.net**

ASTELEHENEKOA

goiena"

2012-04-23

**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Nerea Garmendia** 'Hasiberriak', 'Vaya Semanita', 'Los hombres de Paco', antzerkia, publizitatea… Urratsez urrats eta irribarrea beti ahoan, bere bidea egin du Madrilgo oihanean. | TXOMIN MADINA

# "Lan honetan buru oso hotza izan behar duzu ondo mantentzeko"

**1. Fokuen argiak txikitatik izan dituzu gustuko?**
Kameraren objektiboa gehiago… 16 urterekin serio hartu eta prestatzen hasi nintzen. Hortik bizi izaten saiatu gura nuen eta 25 urtera arteko epea jarri nuen. Oraingoz, lanbide gogokoenetik bizi ahal izan naiz.

**2. Pantaila txikia, bigarren etxea?**
Oso gustura sentitzen naiz, baina ez zait gustatzen horretan bakarrik geratzea. Antzerkiaren magia ere oso polita da; orain mikroantzerkian nabil: hamabi minutuko obrak hamabost ikusleren aurrean. Oso esperientzia polita ari da izaten.

**3. Edertasunak ateak ireki eta itxi egiten dituela diote. Ados zaude?**
Bai eta ez. Edertasunak ateak itxi baino gehiago, mugatu egiten zaitu, pertsonaia batzuetarako bakarrik ikusten zaituzte. Lan barik edo lan askorekin dagoen jende oso polita dago, profesionaltasuna da gakoa.

**4. *Casting*-etan, zenbat ezezko entzuten dira baiezko bakoitzeko?**
Oso arraroa da, ez dago arrakastaren sekreturik: urte batean *casting* guztietan hartzen ninduten, eta orain ez da horrela… Lan honetan, burua oso hotza izan behar duzu ondo mantentzeko.

**5. Nola moldatzen da beasaindar bat Madrilgo oihanean?**
Madrilen %90 kanpokoak gara, eta etxean sentiarazten zaituzte. Orain oso ondo nago. Horrek ez du esan nahi Euskal Herria faltan igartzen ez dudanik…



AGM

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA…

### "Ordena eta zentzua jarriko nuke"

"Krisiaren kontuan ordena apur bat jarriko nuke, gauzak zentzuarekin eta denentzat berdin eginez; hau da, batzuek murrizketak sufritu behar badituzte, denek sufri ditzatela. Injustiziak amorrazioa eragiten dit, ez zait aproposa iruditzen. Baina uste dut errazagoa dela elefante bat hegaz ikustea".

**6. Prentsa arrosakoak ere ez dituzu oso urruti ibiltzen…**
Lan honetan prentsa arrosak ere hartzen du parte. Ematen duzuna jasotzen duzu: errespetuz tratatzen ditugu eta haiek gu ere bai. Baina kalean zoazela paparazzi batek argazkiak ateratzea arraroa egiten da.

**7. Andaluziar bat eta euskaldun bat… ondo moldatzen dira?**
Oso ondo. Hura [bikote Jesus Olmedo aktorea] ez da andaluziar tipikoa, eta ni ez naiz euskaldun tipikoa; biok nahasketa kuriosoa dugu, horrek badu bere grazia.

**8. Marvelous. Hitz hori entzunda zer etortzen zaizu burura?**
Sara Montiel. Oso esperientzia polita izan zen; pertsonaia oso ezberdina da, bere puntuarekin. Gauza asko ikasi nituen harekin; duen politena da berdin zaiola nor zaren eta ze izen duzun, beti berdin tratatuko zaitu. Estimu handia diot.

**9. Eta James Bonden pelikula bat ikusita?**
AEBetan nengoela Bonden pelikula bateko *casting*-a egiteko aukera izan nuen; leku konkretuan eta momentu egokian nengoen. Bi profilen bila zebiltzan eta esan zidatenez, baten azkenengo hiruren artean geratu nintzen. Baina azkenean beste profilarekin geratu ziren.

**10. Noiz azken billar partida?**
Ez dut aspaldi jokatu, baina irakatsi zidanarekin partida bat dut botatzeko. Asko gustatzen zait, lasaitasuna ematen dit.

## BIHARAMUNA



**IXIDOR SOLUPE**

### Migrazioa

Azken egunotan, Finlandian erizainak behar eta Euskadin aukeraketarekin hasi direla zabaldu dute hedabideek; hautatuek bete behar duten baldintza suomi edo fines hizkuntza ikastea omen da.

Baita ere albiste izan da Pete Cenarrusa, AEBko Idaho estatuan 1917an jaioa eta XX.mende hasieran atzerriratutako euskaldunen semea.

2003an sortu zuen"Cenarrusa Foundation for Basque Culture"eta honen eskutik aurkeztu zuen aurtengo martxoan euskal gatazkaren konponbide demokratikoaren alde Idahoko Ordezkarien Ganberak eta Senatuak onartu duten adierazpena.

Bi albisteek, iraganeko eta egungo euskal migrazioak erakusten dizkigute, bietan ere krisi egoera larriak bultzatutako gertakizunak direla eta.

Irudia osatzeko, kontuan izan behar dugu XIX.mende amaieran, XX.mendeko 50-70. hamarkadetan, eta azken urteotan ere Euskal Herrira etorritako migrazioa, Espainiatik, Hego Ameriketatik, Afrikatik….

Migrazioa bi norabideko prozesu bezala ulertu eta onartu behar dugu, jaso nahi genukeen errespetu, jasankortasun eta elkartasuna datozenei eskainiz.

Ni ere, Idahora migratutako euskaldun horietako baten semea naiz.

